



Guti, Felixin eta Narbaiza Bitorianatxorekin. | M. BELASTEGI

Ibarreko lehen jaiak, gaurtik Bergaran


ORRIALDE BEREZIAK BARRUAN | 35



Oñatiko Guria tabernaren azken 15 egunak Arregiren dokumentalean | 21



Emakume musikariak iruditan ikusgai Arrasaten | 31



Aretxabaletako tabernetan bidaia kontakizunak eguenero | 11

Lanpostuen gaineko erabakia, eguenean | 5

"Bidegorri gehiagorekin, lortuko dugu herritarrek haiek lantokira joateko erabiltzea"

Larraitz Ugarte Foru-diputata | 8



Elkarbizitza prozesu arrakastatsua Antzuolan | 25

Joseba Larrinaga omenduko dute domekan | 28



BURDINAZKO GAZTEAK

Ironcat proba egin dute Iker Laskurain eta Javi Rayo arrasatearrek | 14

Iker Laskurain eta Javi Rayo, Arrasateko Herriko Plazan, Tarragonan irabazitako dominak erakusten. | JOKIN BEREZIARTUA

Domekan inauguratuko dute Arrasate eta Oñati arteko bidegorri berria

Herritarrekin batera, jai giroan egingo dituzte ekitaldiak, eguerdian | 2

SINADURAK

RUFINA OLASAGASTI | 6

6 | LARRAITZ ZEBERIO

NEREA MAKAZAGA | 12

17 | IÑAKI ANASAGASTI

AINZANE OIARBIDE | 64

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 59 | TELEBISTA-IRRATIA 60 | EZKONTZAK 61 | ESKELAK 61 | NON-ZER 62



SEAT ALHAMBRA

Goatzeko teknologia

Udalaitz


Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48





Elorregiko biribilgunetik gertu. | ARGAZKIAK: RUBEN CUESTA



Biribilgunera bidean, Minazuluetako tunela.



Biribilgune azpitik.



Anbulantzien aparkaleku ondoko sarrera.

Ohiko bidaietarako alternatiba izan nahi du Oñati-Arrasatek

- ▶ Etzi inauguratuko dute bidegorria, herritarrekin
- ▶ Foru Aldundiak 3,4 milioi inbertitu ditu obretan
- ▶ Lanera, eskolara... joateko izan dadin nahi dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Etzi, domeka, 12:00etan, jai giroan inauguratuko du Foru Aldundiak Debagoieneko herri arteko bidegorriaren zati garrantzitsuenetako bat: Arrasate (Epele) eta Oñati lotzen dituen, hain zuzen. Obrak joan den asteko eguenean bukatu zituzten.

Bide berria -dagoeneko zabalik dena- 8,5 kilometro luze da, eta 3,5 metro zabal hartzen ditu.

Ia aldaparik gabeko ibilbidea da. Foru Aldundiaren asmoa da bidegorri zati hori bereziki, bi herriren arteko lotura den neurrian, eguneroko garraio bide gisa gero eta gehiago erabiltzea.

Foru Aldundiko Mugikortasun diputatuaren, Larraitz Ugarteren hitzetan, Gipuzkoako edozein bidegorri irekitzea pozgarria da eurenentzako; baina Arrasate eta Oñati lotzen dituen "bereziki

inportantea" da, "estrategikoa" delako, martitzenean GOIENA telebistan azaldu zuen moduan: "Herriren artean distantzia dezentente duen bailara da Debagoiena; horregatik, herriren arteko komunikazioa ez da hain erraza. Garrantzitsua da, lurralde ikuspegi batetik, zonalde honetan ere inbertsio publikoa egitea, bizi-baldintzak hobetzea, eta dudarik ez daukat bidegorri honek bere-

ziki oñatiarren bizi-baldintzak hobetuko dituela".

Epele eta San Prudentzioren artean, bidegorria Vasco-Navarro trenbide zaharraren plataforman oinarrituko da. Horregatik, trazatu leuna du, bai oinplanoan bai altxaeran. San Prudentzioren eta Fanderiako poligono industrialaren artean ere, bidegorria trenbidearen plataformatik doa, nahiz eta plataforma horrek aldaketa batzuk izan dituen, Urkuluko urtegitik datorren edateko ura bertatik eramateko.

LED luminariak jarri dituzte ibilbide osoan zehar, hiri tarteren batean eta industria-poligonoren batean izan ezik. LED luminariak mugimendua antzemateko sentsoak dituzte, beharra dagoenean bakarrik pizteko.

16 hilabeteko lan konplexuak

Bi zatitan eta bi proiektutan banatuta egin dute bidegorria: Arrasatetik (Epeletik) Zubillagara eta Zubillagatik Oñatira. Madalenako tunela, Oñatin, eta Elorregiko biribilgune azpikoa izan dira lan korapilatsuenak. Madalenen, tunelaren horma baten pitzadura agertu zen eta ur-sarrera handi batekin egin zuten topo. Larraitz Ugarterek onartzen du Zubillaga-Oñati trama izan dela konplikatuena: "Hamar hilabetez egitea zegoen aurreikusita eta azkenean 16

hilabete izan dira. Kalte batzuk egin ditu horrek, zirkulazio arazoak... Baina pazientziarekin erantzun dute herritarrek".

Oinezkoendako eta bizikletan doanarendako, biondako eroso izatea da helburua eta, horregatik, 3,5 metro zabal egin dute bere zati zabalentan, bi metro txirringularen eta 1,5 oinezkoendako. Zenbait puntutan, espaloien plataforma zabaldu egin da zabalera hori hartzeko.

Batez besteko aldapa % 1,66koa da, eta aldapa handiena Madalenako gasolindegiko inguruan dago: % 8ko aldapa. Larraitz Ugarterek esan du "ahalegin berezia" egin duela Foru Aldundiak bidegorria oso aldapsua ez izateko eta "edozeinek erabili ahal izateko". Bere esanetan, Debagoieneko bidegorri sarean egin izan duen moduan, Vasco-Navarro trenbide zaharraren ibilbidea errespetatu du Foru Aldundiak ahalik eta gehien, eta horrek oso aldapa txikia du.

Aldapaz gain, zaindu egin ditu Foru Mugikortasun sailak bidegorria denondako egokia eta segurua egiteko beste alderdiak ere. Kontuan hartu behar da oinezkoek eta txirringularen, biek eroso erabiltzeko modukoa izan behar dela eta, bestetik, trama batzuetan konbentziazko bidegorria dela, hau da, errepedeko motordun ibilgailuen parean

Beti dago
lehen aldi bat
edo zertarako...

Ezberdin jatera ausartzeko.
Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai;
erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko, adibidez.
Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeke unea.
Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako
lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerentarako balio du.

eroski.es

EROSKI online

zurekin



Ekilore denda inguruak.



Oñatin, Madalenara irteten.



Madalenan, lurreko seinaleak.



Madalenan lur azpira sartzen da. | RUBEN CUESTA

doala. Horregatik, Ugarteren esanetan, Mugikortasun sailak Bide Segurtasun taldearekin lan egin du, bizikletei lehentasuna emateko. Horrekin batera, dei egin du txirrindulariak "kontziente izan daitezene une batzuetan autoekin konbentzientzia ibiliko direla eta arduraz jokatu dezatela".

Kontuan hartu behar da herri arteko bidegorriak Foru Aldundiaren ardura direla, herri barrukoak ez bezala, eta horietako asko "errepide ondoetatik doaz eta inbertsio handiagoa behar dute, segurtasuna bermatzeko", azpimarratu zuen Ugartek.

Araztegitik erdigunera

Epeletik Zubillagara arteko tramua 4.556 metro luze da. 1,36 milioi eurotan esleitu zen. Epeleko hondakin uren araztegiaren parean hasten da, Arrasateko Udalaren bide batean. Araztegiaren atzealdetik doa, AP-1 autobideko zubien azpitik, N-627 errepidera arte. Hor, bidegorria eta N-627 errepidea paralelo doaz tarte txiki batean, hormigoizko hesi batek bereizita. Aurrerago, Ekilore dendaren eta baserri bateko ibilgailu-sarbidearen aurretik igarotzen da. Tarte horretan, bidea konbentzientzia da bidegorrikoendako eta motordun ibilgailuendako.

Ondoren, trenbide zaharraren beste zubi bat gurutzatzen du eta, handik berehala, Errekabaltzeko tunelean (145 metro luze eta 4 zabal) sartzen da. Aire librean 300 bat metro egin eta gero, Minazuluetako tunelera (165 metro luze eta 4 zabal) iristen da. Bi tuneletan argia isiotuta izango da beti.

Minazuluetako tunela atzean utzita, bidegorriak trenbidearen

ESANAK

"Honako bidegorria bereziki pozgarria da, estrategikoa delako"

"Aisialdirako bakarrik erabiliko balitz, kapritxo garestia izango litzateke"

LARRAITZ UGARTE
MUGIKORTASUN DIPUTATUA

plataforma hartzen du zati batean, eta, beherantz doala (% 5eko aldapa), San Prudentzioko biribilgunea gurutzatzen du, 50 metro luze eta 4 zabal den lur azpiko pasabidetik. Biribilgunea gurutzatu ondoren, berriz gorantz egiten du (% 7ko aldapa) Tavesa

DATUA

3,4

MILIOI EURO

3,2 milioitan esleitu ziren lanak, baina 3,4 inguru kostatu da Oñati-Arrasate.

enpresako instalazioetara sartzeko Oñati ibaiaren gainean dagoen zubiraino. Hori motordun ere ibilgailuekin erabil daiteke. Bergarik etorriko den bidegorriarekin lotuko da zati hori.

Handik aurrera, Oñati errearen ondokik doa bidegorria zati handi baten. Fandierako industrialdera sartzen da eta, 235 metroan zehar, industria pabilioien eta mendiaren maldaren arteko bide batetik joaten da. Zati hori ere motordun ibilgailuekin konpartitutakoa da. Fandierako industrialdeko sarrera-zubia ere motordun ibilgailuekiko konbentzientzia da. Industrialdea atzealdetik zeharkatzen du lehenengo bidegorriak, eta aurrealdetik ondoren. Atzealdeko zatian, ibilgailu arinak eta astunak ere ibili daitezke.

GI-6230 errepidearen eta Fandierako poligonoaren arteko zubia zeharkatu ondoren, Osinurdineko poligonora sartzeko biribilgunea iristen da bidegorria. Hor, tarte txiki batean, oinezkoen lerroa eta bizikletena bereizita doaz.

Hortik aurrera, GI-2630 errepide zaharraren paralelo doa bidegorria, eta, Zubillagako auzoa zeharkatu ondoren, Oñati ibaiaren gaineko zubira iristen da.

Zubillagatik Oñatira arteko tramua 3,9 kilometro luze da eta 1,9 milioi pasatan esleitu zen proiektua. Oñatiko erdigunea industrialdeekin eta lantokiarekin lotzen du, Foru Aldundiaren nahia eta bidegorrien inguruko helburua jarraituz. Zubillagatik errepidea gurutzatu eta ezkerretik (Oñatira noranzkoan) jarraitzen du, errepidearekiko paraleloan. Madalenako gasolindegia pasatu eta gero,

Bizikleta-martxa egiteko deia

Domekan, 11:00etan, Oñatiko plazatik Elorregira bizikleta martxa irtingo dira Txirrinka Bizikletazaleen Elkarteak. Bada, Txirrinkarekin bat eginda, Arrasateko herritar talde batek dei egin du Seber Altuben 11:00etan batzeko eta eurak ere Elorregira joateko. Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik ere bizikletan joatera eta horretarako eurekin koordinatzera animatzen dute. Horretarako telefono zenbaki hau eman dute: 651 84 77 45.

lur azpitik jarraitzen du eta, auzoko ermita eta gero, Madalenara arte dagoeneko bukatuta zegoen zatiarekin bat egiten du eta Otadui arboledara jarraitzen du, eta handik kilometro eta erdi aurrera jarraitzen du, erdigunera ailegatu arte.

DATUA

% 1,6

DA BATEZ BESTEKO ALDAPA

Aldapa handiena Madalenako gasolindegi inguruan dago: % 8.

Gero eta bizikleta gehiago

Bi proiektuak 3,2 milioi pasako aurrekontuarekin adjudikatu ziren, baina Larraitx Ugartek GOIENA telebistan esan zuenez, 3,4 milioi inguruko kostua izan dute azkenean; "kostu inportantea" Diputazioarendako. Horregatik, "bidegorria bakarrik aisialdirako erabiltzea kapritxo garestia litzateke: autoaren alternatiba ere izan behar du".

Gipuzkoako Bizikletaren Behatokiak 2011ko memorian jasotako datuen arabera, erabiltzaileak gero eta gehiago dira -% 15 gehiago 2010etik 2011ra-, baina oraindik aisialdirako erabiltzen dira gehien bidegorriak: 2011n bizikletan egiten ziren bidaien % 60 eta oinezkoen % 94 aisialdikoak ziren. Larraitx Ugartek honakoa esan zion martitzenean GOIENARI: "Txirrindulariak gutxiago dira, baina gero eta gehiago ibiltzen dira bidegorrian lanera-eta joateko". Txirrindularien kopurua ere gero eta handiagoa dela gaineratu zuen.

Bergara-Elorregi, lehentasuna

Elorregi eta Bergara arteko bidegorriaren proiektua eginda eta lehentasunen artean dago. Bestetik, Deskargako errepidea irekitzearekin batera Antzuola-Bergara lotura irekitzea da asmoa. Deskargako lanak 2015eko udaberriko bukatuko dituzte. Bergararen eta Mekolalderen arteko eta, beste puntan, Eskoriatzatik Gure Ametsa jatetxera arteko lotuneak geratzen dira egiteko.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.









ARIZMENDI IKASTOLAREN

LANBIDE HEZIKETA ZURE LANERAKO BIDEA

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUAK · GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
ERIZAINZAREN LAGUNTZA OSAGARRIAK

IZEN EMATE EPEA
MAIATZAREN 27TIK EKAINAREN 7RA

943 77 20 25 // WWW.ARIZMENDIPRO.EU



Lanpostu uztea eta soldata jaitsiera, erabakitzear Fagorren

Asteon onetsi dute Fagorri laguntzeko 70 milioi euroko fondoa sortzea

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Aho batez onartu zuten Mondragon Taldeko bazkideek 70 milioi euroko Berregituratze eta Enplegu Sozietariorako Fundoa sortzea Fagor Etxetresna Elektrikoei laguntzeko, "etorkizuneko bidegarritasuna eta enplegu iraunkorra babesteko". Oraingo asteko astelehenean egin dute batzarra Arrasateko Amaia antzokian eta bertaratu ziren 650 ordezkariak hartu zuten erabaki hori. Mondragon Taldeko aditza emanakoaren arabera, fondoaren helburua da Fagor Etxetresnak kooperatiba errealtate berrira egokitzea.

Elkartasunaren garrantzia

Elena Goirizelaiak, Fagor Etxetresna Elektrikoen komunikazio arduradunak, "modu oso positiboan" baloratu du Mondragon Taldeko ordezkariak hartutako erabakia. "Fagor Etxetresna Elektrikoen kudeaketa plana eta plan estrategikoa garatzeko laguntza da hori. Eta oso inportantea da erabakia aho batez hartu izana. Hor ikusten da elkartasuna zelako balio inportantea den gure taldean", gaineratu du Goirizelaiak. Antzerako irakurketa egin

du Agustin Markaidek, Mondragon Taldeko kongresuaren presidenteak: "Elkartasun adibidea izan da hartutako erabakia"; eta esker oneko mezua eman zien kongresukide guztiei.

600 milioi euro gutxiago

Fagor Etxetresna Elektrikoen 2013-2016ko plan estrategikoaren harira, berriz, Mondragon Taldeko kongresuan gogora ekarri zuten "hazteko estrategia" planteatzen duela, "nazioartean aliantzen bitartez bere markak munduan duen presentzia hobetuta eta salmentak ia 200 milioi euro handituta aldiaren bukaerarako. Era berean, negozioaren dimentsio-namendu berria planteatzen du, barruko efizientzia eta lehiakortasuna hobetuz bideratuta".

Izan ere, jakinarazi zuten, "krisiak modu dramatikoan egin dio eraso etxetresna elektrikoaren sektoreari, eta horrek sektoreak azken bost urteetan %56 behera egitea ekarri du. Hau da, 2012an etxetresna elektrikoaren merkatuak 2007an fakturatu ziren salmenten erdia baino pixka bat gutxiago fakturatu du. Fagorren kasuan, salmentak %37 txikitu dira aldi horretan, 600 milioi euro".

Lanpostua seme-alabei uztea

Kontuak kontu, ez da bukatu Fagorren etorkizuna erabakitzen diharduen prozesua. Maiatzaren 23an, datorren asteko egunean, Fagor Taldeko kooperatiben (Fagor Ederlan, Elektronika, Etxetresna, Industrial, Copreci eta Mondragon Assemblyko) ordezkarien batzarrean berretsi egin beharko dituzte taldeko kooperatibetan banan-banan hartutako erabakietako batzuk. Adibidez, bazkideen lanpostua seme-alabei uztearekin segitu edo ez,



Mondragon Taldeko kongresuaren botazioetako bat. | MONDRAGON TALDEA

eta langileen soldata jaitsiera zenbatekoa izango den. Kontseilu Berritik jakinarazi dutenez, dena den, lanpostua seme-alabei uzteak bere horretan geratu behar luke, kontuan hartuta Fagorren negozio desberdinetan egindako

batzar orokorretan 1.784 botoko aldearekin bazkideek lanpostuak seme-alabei uztearen alde egin zutela.

Datorren eguneko batzarra Aita Menniren areto nagusian da, 11:00etan.

IKUSPUNTUA

IÑIGO IÑURRATEGI

MU-KO LANKI IKERTEGIKO KIDEA



Kooperatibei buruzko hausnarketa

Aurtengo udaberri kooperatiboak izan du berezitasunik. Hainbat erabaki hartu dira, esanguratsuak kuantitatiboki eta kualitatiboki, Arrasateko Kooperatiba Esperientzian aitzindari izan zen eta Debagoiengan eragile sozioekonomiko garrantzitsua den Fagor Etxetresnak Kooperatiba Elkartearen egoera zaila dela eta.

Ardura, ahalegina eta elkartasuna azpimarratzekoak izan dira. Arduraz jokatu da, Fagor Etxetresnak kooperatibaren egoera hobetzea oso garrantzitsua delako bertako langile eta senitartekoentzako, bailarako ekonomiarentzako, Fagor Taldeko beste kooperatibentzako eta orokorrean Mondragon Taldearentzako.

Ahalegina eta elkartasuna, lehenik eta behin, Fagor Etxetresnak kooperatibako lan bazkideena. Egoera zail honi aurre egiteko ahalegin pertsonal handia egitea erabaki dutelako. Ahalegina eta elkartasuna Fagor Taldeko gainontzeko zazpi kooperatibetako lan bazkideena, beste behin ere prest agertu direlako behar handiagoa duten taldeko beste kooperatibetara laguntzeko. Eta azkenik, Mondragon Taldeko ehundik gora kooperatibek egindako ahalegin eta elkartasun adierazpena.

Gaur egun gure gizartean bizi ditugun baloreen aurrean badu eredu garrantzirik talde kooperatiboak artikulatu duen interkooperazio sistemak. Eta baita demokrazia eta langileen soberania arlo ekonomikoan gauzatzeko praktikak. Posible eginez gu bezalako hiritar arruntek beraien lanaren gaineko oraina eta etorkizunaz erabakietan zuzenean parte hartzea; edo norberaren kooperatibaren proiektuaz haratago proiektu zabalago baten parte hartzen dutenekin elkartasuna praktikatzea, askotan trukean ezer itxaron gabe.

Bizi dugun egoera sozioekonomikoa ez da batere erraza, eta etorkizuneko erronkak handiak dira. Aste honetan hartutako erabakiak pauso txiki bat besterik ez da. Baina norabide onean. Eredu sozioekonomikoa berregiteaz hitz egiten dihardugun garaiotan autoeraketa, demokrazia, lanaren soberania.

BIRZIKLAGARRIA NAIZ. Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.



Gipuzkoa BERRIA

BAGOAZ!
GIPUZKOA 2016 > %60 BIRZIKLATUTA

ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI
http://goiena.net/iritzia/



Euskararekin aberatsagoak

Duela gutxi Xabi Paya bertsolariak esana elkarriketa batean deigarria egin zitzaidan: Bilbon bizi omen da jendea hiriko gertakari guztietara heltzen dena, erdizka heltzen dena eta ezin heldu dena, euskaraz ez daki-eta.

Komunikazioan ere hizkuntza bat ikasita bidea irekitzen da dimensio berri batean sartzeko. Askotan entzun izan dugu gure aurrekoek bista ona zutela, antiojoen beharrik ez zutelana, ondo ikusten zutelako, adinekoak izan arren. Zer ikusten zuten ordea? Ikusten zuenarekin konformatzen zena bere horretan gelditzen zen; antiojoak jartzen zituena, ordea, harrituta gelditzen zen: lehen ikusten ez zituen gauzak ikusten zitzuelako, nahiz eta lehendik ere han egon.

Antzeko zerbait gertatzen da norbaitek irakurtzen ikasten duenean, munduaz jabetzeko abagune berria sortzen zaio-eta; lehen ere han zeuden idatziak, baina ez zen atzemateko gauza.

Euskara menperatuta benta- ja praktikoak ditugu gaur egun, batez ere egungo krisi garaian, lan arloko atek errazago irekitzen baitaizkigu, eta aukera ematen du erraztasunez mugitzeko hemengo ingurune eleanitzean, eleantitasuna modu arruntean eta positiboan bizitzeko, erroak tokian sustraiturik eta adarrak mundu globalean zehar zabaldurik.

Bestaldetik, urrats inportantea da elkarbizitzarako eta kohesio sozialerako, erdaldunak ez duelako euskaldunik behartu behar gaztelaniatz hitz egitera. Horrela, euskalduna errespetatua sentitzen da bere hizkuntza eta kultura aintzat hartzen dutelako, enpatia sortzen da elkarren artean, harremanak izugarri erraztu. Horretaz gain, aukera eskuratzen du euskal kultura aberatsean barneratze-ko, bertso saioak gozatze, literaturako obra bikainak jatorrizko hizkuntzan irakurtzeko, musika dastatzeko, alternatzeko...

Euskaldun bihurtzen direnei entzuna diegu bizipoza berezia nabaritzen dutela, harreman berriak sortu dituztelako bere buruarekin eta ingurukoekin, mundua hobeto ulertu eta disfrutatzen dutelako.

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

Hiru bakarrik; ez da egingo

Bideojokoan inguruko hitzaldia zuten antolatua Elgetan gurasoendako. Ez da egingo. Soilik hiru gurasok eman dute izena. Argi dago zerbaitek kale egin duela: gaiak, egunak, ordutegiak... Eta onartu beharra dago antolatzailiek ez dutela hitzaldia lotu aurretik gurasoen iritzia eskatu, baina... hiru bakarrik! Dena den, bada beste gauza bat atentzioa eman didana: "Hiruk bakarrik eman dute izena, eta ez dugu egingo". Proposamenik ez hitzaldia atzeratzeko, egun eta ordutegi egokiagoa topatzeko, datorren urtera begira zer egin erabakitzeko... "Ez dugu egingo". Oraingoan izena eman duten hiru horiek emango ote dute berriz hurrengo urtean?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Adina

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Berrogeita hamar urtetik gora, langabeziaren desditxa, ate bat eta beste bat ixten ikustearen atsekabea.

Tipo gogorra izan da beti, lanak ez du kikiltzen.

Baina adinagatik galdetzen zioten ate guztietan.

Azkenean, txiripa batek arrantzarako bidean jarri zuen.

Bera kostakoa da, baina itsasoa arrotz zitzaion, oso arrotz.

Hala ere, tripetako desosegua jan, eta arrantzan hasi zen, berdeletan, antxoatan, legatzetan.

Eginak ditu hamalau orduko lan-egunak, sareak botatzen eta biltzen, legatzak saretik askatzen.

Ez du sekula hain lan gogorrik egin, adina zama zaio, balda-balda eginda oheratzen da gauero, baina ez du etsi nahi.

Latzagoa omen zaio bere buruarekin daraman lehia sarearekikoa baino, oraindik ere balio duela erakutsi nahi baitu.

Ez dela ontziko inor baino gutxiago.

Ohituko dela, ohituko dela,

ohituko dela, egingo duela aurrera...

Edozer, langabeziara itzuli baino, aitortu zidan igandean lan berriaz galdetu nionean.

Euskal poliziak Los Angelesen

Luistxo Fernandez
http://eibar.org/blogak/luistxo/

Gangster Squad ikusi berritan eta *Changeling* gogoan; Eugene Biscailuz eta Lester Ybarra izenen inguruan.

Pertsonalitateak transmititzen dakiten aktore ezagunen aurpegiei esker ikus daitekeen filma da *Gangster Squad*.

Hori eta ambientazioa; hortik aparte, ez du balio handirik.

Ustez, Lako historiako pasarte batzuk deskribatzen dituen erreportaia sorta batean oinarritzen da historia, eta benetako izenak ageri diren arren, fikzionalizazioak derrigor esajeratua behar du izan: ez dut sinesten nik, behintzat, literala denik filmak kontatzen duena. [...]

Gangster Squad-eko bigarren mailako protagonista

historikoen artean, deitura euskaldun bat: Eugene Biscailuz, LA konderriko sheriffa.

Bai, Biscailuz urte askoan izan zen sheriff Kaliforniako hiri handian, eta Martin Biscailuz euskaldunaren semea zen.

Martin hura ere pertsonaia konpletua izan zen, eta gogoan dut inoiz ETBko dokumentalen batean haren eta Miguel Leonis-en kontuak kontatu zizkigutela...

Biscailuz-en izena aditzeak beste film bat ere ekarri zidan gogora: han ere deitura euskalduna Los Angelesko polizia batengan.

Bai, Clint Eastwood-en *Changeling* filmean, Lester Ybarra izeneko ikerlari bat agertzen da (aktorea berriki berrikusi dut *House of Cards*-en).

Wikipediaren arabera, gertakarien benetako protagonista batzen artean eratutako pertsonaia da, hortaz, ez dakit benetan Ybarra poliziarik egon ote zen kasu hartan nahastua.

Kalifornia... gogoan dut bidaia batean, nongoak ginen galdetu eta 'Basque' ginela esandakoa, gizon batek frantsesez egin zigula han, June Lake herrian. [...]

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendaria Imanol Soriano

Maketazioa Itxaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpideta eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Ostalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpideta Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpideta@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritza diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Urkuluko azken errotaria

Julen Abasolo
Aretxabaleta

Nork esango, baina laster izango dira bi urte utzi gintuenetik.

Errota etxean jaiola izanik, aita, errotaria, sasoi eta bat-batean hil zenean, eho beharreko ganbara bete zorrorrekin aurkitu zen, zein zainen zen ez zekiela.

Zerbait ikasitakoa izango zen etxean, eta lan horri ere heldu zion. Urte gutxirako izan zen; izan ere, gari lanak gure inguruetatik hamarkada horretan desagertu ziren, eta horrekin batera erroten zeregina.

Hori gutxi balitz, Korueta aldean urtegi bat eraikiko ote zuten zurrumurrak entzuten hasi ziren, eta errekek nahiko ur ote zeukan ikusteko, bere etxetik gertu, Azatzako eta Arbeko errekek bat egin eta beheratxoago, erreka ur emaria neurtzeko presa kokor bat egin zuten, eta bertan, egunero uraren maila apuntatzeko ardura ere, etxe ondoan zeukala eta, berari eman zioten.

Ez zitzaion tentagarrik falta izan neurketak aldatzeko, behin baino gehiagotan agertzen baitzen norbait, neurketak goitik edo behetik apuntatzeko eskatzen, batzuek lehenbailehen handik alde egiteko gogoan nonbait eta beste batzuek, urtegiaren konturik entzuterik ere ez zutelako nahi. Berak, "kontzientziak agintzen zion moduan", bete ei zuen bere egitekoa.

Urkuluko malatua Arbeko errekatik hornitzen bazen ere, uholdeak edo euri jasa handiak izaten zirenean, Azatzako

erreka zen etxe barruraino sartzen zitzaiena, eta ittuako atea irekitzen ei zuten urari bidea emateko.

Kontatzen zuen mutikoak berak Barrenzubixetatik bizkarrean ekarri zuela urak bertaraino eramandako txerri mahaia. Eta txerri mahai hori urtegia zela eta etxea eta errota betiko utzi behar izan zutenean, Mendietxera eraman zutela, eta handik beste etxeren batera ere ez ote zen joan.

Holako hamaika pasarte, berak kontatzen zituen moduan kontatu gura nituzke, baina horretarako ere izan egin beharra dago. Gustukoa nuen berak gauzak gogoan hartzeko eta gogoan edukitzeko zuen berezkoa.

Nik holaxe gogoratzen dut Joxe.

Zorionak, Arrasate Eskubaloi

Arantza Azpiazu
(Jarraitzaile bat)
Arrasate

"Goazen, goazen, mondra, mondra txapeldun", hau izan da joan zen asteburuan gehien errepikatu zen leloa, oraindik gure eztarriek urraturik jarraitzen dute eta belarrietan doinuaren oihartzuna entzuten da.

Azkenean bai, lortu duzue! Arrasatera merezitako garaipenaz itzuli zarete. Gu jarraitzaileok harro gaude. Esfortzuaz noraino hel daitekeen erakutsi diguzue. Santoñako kiroldegia giroa oso latza izan arren, eta presio gogorra jasan arren, hor agertu zarete zuek, tinko, denoi erakusten nola jokatzeko duzuen, benetan talde trinkoa zarete.

Momentu hunkigarriak igaro ditugu egun hauetan, bihotza dardarka sumatu dugu, urduritasuna nagusi izan da gure artean, amorrua ere batzuetan, baina azkenean zuen eta gure aurpegietan zorion malkoak ageri dira. Irabazi dugu! Lehenengo mailara igo gara!

Zorionak ere talde honen atzean isil-isilik lanean diharduzuenoi: entrenatzaileoi, zuzendaritza taldekooi, Iturripera zuen taldea animatzeraz joaten zaretenoi, e.a.

Disfrutatu eta gozatu garaipen honekin. Zorionak eta mila esker Arrasate eskubaloi osatzen duzuen guztioi! Animo, Jorge!

Eskerrik asko, guztioi

Juanito Larrinaga eta Blanka Perea
(Josebaren gurasoak,
familia osoaren izenean)
Aretxabaleta

Gertukoren bat galdu duen edonork daki zein gogorra eta mingarria den hori. Are gehiago, heriotza bat-batean helden denean, eta hildakoa gaztea denean, guri gertatu zaigun bezala.

Baina bada zerbait momentu horien latza leuntzen duena, eta hori lagun hurbiltasuna da. Alde horretatik, pribilegiatuak sentitu gara azken egunetan, jaso ditugun elkartasun hitz eta keinuak zenbatu ezinak eta eskertu ezinak izan baitira.

Gure minaren erdian, poz handi bat ere sentitu dugu: Joseba zenbateraino maitatua zen ikustea. Dudarik gabe, horrek ez du berak utzitako hutsunea beteko, baina benetan

lagungarri izan zaigu momentuko karga arintzeko. Eta zergatik ez, harrotasun pixka bat ere sentiarazi digu.

Nahiko genuke banan-banan eta merezi duzuen bezala eskertzea azken egunotan jaso ditugun hitz goxo eta besarkadak, mail eta telefono deiak, telegramak, faxak... Baina hainbeste izan zarete gurekin egon zaretenak, ezinezkoa zaigu. Horregatik, lerro hauek baliatu nahi ditugu jasotako berotasunagatik eskerrik zintzo eta bihotzezkoenak emateko guztioi.

Pornografia dela eta

Jon Otero Urizarren
Arrasate

Pornografia argazkigintza eta bideogintza asmatu zirenetik dugu, nahiz eta erlijioek aspaldiko ukapena balira bezala ezarriak dituzten, ez dakit non idatziak baleude bezala.

Sexuak bere alde ona eta txarra du. Erran nahi da, gure zahartzarua eutsiko duten umeak sortzen direlako, baina, bestalde, gogoan izan behar dugu munduaren gainpopulazioa izadiaren aurka doala, ekologiaren aurkakoa, eraikuntza gehiago eskatzen duelako.

Ongietorria, estatu laikoak antisorgailuak eta abortua baimentzen dituelako, oraingo erlijioen aurka, nonbait idatzi zaharretan balituzte bezala jokatzeko dutenak.

Ni panteista naiz, eta entziklopediak murriztzen esaten du unibertso osoa dela Jainko bakarra, ukatu gabe bukaezinaren miraria.

Baina dena dela Jainkoa, ongia eta gaizkia, eta hori, noski, ez da saltzen. Jakinaren gainean dugula, noski, betiereko bizia. Zer zerikusi du honek pornografiarekin? Non oinarritu gaitzke puntu erogenoak erakustean publikoki argazki edo kamera aurrean dela lizuna? Gizalegean, moralean, beti bezala zehazteke zaila izanik ere. Ez Jainkoak ez dioelako, Jainkoa dena da. Moralean eta gizalegean oinarritzen gara munduaren ekologia zaintzeko, zeren badakigu jakin mundu hau hondatzen bada, Jainkoak ziztu batean beste mundu bat sortuko baituela. Baina, mesedez, zain dezagun dugun hau gainpopulazioaren beheerantzko jaiduraz, estatu laikoak eraikiz.

Sexua pasio ero antzekoa da, beharra, jolasa, atsegina, plazera, lizunkeria, denetik du eta ulertzekoa da. Baina gaur egun emagaldutara doan jendetza, gizonezkoek, krisiaren zioz zertxobait beheratu bada ere, oso handia da, itzela diote datuek, betiere mamitasuna dela eta, frogatu ezin daitekeen *lan* bat izanik.

Nola hautsi dira goranzko joera hauek, datu larriak medio? Interneteko doako pornografia? (Internet bera ordaindu beharra badago ere).

Batzuk beharrak jota doaz emagaldutara, baina dirua xahutuz jolasean doazenak asko dira. Nola ez, gaur egungo pornografiaren ugaritasuna medio.

Jaun-andreok, merkatu beltz hau gelditserik ez dugu izango, baldin eta pornografiari, orain arte bezala, aspaldiko partez, etenik ez badiogu jartzen. Beraz, estatu laikoetan ere pornografiak debekua jaso beharko luke.

Gutunek, gehienez, 1.900 karaktere izan behar dituzte (hutsuneak barne); luzeagoa bidaliz gero, GOIENAK eskubidea du laburtzeko; hala ere, saiaturko da egilearekin egoten hark labur dezan. Gutun bakoitzeko erantzun bakarra onartuko da; ez da onartuko erantzunaren erantzunik. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

PEDALKA

FRANTZIAKO ALPEAK ALDERIK ALDE BIZIKLETAZ JULEN IRIONDOREKIN
GOIENA TELEBISTA | EGUENETAN, 21:50



Larraitz Ugarte | Bide-azpiegituretako foru-diputatu

"Bidegorri gehiago ireki ahala, lortuko dugu herritarrek haiek erabiltzea lantokira joateko"

- Bidegorriez dihardu Diputazioko bozeramaileak, beste bidegorri bat irekiko dela-eta
- "Elorregitik Bergarainokoa eta Antzuola eta Bergara lotuko dituen dira hurrengoak"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Oraingo domekan inauguratuko dute Oñati-Arrasate bidegorria. Gipuzkoako Foru Aldundiaren dako lehentasuneko azpiegitura da, oinezko zein bizikletan doazenentzako, aisialdirako ez ezik, lanera joan-etorria egiteko ere bai. Horren gainean, Mugi txartelaren gainean eta errepideen gainean jardun dugu Larraitz Ugartekin; era berean, Diputazioaren beste proiektu batzuk ere erreparatu ditugu.

Zerdakarkio Gipuzkoako Foru Aldundiari Oñati-Arrasate bidegorria zabaltzeko?

Edozein bidegorri irekitzeko poztasun handia ematen digu; gure ustez, mugikortasunari dagokionez egiten den edozein urratsek iraunkortasunaren ingurukoa izan behar du. Hortaz, bidegorri gehiago ireki ahala, ahalbidetuko dugu herritarrek joan ahal izatea oinez edo bizikletaz euren lantokira, ikastetxera...

Eta Debagoiengan irekitzea beste bidegorri zati bat?

Herrien arteko distantzia nahiko handia da bailara honetan, beste eskualde batzuekin alderatuta, eta, lurralde ikuspegitik, Debagoiengan ere inbertsio publikoa egitea ona da, bereziki, oñatiarren bizi baldintzak hobetu egingo direlako. Bidegorri hau ona da aisialdirako, baita mugikortasunaren ikuspegitik ere.

Zelakoa da bidegorria?

Herrien arteko bidegorri foralek ezaugarri batzuk bete behar dituzte, segurtasuna bermatze aldera, eta horrek eskatzen du inbertsio handiagokoa. Oñati eta Arrasate artekoak malda txikia dauka, trenaren lehengo trazatua hartzen duelako.

Ze beste bidegorri geratzen zaizue egiteko gure eskualdean?

Elorregitik Bergarainokoa geldo dago eta berraztertu egin beharko dugu. Bestetik, Deskargako autobideko obra amaitutakoan Bergara eta Antzuola artekoan geratuko zaigu zati bat amaitzeko. Eta, bailarari dagokionez, bi horiei heldu nahiko genieke.

Bidegorriak zeintzuek erabiltzen dituzte gehiago: oinezkoek, bizikletan doazenek?

Gaur egun, batez ere, oinezkoek. Eta, bizikletan doazenek, normalean lanera joan-etorria egiteko, gero eta gehiago. Hori datu pozgarria da guretzat. Inbertsio handia eskatzen du bidegorriak. Orain egin dugun honek, esaterako, 3,4 milioi. Eta aisialdirako bakarrik izatea kapritxo garestia izango litzateke. Autoari alterna-



Larraitz Ugarte oñatiarra Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaileak bere bada. | ENEKO AZKARATE

tiba moduan ulertu behar ditugu bidegorriak, onura sozial gisa. Bestalde, emakumeek gehiago erabiltzen dute gizonezkoek baino. Egia da, halere, bidegorri tramua-aren arabera ezberdina dela. Kiroleko txirrindularitza, bestalde, errepidean egiten da batez ere.

Mugi txartela indarrean jarri zela badira hilabete bi. Ze balorazio egiten duzue?

Legegintzaldiko apustua da. Ezinbesteko ikusten dugu garraiobide sistema guztiak koordinatzea, ze gaur egun eskumenak banatuta daude administrazio ezberdinen eskuetan. Erabiltzaileari gauzak errazte aldera, erakunde ezberdinen arteko koordinazioarekin tarifa sistema bakarra ezarri dugu. Gipuzkoako Foru Aldundia lehena izan da hori abian jartzen eta iraultza bat izan da. Bidaia eta bidaiatzeko era ezberdina izanda ere, deskontu

sistema bateratua eta prezio bateratua erabiltzea aurrerapauso handia da.

Zenbatek darabil?

Mugi eta Lurraldebus txarteludunak 400.000 inguru dira. Azkeneko bi hilabeteotan 100.000 tramitazio egin ditugu eta 50.000 Mugi txartel berri egin ditugu. Gipuzkoako 700.000 biztanleko lurraldea dela kontuan hartuta, datu adierazgarriak.

Kexuak ere izan dira, ordean...

Intzidentziak oso txikiak izan dira, %2koak. Aspektu positiboak askoz ere gehiago dira. 100.000 tramitazio egin badira, intzidentziak 2.000 inguru izan dira. Lehen, 6.000 Lurraldebus txartel egiten ziren hilero, eta, gaur egun, 27.000 Mugi txartel egiten ditugu. Izugarriko lan karga handia izan dugu epe laburrean eta jendea arreta eskaintzeko zerbitzua ere indartu egin dugu. Hori guztia

kontuan izanda oso balorazio ona egiten dugu. Gaur egun lurralde osoan dago hedatuta eta deskontu handiak ditu. Onura handiak ditu. 7.000 pertsonari, esaterako, dagoeneko, %90eko deskontua aplikatu zaie.

Gipuzkoako errepide azkar ordainpekoak erabiltzearen, gehienez ere, 25 euro hilean ordaindu behar da orain. Ze balorazio egiten duzue?

Autobidearen gatibu garenondako eta sarri erabili beharra daukagundako, lanera joan-etorria egunero egiteko, esaterako, onura handia ekarri digu. Urteko aparteko paga moduko bat izan da, ze badago jendea urtean 1.000 eurotik gora aurreztuko baituena. 15.000 bat erabiltzailek dute, hilero, deskontu horren onurak jasotzeko aukera eta, batzuetan, 30.000 erabiltzailek. Gainera, orain, jende gehiago dabil ordainpeko autobideetan, nahiz eta garraio kopurua jaitsi egin den, jarduera ekonomikoa murriztu delako krisiaren ondorioz.

Zeintzuk dira gabezia handienak gure bailarari eta garraio publikoari dagokionez?

Hiriburuekin konexioa ez da bermatzen herri batzuetan. Oñati, Antzuola... aparte geratzen dira, baita Elgeta ere. Herri batzuk hobeto daude beste batzuk baino. Eta aldaketa batzuk eginda, hiriburuekiko eta herrien arteko konexioak hobeto daitezke. Hiri hondakinen gainean zein da Foru Aldundiaren jarrera?

Guk dioguna da birziklatu egin behar dela. Berrerabili, prebenitu, hondakinak ez sortzeko politikak bultzatuz. Orain arteko birziklapen politikak herritarren borondatezko jarretan oinarritu dira eta horrek ez gaituzte eroan birziklatze tasa handietara. Horretaz gain, Aldundira ailegatu ginenean, aurkitu genuen mahaiaren gainean proiektu bat: errauskailua Zubietan egitea. Eta guk uste dugu ez dela egin behar, ez delako ona lurralde honetarako, osasunarendako eta ingurumenarendako. Gure marra gorria da errauskailua ez eraikitzea eta horren ordean alternatibak proposatzen ditugu. Zero zabor filosofiarekin egiten dugu bat eta Europak Gipuzkoa eredu hartzen du.

Atez atekoaren kontrako ahotsak asko dira....

Kontrako estrategia bat garatu da, ez oso modu naturalean, estrategia politikoki bati erantzunda. Gatazka sozial bat bultzatu dute, hedabide jakin batzuek modu interesatuan haizatu dutena. Eta bihurtu da kontu gatazkatsua Gipuzkoan, berez, gatazkatsua izan beharko ez litzatekeen kontu bat, beste konturik ez balego bezala.

%60ko birziklatze tasetara heldu nahi duzue 2016rako...

Bai, nik oso garbi daukat zein den bilketa sistematik on eta eraginkorrena: atez atekoa. Hori frogatu da atez atekoa ezarri den herrietan. Orain, herri batzuetan. Bilketa sistema udalen eskumena da eta horren inguruan ez daukagu ezer esaterik. Planteatzen dugu 2015erako %60ko birziklapen tasara heltzea. Ezinbesteko helburua da. Gipuzkoarrok geure buruari ezarri beharrekoa, Gipuzkoako solidarioago eta garbiagoa izateko.

Herrietan biltzeko eredu ezberdinak aztertzen ari dira, Oñatin bat, Bergaran beste bat... Hori eraginkorra da lurralde ikuspegi batetik?

Gure planteamendua da ez dela egingo errauskailua gu gobernua gauden bitartean. Helburuetan dago gako. Eta herri bakoitzak ikusi behar du zein den sistemarik onena. Birziklapen tasak daude lotuta beharrezkotasunari eta derrigortasunari. Inork ez dauka zikintzeko eta ingurumena kaltetzeko eskubiderik.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



"Aisialdirako bakarrik erabiltzea kapritxo garestia izango litzateke"

"Bizikletan doazenek lanera joan-etorria egiteko darabilte bidegorria"

"50.000 Mugi txartel berri egin ditugu azkeneko bi hilabeteotan"

"Autobideetan urtean 1.000 euro aurreztuko dutenak badira"

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

DUELA 10 URTE

2003-05-16

Bergarako Udalaren webgunea

Bergarako Udalak www.bergara-udala.org webgunea aurkeztu zuen 2013ko maiatzean. Hain justu ere, Goienak ipini zuen martxan atari berria, garai hartan punta-puntako teknologia zena erabilia. Modu horretan, udal webguneak hainbat tramite etxetik eta udaletxera joan barik egiteko aukera eskaini zien bergararrei. Bada, Bergara izan zen webgunea martxan ipini zuen zazpigarren udalerrria.

2003-05-25

EAJk alkatetza laugarren urtez

Udal hauteskundeak izan ziren 2003ko maiatzaren 25ean, eta, laugarren urtez, EAJk, Vitoriano Gallastegi buru zuela, eskuratu zuen alkatetza 3.915 botorekin. Bergara Aurrera plataforma ezin izan zen hauteskundeetara aurkeztu, baina 1.827 botorekin bigarren indarra izango zen. EAJk 10 eserleku eskuratu zituen udalbatzan, Aralarrek 4, Alderdi Popularrak 1, Alderdi Sozialistak 1 eta Ezker Batuak beste bat.



Bergara Aurrera plataformaren protesta. | GOIENA

DUELA 5 URTE

2009-05-16

Musika Eskolak 25 urte

Bergarako Musika Eskolak 25 urte bete zituen 2009an eta urteurreneko ospakizunak kontzertu berezi batekin amaitu zituzten maiatzaren 16an. Ospakizunean lagun izan zituzten Gabero, Aritzeta eta San Joxepe abesbatzak, Alai taldea, Bergarako Orfeoia eta Bergarako Orkestra Sinfonikoa.

BERGARA

HERRITARRAK

Rosario Garitano Ugalde oihal-dendan 45 urte egin zituen lanean, baina Bergaran ezaguna da, besteak beste, Pentekoste jaietan eta Aratusteetan sekula ez duelako hutsik egiten | ARRITXU BARRUSO

"Aurten ere 30 bat lagun elkartuko gara Pazkoetako martitzenean"

Rosario Garitano aurpegi ezaguna da Bergaran, eta ez Ugalde dendan emandako 45 urteengatik bakarrik. Pentekoste jaietan sekula ez du hutsik egiten eta Aratusteetan ere urtero-urtero mozorrotzen da lagunekin batera. Batekin eta bestearekin berriketan egitea gustatzen zaio. Pozik dago ekainaren 29an berarendako horren berezia den San Pedro parrokia irekiko dutelako berriro, baina, era berean, triste, aurreikusitako konponketa guztiak ezin izango direlako egin, diru faltagatik.

Pentekoste jaiak hasiko dira gaur. Parrandarako prest?

Bai. Herriko jaiak egun bereziak dira niretako. Sekula ez dut hutsik egin. Egunero irteten naiz kalea, egun bakoitzak bere kutsu berezia duelako. Domeka, esaterako, familian pasatzeko eguna izaten da; bandaren kontzertura joan, familiarekin bazkaldu... Martitzenean, berriz, koadrilakoak irteten gara. Aurten ere 30 lagun inguru elkartuko gara.

Aratusteetan urtero mozorrotzen den horietakoa zara.

Bai. Hor ere ez dugu hutsik egiten. Gero eta gutxiago gara mozorrotzera animatzen garenak, baina aurten ere hiruzpalau lagun elkartu gara. Benidormera zihozten turistaz mozorrotu ginen eta Bergarako kaleetan barrena Benidormera eramango gintuen autobusaren bila ibili ginen. Oso ondo pasatzen dugu beti Aratusteetan.

Askok dendan emandako urteengatik ezagutuko zaituzte.

15 urterekin hasi nintzen nire izebaren dendan lanean. Oso ondo gogoratzen ditut hasierako urte haiek. 60ko hamarkada zen eta bi edo hiru denda besterik ez zegoen Bergaran. Baserritarrak Elosutik, Angiozartik eta Antzuolatik etortzen ziren plazan egiten



Rosario Garitano, San Pedro parrokiaren aurrealdean. | ARRITXU BARRUSO

"Dendako urteen oso oroitzapen ona daukat eta pena handiz itxi nuen"

zen azokara. Hotz egiten zuenean, izebak salda beroa eskaintzen zien. Denak ezagutzen genituen eta guztiakin egiten genuen berriketan.

Gero, Bidekurutzetan, zeuk ipini zenuen denda, ezta?

Bai. 1987an neu bakarrik gelditu nintzen Bidekurutzetako denda txikian. Han emandako urteen oroitzapen oso ona daukat. Jendearekin hitz egitea ikaragarri gustatzen zait eta oso aberasgarria da niretako. Pena handiarekin itxi nuen denda, oso gustura nengoelako. Jendeak kalean gelditu egiten ninduen eta galdetzen zidan



Benidormera zihozten turistaz mozorrotu da Rosario Garitano aurten. | R.G.

NIRE HERRIAN

SAN PEDRO PARROKIA

Pozik dago San Pedro parrokia ekainean irekiko dutelako, baina, era berean, triste, konponketa-lan guztiak ez direlako egingo. Bergarako gauza on bat azpimarratzeko eskatuta, adierazi digu asko daudela, baina bereziki gustatzen zaiola dagoen eskaintza musikal zabala. Bandaren kontzertu guztietara joaten ahalegintzen da.

KOMERTZIOAREN GAINBEHERA

Pena ematen dio dendak ixten ari direla ikusteak. Erdigunea hiltzen ari dela uste du. Bergarako aparkalekuarekin duen arazoak eragiten duela uste du. Jaiak direla eta, haserre samar dago, duela urte batzuk jaietako egitarautik meza nagusia kendu dutelako. Jaietan herritar guztiendako ekintzak egon behar direla uste du.

ea orain nora joango ziren galdetza, oso gustura etortzen zirelako niregana. Horrelako gauzak oso pozgarriak dira.

Elizaren bueltan ere lan asko egiten duzu.

Bai. Ahal dudan guztia. Astelehenetan, esaterako, Mizpirualdera joaten naiz meza esaten laguntzera eta bertako egoiliarrei bisita egitera. Lagun batek eskatu zidan fabore moduan eta gustura asko egiten dut. Esan behar dut astelehenak iristeko zain egoten naizela Mizpirualdera joan eta bertako jendearekin egoteko. Arrasateko San Juan de Dios ospitalera ere joaten naiz noizean behin.

Argi dagoena da jendearekin eta lagunekin harremanetan egotea gustatzen zaizula.

Zalantza barik. Uste dut etxean sartuta eta jendearekin harremanik izan gabe ezin izango nintzatekeela bizi.

HERRIAK

Ikusi, entzun eta bidaiatu

- ▶ 'Ostegun bidaiariak'-ekin Aretxabaletako tabernetan bidaia-kontakizunak entzungai
- ▶ Garikoitz Iturbek 'Danubio bizikletan familiarekin' aurkeztu zuen atzo Paulaner tabernan

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Nork ez du egunerokotik desko- nektatu, maletak egin eta beste toki eta kultura batzuk ezagutze- ko nahirik izaten? Atzo hasi eta ekainaren 20ra bitartean, planak egin gura dituztenek ideiak har ditzakete *Ostegun bidaiariak* lehia- ketari esker. Aretxabaletako Uda- lak antolatuta, sei lagunek azken bost urteetan egindako bidaien kontakizunak egingo dituzte; astean batek, herriko taberna baten.

"Bizitako bidaia ederra kon- tatzeko eta etorkizuneko ideiak hartzeko modu aproposa iruditu zaigu lehiaketa". Hala adierazi du datorren egunean Marokoko bizipenak partekatuko dituen Iker Agirrek. Lagun taldeaz joan zen bidaian Agirre: "Gertu dago, mer- kea da eta kultura ezagutzeko aukera paregabea. Basamortuko lasaitasuna deigarria izan zen guretzat, esaterako".



Iker Agirrek lagunekin bidaiatu zuen Marokora. | IKER AGIRRE

Polonia, Guatemala, Norvegia...

Kontakizunek esperientzia ezber- dinak jasotzen dituzte. Lagun artean, bakarrik, familian... Atzo iluntzean izan zen lehena: Gari- koitz Iturbek Danubion zehar bizikletan familiarekin egindako bidaia kontatu zuen: "Urtebeteko haurrarekin txirrinduaz egiteko Danubio bide herrikoiarekin topo egin genuen".

Norvegiara bidaiatzeko auke- ra ere egongo da, hilabete amaie- ran. Mikel Bustok ere bizikleta baliatu zuen herrialdean mugit- zeko: "Tokiak izan dezakeen eragozpen bakarra, eguraldia".

Ekaina inauguratuz eta Euro- patik irten gabe, Poloniako bazter eder zein triste eta gogorrak



Auschwitzeko pasarteak, Imanol Sorianorekin. | I.S.

–Auschwitz tarteko– erakutsiko ditu Imanol Sorianok. Birritan bisitatu du herrialdea eta hango kultura zati bat ekarriko du Aretxabatara eta herrialde hartan gastronomiak duen garrantziaz

egin du berba, besteak beste. "Plater gehienak bertakoak badi- ra ere, beste herrialde batzuen eragina dute: judua, ukrainarra, alemaniarra...".

Bosgarren aurkezpena egiteko



Llamak Perun. | LARRAITZ ARANDO

ardura hartuko du Larraitz Aran- dok. Betidanik gustatu izan zaio bidaiatzea aretxabaletarrari. "Oso gaztetxo nintzela hasi nintzen bidaiatzen. Munduan galduko nintzela eta ez nuela bueltatzeko

HURRENGO AURKEZPENAK

MAIATZAK 23

Maroko. Iker Agirrearen eskutik Orly tabernan, 21:30ean.

MAIATZAK 29

Norvegia. Mikel Bustoren eskutik Express tabernan, 22:00etan.

EKAINAK 6

Polonia. Azkena tabernan, Imanol Sorianoren eskutik, 21:30ean.

EKAINAK 13

Jira eta bira. Larraitz Arandorekin, Akorde tabernan, 21:30ean.

EKAINAK 20

Guatemala. Joseba Gabilondorekin Urbaltz tabernan, 21:30ean.

presarik izango, ez nituela ibilbi- deak aurrez antolatuko. Eta mun- duan galdu nintzen". Nepal, India, Zeelanda Berria, Peru eta Vene- zuelako bizipenak gogora ekarri- ko ditu Akorde tabernan.

Munduan ibili ostean, ekai- naren 20an Guatemalan hartuko dute lur ikus-entzuleek, hango altxorrek aurkitzera eramango baititu Joseba Gabilondok. "Sumen- di piloa ezagutu dugu, lakuak, herrixkak... Baita bestelako errea- litatea ere, indigenak egoera gogo- rrean bizi direla ikusi dugu eta."

Ikusi, entzun, ideiak hartu eta gustuko bidaia bozkatu. Izan ere, aurkezpenetara bertaratzen dire- nek epaile papera ere bete behar- ko dute. Animatzen zara?

Sikol

lentzeria

Tel.: 943 79 89 32
Olarte kalea 7 - ARRASATE



Bila gaitzazu
Facebooken



ZATOZ!

Maiatzak 20

Bertan izango den aditu baten
aholku pertsonalizatuak izango dituzu





Fernandez –ezkerrean– eta Harremaneko kideak eguaztenean. | JOKIN BEREZIARTUA

"Ia esklabotza egoeran egiten da lan azukrearekin"

Alternativa3 kooperatibako Maria Fernandezek bi merkataritza ereduaren arteko aldeak azaldu zituen

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Harreman Denda Bidezko Merkataritza Elkartearen eskutik, Maria Fernandez Alternativa3 kooperatibako kideak hitzaldia egin zuen eguaztenean Kulturatego Jokin Zaitegi gelan. Ohiko merkataritzaren eta bidezko merkataritzaren arteko ezberdintasunen gainean jardun zuen Fernandezek; iaz kafea hartu zuen oinarri, eta aurten azukrearen gainean egin du berba.

Aurtengo kanpaina da *Zure bizitza gozoagoa egiteko ez da besteena mingostu behar* eta azken helburua da herritarrari modu

arduratsuan kontsumitzera bultzatzea. Horretan dihardute Harremanekoek azken 15 urteotan. Azukrearen ekoizpenetik kontsumitzailearen etxera heltzen

denera arteko prozesuan dauden aldeak azaldu zituen Fernandezek eta bertaratutakoek azukre zein txokolate mota ezberdinak dastatu zituzten: "Nahiko orokorra da azukrearen gainean dagoen ezjakintasuna. Ez dakigu, adibidez, kontsumitzen dugun azukrearen %90a erremolatxatik datorrela; askoz kimikoagoa eta finduagoa da azukre mota hori. Azukrea egun ekoizten den modua ez da jasagarria ekologikoki, ekonomikoki eta sozialki. Gainera, azukrearen laborantzan oso ohikoak dira esplotazio kasuak, ia esklabotza egoeran egiten dute lan".

Egungo ohiko merkataritza ereduaren azukrea lantzen denean hainbat osagai kimiko erabiltzen dira. Izan ere, azukrearen landareak energia asko behar du eta lurra asko pobretzen du. Horregatik hainbat ongarri kimiko erabiltzen dituzte: "Bidezko merkataritzaren ereduaren errespetatzen duen azukrea askoz naturalagoa da", dio Fernandezek.

Kontzientziara heldu guran

Fernandezek produktu zehatz bat hartu ohi du bi merkataritza ereduaren arteko ezberdintasunak azaltzeko: "Askoz errazagoa da bidezko merkataritza zer den azaltzeko. Gainera, hitzaldian egon denak produktu hori bera berriro erosterakoan birritan pentsatuko du; bada zerbaite".

Postua biharko baseritarren azokan

Hainbat ekintza antolatu dituzte datozen egunotarako. Bihar Seber Altubeko baseritarren azokan 10:00etatik 14:00etara egongo dira, baita Antzuolan ere. Hilaren 27an, berriz, Arcadi Oliveres aditua gonbidatu dute Amaia antzokira; *Ekonomia, lankidetzeta eta kontzientzia* hitzaldia eskainiko du. Hilaren 28an, amaitezko, *Oro Negro* dokumentala ikusi ahalko da, Amaian bertan.

Elkartruckerako aukera bihar, Azoka plazan

Bestalde, azokaren marka irudirako finalistak aukeratu dira; azokan eta BAZen bozka daiteke

J.B. | ARRASATE
Apirilaren 13ko Azoka Egunean aurkeztu zuen Bagarak Elkartruke: "Erantzun bikaina jaso zuen eta trukearen kultura sustatu eta

sakontzen jarraitzeko gogotsu gaude". Hala, jakinarazi dute bihar Azoka plazan elkartuko direla, 10:00etatik 14:00etara. Truke zuzenerako aukera ere egongo da.

Marka irudirako finalistak

Era berean, Azoka plazaren marka irudia zein izan behar den erabakitzeko bi finalistak aukeratu ditu eragile ezberdinez osatutako epaimahaiak. Gaur hasi eta hilaren 31ra arte azokan edo BAZen bozkatu ahalko da. Bozkatzen dutenen artean azokako produktuekin trukatzeko txartelak zozketatuko dituzte.

Guztira, 29 irudi jaso dituzte: zortzi Arrasatetik, 15 Euskal Herri osotik eta sei Estatutik.

NIRE USTEZ

NEREA
MAKAZAGA



Inoiz joan ez garenak

Arrasatear askori gertatu moduan, konturatzerako badira makina bat urte herritik kanpo pasa ditudanak. Hasierako urteetan, unibertsitate garaian, asteburu gehienak Arrasaten pasatzen nituen; Bilbo gertu geratzen zen, eta familia eta lagunekiko loturak sendoak ziren.

Poliki-poliki eta urteak aurrera joan ahala, aukera berriak iritsi zitzaizkidan beste hiri zein lurraldetara joateko. Beti erabilitako eskemak apurtzeko gogoia, zein kultura eta bizimodu berriekin topo egiteko ilusioa, nahikoa ziren beldurrak indar-

gabetzeko. Ordutik eta gaur egun arte, batetik bestera ibili naiz –inoiz bestetik batera ere–, batzuetan denbora luzez, beste batzuetan laburrago; batzuetan gustura asko, beste batzuetan latzago. Baina momentuak zekarren horretan atzerrian ikustenuen eta atzerrian behar nuen nire burua, gorputzak horrela eskatzen zidalako.

Azkenaldian, baina, bizitzaren joan etorriak direla-eta, maiztasun handiagoz nator Arrasatera, gurasoen betiko etxera. Eta Arrasatetik bertatik idazten dudan honetan, inoiz baino gehiago konturatzen naiz nire sustraiek hemen segitzen dutela, beti egon direla hemen. Nire identitate eta pentsaerak ez didatela inoiz gehiegi urrutitzen utzi, inoiz urrutira jo banuen ere. Urte ugari herritik kanpo pasa izan arren, asko dira ni moduan kanpoan bizi baina inoiz joan ez direla sentitzen dutenak.

San Frantziskorako ikas bidaia prestatzeko mus txapelketa antolatu du MUko ikasle talde batek

MUko Lidergo eta Ekintzaitzeta gradua ikasten ari den ikasle talde batek mus txapelketa berezia antolatu du. Zertarako? Bada, San Frantziskora egin gura duten ikas bidaia prestatzen joateko. Ekainaren 1ean izango da, Monte tabernan, eta izenemate-epaia hilaren 20an irekiko dute, tabernan bertan. Bikote bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu eta saritan, jasotako diruaren %75ez gain, ardo sorta bat eramango dute lehen bi sailkatuek.



San Isidro eguna, giro ederrean

Baseritarren zaindariaren eguna giro ederrean ospatu zuten Musakolan. Mezaren ostean San Isidro elkarteak bete egin zen lunch eder batez gozatzeko, eta, kontu kontari aritu ostean, batzuek kantuan amaitu zuten. Amaitu dira San Isidro jaiak... datorren urtera arte!

Matrikula epea zabalik



urtez elkarrekin

Ekainaren 20ra arte.

Ordutegia: 10:00etatik 12:00etara

16:30-19:30era

Zarugalde 2, Monterron jauregia. 943 77 05 40



"Historia beti irabazleek bakarrik kontatu dute"

Udaberriko zikloa eguaztenean bukatu zen eta Xabier Zubizarretak oso balorazio positiboa egin zuen

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Zuztarrak Errotuz taldeak, Nabarralde eta Arrasateko Udalak elkarlanean antolatuta, apirilean eta maiatzean hainbat hitzaldi egin dituzte. Ekimenaren hirugarren edizioa izan arren, aurten lehen aldiz ziklo itxura eman diote, eta, *Udaberriko hitzaldi zikloa* izenburupean, azken aste hauetan Euskal Herriko, Leintz bailarako eta Arrasateko historia eta kultura sakondu dute.

Aurten lau hitzaldi antolatu dituzte eta udaletxeko osoko bilkuren aretoan eta kulturatego areto nagusian jende ugari batu da: "Hitzaldiek oso harrera ona izan dute eta jende ugari etorri da hauek entzute", zioen Xabier Zubizarretak, Zuztarrak Errotuz taldeko kideak.

Historiak jendetzarik erakartzen ez duela jakin arren, joera horri buelta ematen jakin dute: "Jendeak ulertu du gure historia guk kontatzeak zelako garrantzia duen".



Oraina ulertzeko, iragana ezagutzea ezinbestekoa da. | IMANOL GALLEGO

Historia, irabazle kontua

Zubizarretak argi dauka: "Historia irabazleek bakarrik kontatu dute". Euskal Herriaren kasuan, baina, ñabardura bat gehitu nahi izan du: "Guk izan ezik, beste guztiek kontatu dute gure historia". Hori apurtzeko asmoarekin sortu zuten zikloa. Hala ere, dogmetatik urrun, izaera askotariko historialariak gonbidatu dituzte:

"Ikuspuntu ezberdinetako iker-tzaileak ekartzen saiatu gara".

Hitzaldi guztien bukaeran, gainera, solasaldi eta galderendako tokia utzi dute, bakoitzak jaso duenaren inguruan hitz egin ahal izateko. Oraindik goiz da hurrengo urteko zikloari buruz hitz egiteko, baina, Zubizarretak aurreratu duenez, "gai bakarrean" zentratuko dira.

Arrasateko plazan euskal presoek eskubideak aldarri

I.G. | ARRASATE

Iaz bezala, Herrira mugimenduak kartzelak husteko eskara eramango du bihar Euskal Herriko plazetara. Debagoieneko gainontzeko herrietan bezala, Arrasaten ere egin dute hitzordua: 11:30ean herri krosa izango da eta 13:00etan *Plazak Bete* kontzentrazioa eta ekitaldia. Bi ekintzak Herriko Plazan izango dira.

Krosa herriko kaleetan

Herrian egingo den krosak 11:30ean plazatik irten eta herriko kaleetan zehar lau kilometro luze izango ditu. Izen-ematea bertan egin beharko da, 10:30etik 11:15era.

Ekitaldi horiekin zera aldarrikatu gura du Herrira mugimendua: "Gaixotasun larriak dituzten presoak etxeratzea; 197/2006 doktrina desaktibatzea eta dispertsioa eta isolamendua amaitzea".

Biharko ekitaldiko egitarauan hala igarri bazuten ere, azkenean ez da herri bazkaririk egingo. Antolatzaileek esan dutenez, zenbait "arazo tekniko-kogatik", azkenean, plazan egin nahi zuten bazkaria bertan behera utzi behar izan dute.

Aurten ere, plazak beteaz eta kartzelak husteko asmoz, herriko erakunde eta eragile ugari ekimenari atxikimendua agertu diote.

Heziketa emozionalaren gaineko hitzaldia

Ekainaren 5ean, Kulturaten, autokontzientzia eta erregulazio emozionala landuko dute. Hitzaldia 2 eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago. Interesa dutenek maiatzaren 29ra arte eman dezakete izena BAZen edo prebentzio@arrasate-mon-dragon.net helbidean.

Sanjuanetako esaldia aurkezteko azken eguna, astelehena

Arrasateko Erdu-AEK-k, EHEk, AEDk eta Udalak sanjuanetarako esaldi laburren lehiaketa antolatu dute. Aukeratzeko den esaldiaren bidez, antolatzaileen helburua da arrasatearrak San Juan jaiak euskaraz bizitzera animatzea. Proposamenak aed@aedelkarte.com helbidera bidali behar dira.



Momentu eder guztietan



Maalako errabala 5 • ARRASATE • 943 79 19 25



Javi Rayo eta Iker Laskurain Ironcat proba hasi aurretik. | HAITZ ARRIETA

226 kilometroko sufrimenduaz gozaten dutenak, 'burdinazkoak'

Tarragonako Ironcat proba ondo amaitu zuten Iker Laskurainek eta Javi Rayok

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Tarragonako L'Ampolla hiriko Ironcat proba amaitu berri dutela, Arbolapetan elkartu gara Iker Laskurain *Peter* (Arrasate, 1981) eta Javi Rayo (Arrasate, 1979) *iron man* arrasatearrekin. Nor bere aldetik zen etortzekoa, baina, azken hilabeteetako prestakuntza lanetan batera pasatako ordu luzeen konexioak eraginda -edo, batera heldu dira. Sinkronizatuta egongo balira bezala.

Laskurainek lehenengoz egin du, bestelako probarik apenas egin barik: "Txikitatik igeriketan gustura ibili izan naiz eta halako probetan hasi nintzenez konturatu nintzen distantzia luzeak direla niretako egokienak. Gero, mundu honetan barruraino sartuta dagoen *Rayito* ezagutu eta jakin-mina piztu zitzaidan. Interretoko bideoetan jende asko egiteko gai zela ikusita, ni ere animatu nintzen". Zortzi hilabetez ibili da proba prestatzen eta lau lesio gainditu behar izan ditu. Amaitzea zen helburu bakarra eta 172. postuan helmugaratu zen -267tik 238k amaitu zuten proba-. Oso pozik dago egindako lanarekin, eta ez da gutxiagorako.

Rayok, berriz, iaz egin zuen lehen ironmana, proba berbera. Baina aurretik ere distantzia luze-ko hainbat lasterketa egin ditu

DISTANTZIAK ETA DENBORAK

Igerian: 3,8 kilometro.

Bizikletan: 180 km.

Lasterka: 42,2 km.

Javi Rayoren denbora: 9.46.11

Iker Laskurainen denbora: 12.09.04

eta bost hilabete nahikoa izan dira harendako ondo prestatuta joateko: "Ironman proba prestatzen duten gehienendako ez da lasterketa bat, erronka pertsonal bat baizik. Amaitzea bakarrik lorpen handia da". Hala ere, hamar orduen azpitik helmugaratu gura zuen. Esan eta egin; bederatzik ordu eta 46 minutuan egin zuen, 12. postuan amaituta.

Psikologiaren garrantzia

Arlo fisikoa ondo prestatu beharra dago, edonor ez da-eta gai igerian 3,8 kilometro, bizikletan 180 eta, hori gutxi balitz, gero arineketan maratoi oso bat egiteko. Prestakuntza bera da "benetako ironmana": "Hilabeteetako sakrifizioa da. Egun baten sei

orduz bizikletan eguraldi txarrekin, eta hurrengo egunerako ere eguraldi txarra iragarrita eta beste bost ordu bizikletan eta bat korriketan. Hurrengoan, berriz, 2.000 metroko saioa igerilekuan... Bizitza estilo bat da, finean. Ez da astelehenetik egubakoitzera bi orduz entrenatu eta aste bukaeran libratzea. Distantzia hauetan ez dira asteburuak existitzen; zapatu eta domeketan entrenatzen da gehien. Gainerako guztia egokitu beharra duzu ondo entrenatzeko", dio Rayok. Diziplina "espartarra" behar dela diote: entrenamendu saio gogorak egunero, dieta oso ondo zainduta eta deskantsua ere ondo neurtu beharra.

Hala ere, psikologiaren garrantzia nabarmendu dute biek: "Sineti egin behar duzu. Garrantzitsua da zugar sinesten duen norbait izatea ondoan, lanean ondo ari zarela eta erronka lortzeko gai zarela esaten dizun norbait", dio Laskurainek.

Dena ondo neurtu beharra

Probaren egunean, urduritasuna kontrolatzeaz gain, estrategia ondo zehaztu beharra dago. Neurrian jan eta edatea, pultsazioak neurtuta eramatea eta tentsioak ondo identifikatzea, besteak beste, oso garrantzitsua da. Norbe-

ESANAK

"Bizimodu bat da, gainerakoa egokitu beharra daukazu ondo entrenatzeko"

JAVI RAYO | KIROLARIA

"Garrantzitsua da zugar sinesten duen norbait izatea ondoan"

IKER LASKURAIN | KIROLARIA

ZALDIBAR

EMAITZAK

Aldatz - Sonografos	4-4
Dribling - Iriztu	5-2
Lasagabaster - At. Betraye	3-3
Abokajarro - Aston Birra	6-3
Ostantz - Fidel & Discipulos	4-3
Iluntz - Haizea's Weah	4-6

A MULTZOAREN SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Lasagabaster	14	5
2 Sonografos	13	5
3 At. Betraye	12	5
4 Aldatz	12	5
5 Abokajarro	10	5
6 Aston Birra	2	5

B MULTZOAREN SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Ostantz	17	5
2 Dribling	15	5
3 Iriztu	13	5
4 Fidel & Discipulos	10	5
5 Haizea's Weah	8	5
6 Iluntz	3	5

PARTIDUAK (FINAL LAURDENAK)

MAIATZAK 18, ZAPATUA

11:30 Lasaga-Fidel / Antolakuntza

12:30 At. Betraye-Dribling / Antolakun.

17:30 Ostantz-Aldatz / Antolakuntza

MAIATZAK 19, DOMEKA

12:30 Sonografos-Iriztu / Antolakuntza

Hastera doa fase erabakigarria

Ligako final-laurdeneren sartuko da txapelketa aste bukaeran. Iazko txapelkun Sonografos da faborito nagusia, baina ondo izerditu beharko dute Iriztu menderatzeko.

Besaideko beteranoen irteeran parte hartzeko azken eguna: hilak 27

Besaideko beteranoen XII. irteera ekainaren 1ean egingo da Araban; bederatzik kilometroko ibilbidea izango du eta lau ordu eta erdi iraungo du, gehienez. Izena emateko azken eguna da hilaren 27a: ordainketa egin behar da 3035 0202 76 2021021758 kontu korrante zenbakian. Informazio gehiagorako, ohiko arduradunekin egon behar da (943 77 30 66).

MUK Mikeldi hartuko du bihar, denboraldiko azken norgehiagokan

2012-2013 denboraldia amaitzeko, MUK Centro de Estudios Mikeldi hartuko du bihar Iturripe kiroldegian, 18:00etan. Denboraldi gorabeheratsua izan da, baina, orokorrean, pozik egoteko arrazoiak badiu Josu Larreategi entrenatzaileak. Noski, garaipen batekin bukatu nahiko dute urtea.



Laskurain, bizikletan egin beharreko tartean. | HAITZ ARRIETA



Rayo bizikleta proban beste kirolari baten atzetik. | HAITZ ARRIETA

40 urte Arrasateko bizitzari musika jartzen eta irakasten

Urteurrena ospatzeko, maiatzean eta ekainean 22 ekitaldi egingo dituzte

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Arrasate Musikalek 1972an Meta-lurgica Cerrajera Mondragon enpresak utzitako pabiloian –egun Mankomunitatea dagoen eraikinean– hasi zuen bidea, eta ez da nolana hikoia izan egin duen ibilbidea. Urte asko pasatu dira, eta hainbat lekualdaketa era izan ditu. Hasierako eraikinetik Apren-dices eraikinerara, eta bertan urte ugari igaro ostean, egun Monte-rrongo jauregian du egoitza. Leku aldaketez gain, makina bat gertaerari aurre egin ostean, tinko jarraitzen du Arrasateko kulturaren garaikur bihurtu den musika akademia horrek.



40 urte hauetan egindako kontzertuek musika jarri diote herriari. | ARRASATE MUSIKAL

Maiatzak 25: egun handia

Urte hauetan Arrasate Musikaleko kideek garrantzia eman diote kalera irten eta herriko kultura mugimenduaren parte izateari; ikasitako praktikan ipintzea eta herritarrei gerturaztea, horixe helburua. Horregatik, urteurren berezi hori kalean herritarrekin ospatu nahi dute.

Ekainaren 28ra bitarteko egitaraua oparora antolatu duten arren, datorren zapatuan, maiatzak 25, izango da ospakizun nagusia. Eguerdian, musikaren laguntza-

MAIATZAK 25, EGITARAUA

12:00 Kalejira txistulariekin eta perkusionistekin.

13:00 Plazan kontzertua.

14:30 Biterin herri bazkaria.

17:00 Jokoak.

19:00 Bandarekin dantzagarriak plazan.

rekin kaleak alaitzen hasiko dute eguna eta ondoren, Herriko Plazan kontzertua egingo dute. Energiak berreskuratzeko, festa giroan herri bazkaria egingo dute. Horren ostean jolasen garaia iritsiko da. Eguna borobiltzeko, bandak dantzagarri emanaldia eskainiko du plazan.

Esan bezala, zapatukoaz gozatzeko aukerarik ez dutenek, lasai, ze ekain bukaera arte txistu, gitara, saxofoi, gaita, biolin, piano, tronboi... kontzertu ugari antolatu dituzte-eta.

'Gu ere bertsoan' ekimenaren emanaldiak lepo bete du Amaia

I.G. | ARRASATE

Arrasate Herri Eskolako eta Arizmendiko Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleek ikasturtean zehar bertsolariaren gainean ikasitakoak martitzenean erakutsi zizkieten euren ikaskide eta gurasoei. Emanaldi berezia izan zen, herriko 200 ikasleek gora igo baitziren Amaia antzokiko oholtza gainera. 20ko taldetan banatuta, nor bere saioa egin zuen. Nerea Urria Arrasateko bertso eskolako kideak azaldu zuenez, "eskolan prestatzen dituzte bertsoak eta amaian taldeka abesten dituzte". Bertsolariak euskal ondare garrantzitsua dela ukazina da, baina

ikasleentzako hori baino gehiago ere bada.

Kultura baino gehiago

"Espresioa, sormena, erritmoa... bertsoekin arlo ugari lantzen dira", dio Urrak. Gazteek era praktikoan jasotzen dute hori guztia, eta, konturatu gabe, asko ikasten dute.

Hori guztia posible egiteko sortu zen *Gu ere bertsoan* egitasmoa eta aste honetako emanaldia "kurtso amaierako ekitaldi" moduan hartzen du Urrak. Hau, baina, ez da azken emanaldia izango, hurrengo astean Lehen Hezkuntzako 6. mailakoek beste emanaldi bat eskainiko dute-eta.



Taldeka abestu zituzten eurek sortutako bertsoak. | JOKIN BEREZIARTUA

Pasarte gazi-gozen komedia handia

I.G. | ARRASATE

Emaztegaiaren semea komedia handi egiten duten istorio horietakoa da. Eszena gehienetan, eta ikusleak ez espero arren, elkarriketa dramatikoaren erdian, umorea azaltzen da.

Gertakizun nagusi bi dira egitura tragikomikoaren oinarria, gurasoen ezkontza eta familia-jatetxea den zorigaitzoko negozioa kate multinazional bati saldu beharra. Lerro hauek irakurri ostean, beste komedia zoro baten zantzuak hartzen dionak ez du antzezlanaren oinarritu den filma ezagutzen. Trikimailuak, bere balioek inolako baliorik ez dutela ikusten ari den agurea, oroi-mena galdutako atsoa...



Antzezlanean drama eta komedia nahasten dira. | ADOS TEATROA

Antzezlan handietan gertatzen den moduan, eszena berean ikusleak barre algaratik negar egite- ra pasako dira.

Nahi duenak domekan, 10 euroren truke, Argentinako zinta klasiko baten moldaketa ikusteko aukera izango du Amaian.

Oihan Vegak girotuko domeka arratsaldean gaztegunean

I.G. | ARRASATE

Astea indartsu amaitzeko Oihan Vega DJ ezagunak domekako 19:00etatik aurrera erdiguneko gaztetxokoa girotuko du. Doinu entzunaren laguntzarekin ziur gerturatzen diren gazte guztiak dantzan jarriko dituela. Saio hau ez da bakarria izan eta hila-bete guztian zehar, gaztetxokoa musikarekin lotutako ekimen ugari egingo dituzte.

Maiatzean musikodromoa

Musika beti izan da gaztetxoek gogoan duten arlo horietako bat. Horregatik, maiatzean zehar, erdiguneko gazte txokoa

lau ekitaldi berezi antolatu dituzte. Kontzertuak, playback jailadia, DJ festa... Askotariko ekintzak izan dira. Lander Juaristi gazte zaileko koordinatzaileak esan moduan "eurekin batera aukeratu ditugu". Aukeraketa hori ez da eurekin batera egin duten gauza bakarria, musika ikuskizun batek dituen zailtasunak ere, bertatik bertara ezagutu dituzte-eta. "Gazteek kartela egin, egoitza atondu..." hitz batean, erantzukizuna zer de ikasi dute. Ekimenak izan duen erantzun ona ikusita, musikadromoa urte guztira zabaltzeko asmoa dute.



Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain, txangoak, ezkontzak, sagardotegiak e.a.

LEINTZ GARRAIOAK S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com



'Guti'-k eta 'Felixin'-ek emango diete gaur hasiera Pazkoei

33 urte pasatu eta gero Jai batzordea lagako dutela eta, eurek botako dute hasierako txupinazoa

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Prest dago guztia gaur, 20:00etan, Pentekosteak hasteko. Blanca Narbaiza izango da aurreneko Bitorianatxo, eta udaletxeko balaitik hitz batzuk egingo ditu, iaz bezala. Baina Narbaiza ez da bakarrik egongo balkoian. Ondean izango ditu Luis Mari Gutierrez *Guti* eta Felix Iñiguez de Heredia *Felixin*. Eurek jaurtiko dute aurreneko txupinazoa; bikoitza, gainera, bi dira eta. 33 urtez jai batzordean egon eta gero, laga egingo dute jaien ostean zeregin hori, eta Udalak, keinu horrekin, herritarren aurrean egindako lana aitortu eta eskertu nahi die. Baina gehiago ere egongo da: "Bestelako sorpresaxoren bat ere egingo diegu", esan dute Udaletik.

Guti-k eta *Felixin*-ek, bestalde, gustura hartu dute Udalaren eskaintza, "ilusioa" egiten diela esan dute. Sekula ez dute Pazkoei hasiera emateko txupinazoa jaurti. Are gehiago, *Felixin*-ek ez du sekula suziririk bota. *Guti*-k bai, ordea; guztiok irudikatzen dugu *Guti* suziria jaurtitzen: "Milaka botatakoa naiz, puruarekin zein metxeroarekin piztuta".

Batzordea lagatzeari dagokionez, pena apur bat ematen diela onartu dute. "Oso pozik ibili gara Jai batzordean", esan dute, "baina adinean gora goaz eta lagatzeko unea ere badela uste dugu. Ideia berri eta freskoak behar



Luis Mari Gutierrez, Leire Iruin, Bitorianatxo, Felix Iñiguez de Heredia eta Blanca Narbaiza udaletxean. | MONIKA BELASTEGI

dira". Batzordean jardun duten 33 urteetan lan handia egin dute, beti musu truk: "Lelo bat izan dugu beti: jaiak amaitzean, afaria. Horixe da guk kobratu izan duguna, eta sarri hori ere ez".

Askotariko ekintzak

102.000 euroko aurrekontuarekin, iaz baino 10.000 gutxiago, ekintza arrakastatsuenak mantendu egin dituzte, eta baita barraken iazko prezioa ere. Hori horrela, bira

arrunta 1,80 euro izango da. Barraka berrietako prezioa, berriz, 2,5 euro izango da bira bakoitza.

Txosnaguneari dagokionez, jaietako gune garrantzitsuetako bat izango da. Askotariko ekintzak egongo dira martitzenera arte, eta bihar, zapatua, Plazara ekimenarekin ere egingo dute bat. Elkartasun bazkaria egingo dute eguerdian eta 19:30ean, kalejira *Mugitzen baga, mugituko da* lelopean.

Pentekoste jaien gaineko xehetasun guztiak zenbaki honekin batera doan gehigarri berezian kontsulta daitezke.

Pentekosteak 2013 argazki lehiaketa

Lehiaketa hori deitu du Udalak eta nahi duten argazkizale guztiak har dezakete parte. Hilaren 17tik 21era jaietan ateratako edozein argazki aurkeztu ahal izango da, betiere, jai-giroa islatzen badute. Euskarri digitalean aurkeztu beharko dira lanak, zuri-beltzean edo koloretan eta nahi adina aurkeztu ahal izango dira. Aurkeztuko epea hilaren 24an, 13:00etan, bukatuko da, kultura etxean.

Kontribuzioa ordaintzeko epea asteon irekiko dute

M.B. | BERGARA

Udaletik jakinarazi dutenez, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga ordaintzeko epea zabalik dago: borondatezko epea maiatzaren 15etik uztailearen 1era izango da; hortik aurrera errekararekin kobratuko dute.

Erreziboaren ordainketa banketxeren batean helbideratuta duten zergadunei, banketxe horren bidez bidali eta kobratuko zaie. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek, berriz, datozen egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharko duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxe edo udal bulegotatik pasa daiteke ordainketa egiteko. Agiri hori maiatzaren 31 baino lehen jasotzen ez bada, edo azalpen baten beharra izanez gero, Kontu Hartzaitzako bulegotatik pasa daiteke.

Azoka txikiko tasak

Merkatu eta merkatu txikiko tasen 2013ko lehenengo hiru hilabeteko erreziiboak ordaintzeko epea maiatzaren 27ra arte egongo da zabalik.

Uda kanpaina izena emateko epea zabalik ekainaren 11ra arte

Bergarako Udala Kirol Zerbitzuak abian du 2013ko uda kanpaina eta guztira ia 40 jarduera eskainiko dira. Zozketak egin dira dagoeneko eta 250 plaza bete dira. Orain, plaza libreak betetzeko epea dago irekita ekainaren 11ra arte. Plazak hurrenez hurren eta etorri ahala beteko dira. Udala adin eta interes guztiendako eskaintza egiten ahalegindu da. Berrikuntzen artean daude irristaketa eta eskalada hastapena. Jarduerak edo zozketaren emaitzak www.agorrosin.net webgunean eta Agorrosingo idazkaritzan bertan kontsulta daitezke.

Zare fruta denda

Ondo pasau jaixak!



Irizar Pasealekua 3 • BERGARA • Tel.: 943 76 38 83



Barrenkale 24 - Tel.: 943 76 10 16 - BERGARA

DIESEL
IKKS

modital
bluton

Kristina eta Edumeren partetik
ondo pasau jaixak



Goienaren RENT
Ibilgailuen alokairua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIRUA ONATIN

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

943 71 66 52 / 619 44 71 75

goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM

ETXEBERRIA BITXITEGIA - ERLOJYTEGIA

2013an ezkonduz gero, etor zaitez ETXEBERRIA bitxitegira ezkontza-eratzunak erostera eta agian, DOAN irtengo zaizkizu.

Informa zaitez!



Bidekurutzeta 16 • Tel. 943 76 23 94 • Bergara
relojeriaetxeberrria@gmail.com



DYAk lehen sorospen ikastaroa hasiko du 27an Martokon

Ikastaroak hiru aste iraungo du eta DYAk Martokon duen egoitzan izango dira eskolak asteleheneetik ostiralera 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroan parte hartu edo informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar da.

San Joxepe elkarteak mendi martxa egingo du maiatzaren 29an

Legazpi, Errenteria, Irun eta Bergarako erretiratuek elkarrekin egingo dute irteera. Hondarribia eta Irun inguruan ibilaldia egingo dute eta Vagon de Cola jatetxean bazkaria. Bergarako autobus geltokitik irtengo dira 07:00etan.

Miguel Altuna institutuko ikasleak Eco Shell Marathon-en

Eguaztenetik domekara bitartean Rotterdango Ahoy zirkuituan ospatzen den Shell Eco Marathon 2013 lehiaketan parte hartzen dihardute Miguel Altunako ikasleak. Energia iturri ezberdinen eraginkortasunaren azterketan dihardute lanean, besteak beste.

IÑAKI ANASAGASTI



Boli maitea

Imanol Bolinaga Arrasaten jaio zen eta Bergarako alkate izan zen, baina gauza askoz gehiago ere izan zen. Turismo sailburordea, Eusko Jaurlaritzaren delegatua Bruselan, Eurobask-eko lehendakaria, senataria, frankismoaren kontrakoa, baina batez ere, jeltxide ona eta gizon duin eta printzipioduna.[...] Esandakoa bermatzeko, hiru adibide:

Bat. Kondekorazioari arbuioa. 2000ko martxoan izan zen. Abel Matutes ministroak jakinarazi zion Ministroen Kontseiluaren akordioz, eta berak proposatuta, Meritu Zibilaren Ordenarekin kondekoratuko zutela. Ez zuen bilatu, ezta arbuia ere.

Denborak aurrera eginda, Imanol Bolinaga deseroso sentitu zen Aznarren gobernuak EAJ terrorismoarekin lotu zuenean eta jeltzaleei biktimizekiko erabateko solidaritate falta egotzi zienean. Hori gutxi balitz, Ana de Palacio ministroak are gehiago borobildu zuen argumentua *Nacional Review* aldizkarian zera esanez: "Euskaldunen arazoa askatasun arazoa baino ez da. Euskal herritarren erdiak, beste erdiak eragiten duen

izuaren mehatxupearan bizi dira".

Jazarpen estrategia oso bat adierazten zuen zakarkeria horren aurrean, Imanol Bolinagak itzuli egin zituen titulua eta intsigniak eta Palacio ministroari eskatu zion saria baliogabetzeko.

Bi. Txileko ostikoa. 2000 eta 2004 urtera arteko Aznarren gehiengo absolutua itogarria izan zen. Helburu bakarra zuen: zaku berean sartzea nazionalismo instituzionala eta ETA.

1996ko Aznarrek, CIU eta EAJ-rekin paktatu eta gobernu osatzea lortu zuenak, ez zuen zerikusirik 2000. urteko gehiengo absolutuaren Aznarrekin. 1999an eten genuen harekin, ETAK su-etena apurtu eta jardun armatuari ekin ostean. Pio Cabanillasek, Aznarren gobernuko bozeramaleak esan zuen, esaterako, EAJk bat egiten zuela ETArekin helburuetan eta baita bitartekoetan ere, eta PPren obsesio izan zen nazionalismoaren eta biolentziaren arteko binomioa sortzea.

Imanol Bolinagak eta Jose Mari Etxeberrriak ausardiaz defendatu zituzten gure adskripzioa, printzipioak, ideologia eta EAJren ibilbidea demokrazia kristauaren barruan, 2000an Santiago de Txilen egindako Internacional Democra-ta Cristianaren kongresuan. Han, PPK estatutuei emendakina aurkeztu zuen, Europako PPren kide izan ezean, Internacional-eko kide ezin izateko. Emendakinak aurre-

NIRE USTEZ

ra egin zuen. Aznar Espainiako gobernuko presidentea zen eta interesek agindu egiten zuten. [...] Bolik atriletik hala esan zuen: "Luze iraun dezala demokrazia kristauak! Gora Euzkadi Askatuta!"

Hiru. Heriotza-zigorra indargabetu. Boli oso kritikoa zen Senatuak ezertarako balio ez zuela ziotenekin. "Nik nire partiduaren ordezkartzarekin Kode Penal eta Militarretik heriotza-zigorra kentzea lortu dut". 1994an gertatu zen. Imanol Bolinagak interpelazioa aurkeztu zuen talde parlamentario guztien babesarekin eta Gobernu sozialistaren deserosotasunarekin; militarren presioengatik ez zuen aldaketarik nahi. Interpelazioaren alde, EAJko senatari Imanol Bolinagak bizitzeko "eskubide besterenezina" defendatzeko beharra azpimarratu zuen, baita gerra garaian ere. [...] Bolinagari esker, ministroa arrastoan sartu eta heriotza-zigorra bertan behera gelditu zen.

Azalpen biografiko hau amaitzeko umore apur bat. Madridedko Operaren inauguraziora gonbidatu gintuzten. Smonking-a eramatea beharrezkoa zen, baina ez nik ezta Zubiak ere ez genuen jantzi; bai Bolinagak. Berak zeukan planta-

rekin dotore asko zegoen eta barre egiten zigun baserritar batzuk ginela esanez. Hotel batean elkartu ginen, eta bat-batean emakume batek Coca Cola bat eskatu zion zerbitzari batekin nahastuta. "Arrazoa izango duzue oraindik ere".

Gorputz eta arima aritzen zen generazio bat ari zaigu joaten, eskuzabaltasunak, giza kalitateak eta gure herria sentitzeko moduak berezi egiten zituenak. Okerrena da ez dutela idatzita ezer utzi eta badirudi belaunaldi berriei ez zaiela interesatzen jakitea nola lortu dugun gaur egun daukaguna. Pena bat. Bere eskelan familiak idatzi du: "Aita eta

aitona ezin hobea". Egia da. Seguru nago orain bere lagun bergarar Jokin Inza, Josu Oregi, Monzon eta besteekin egongo dela eta gainera seguru ariko dela esaten kontuak kontu Bergarak munduko hiriburua izaten jarraitzen duela eta Aznarrek demokristianismotik ez duela ezer. G.B. Imanol, Boli maitea. Luxu bat. Benetako gizona.



"Jeltxide ona eta gizon duin eta printzipioduna"

Artikulu osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Promociones
Erregetxo Plaza
Bergara



Bergarako hirigune historikoan
63 etxebizitza, libre, tasatu,
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18
LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

GARAIZ ZABILTZA!

**Bergarako hirigune historikoan
2, 3 logelako etxebizitzak.**

- ✓ Lehenengo mailako materialak
- ✓ Sukalde ekipatuak, logela armairuak

**Informazio guztia
gure web orrian.**

Sartu eta ikusi



www.promocioneserregetxoplaza.com

**Ondo pasau
Pazkoetan!**



Udal Gobernuak eratu nahi duen hondakinen mahaia, osatzeke

Bergara Garbiak eta Gobernuak hilaren 28an egingo dute lehen bilera

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Apirilaren 29an egindako osoko bilkuran hondakinen gaineko mahaia osatzeko proposamena egin zuten Udal Gobernuak EAJ eta PSE-EEri, Bergara Garbia plataforma eta Bergara Zero Zabor taldearekin batera.

Aste hartan bertan Bergara Garbia plataformako ordezkariak batzeko zen Gobernuak eta bilera hartara gonbidatu zituen oposizio alderdiak. Bergara Garbiarekin adostutako bilera hura, azkenean, bertan behera gelditu zen agenda arazoengatik. Bi aste pasatxo dira osoko bilkura egin zela eta Gobernuak osatu nahi duen orotariko mahaia osatzeke jarraitzen du.

Udal Gobernuak, itxaropentsu

Hala ere, Gobernuak ordezkariak akordiora iristeko itxaropentsu azaldu dira: "Beste herri batzuetan egin den moduan, tasak eta helburuak adostu eta akordiora iristeko itxaropena dugu. Beste herri batzuetan lortu badute, guk zergatik ez? Helburuak finkatu eta adostea da garrantzitsuena. Gero definituko dugu guztion artean ze sistema erabili horretarako". Gaineratu dute gaia asko tenkatu dela eta Gobernuak ere esfortzu bat egin nahi duela erdibideko konponbidea topatzeko: "Gaia asko tenkatu da. Alde bakoitzak bereari eutsi dio. Guretzako borondatezko bosgarren edukiontzia ez zen aukera bat, baina



Gobernuko ordezkariak hondakinen inguruko mahaia eratzeko proposamena egin zuten azken bilkuran. | ARRITXU BARRUSO

ikusiko dugu beste kasu batzuetan erdibideko aukera bat lortu dutela. Uste dugu akordiora iristeko esfortzuak mereziko duela, batez ere, herriaren mesedetan".

Bergara Garbiarekin bilera

Eragile guztiak batuko dituen bilerak ez du datarik oraindik, baina Bergara Garbia eta Udal Gobernuak maiatzaren 28an batuko dira. Herri plataformatik azaldu dute Udalean aurkeztu zuten idatzian argi gelditzen zela "atez atekoaren kontra sortutako mugimendu eta adierazpen guztien inguruan hausnarketa bat egiteko bilera" eskatzen zutela. Hau da, Gobernuaren eta plataformaren arteko bilera: "Besterik ez dugu nahi, oraingoz. Bilera horren ondoren ikusiko dugu eta hartu beharreko erabakiak hartuko ditugu", azaldu dute. Horrez gain, Gobernuaren proposamena hedabideen

28ko bilerak ematen duenaren zain dago EAJ

bitartez ezagutu izana leporatu diote Gobernuari: "Eragile ezberdinekin egin behar genuen bileraren berri prentsak esanda jakin genuen, plenoan publikoki proposatu zutenean. Uste dugu gauzak ez direla horrela egiten. Zuzena, plenoan esan aurretik, guri proposatzea zen. Horregatik sortu da bileren nahaste-borraste hau".

EAJ, bilera egiteko zain

Bestalde, jeltzaleek baldintza bakarria ipini zuten Gobernuak proposatutako mahaian esertzeko:

Udal Gobernuaren proposamena idatziz jasotzea. Bada, EAJko ordezkariak adierazi dute oraindik ez dutela Udal Gobernuaren abiapuntua ezagutzen: "Idatziz konbokatoria bidali ziguten eta lehenengo bilerarako metodologia eta eguna besterik ez. Eskatu genien beraien abiapuntua eta proposamena zein zen adierazteko eta garbiena bakoitzak bere proposamena mahai gainean jarzea zela. Egin diguten proposamen bakarria da 'Elgetako akordioan badaudela zenbait puntu interesgarri', baina ez dakigu zein den puntu interesgarria: edukiontzi sistema, portzentaia edo herri galdeketa?".

Eta adierazi dute Bergara Garbia plataforma eta Gobernuak bildu arte itxaron nahi dutela: "Gure erantzuna izan da bilera egiten dutenean deitzeko zertan geratu diren jakin dezagun".

Jeltzaleek azaldu dute edukiontzi sistemaren aldeko apustuarekin jarraitzen dutela: "Gure proposamenak berdina izaten jarraitzen du: edukiontzi sistema, bosgarren edukiontzia organikoa jasotzeko eta herria benetan inplika dadin pedagogia erabiltzea eta sistema aurrerakoiak bilatzea. Esaterako, txipa. Modu horretan, gaika gehien biltzen duenak hobaria izan dezan".

PSE-EE, bilera egiteko prest

Mari Carmen Barrenetxea zinegotzi sozialista orotariko mahaian parte hartzeko prest azaldu da: "Bilera bat egitea positiboa dela uste dugu, betiere adostasuna lortzen ahalegintzeko bada. Urte eta erdi daramagu arazo honekin eta krispazioa herritarrengaino iritsi da; ikusi, bestela, poltsak balkoietan. Gobernuari eskatzen diogu hausnarketa egiteko eta beraien proposamena idatziz bidaltzeko adostasunera iristen ahalegintzeko".

Zero Zabor: "Beharrezkoa da"

Bergarako Zero Zabor taldeak pozik hartu du Gobernuaren proposamena: "Txalotzen dugu Gobernuaren iniziatiba eta antolatutako hondakinen mahaia. Gune egokia dela deritzogu gai honen bueltan jarduteko. Ekin diezaiozun erronkari eta osa dezagun lehenbailehen hondakinen mahaia; bergararrek eskertuko digute".

Gobernuaren "lehenitasuna"

Udal Gobernuak ordezkariak adierazi dute hondakinen mahaia lehenbailehen ipini nahi dutela martxan eta "lehenitasunezko" gaia dela. "Ez dugu nahi gaia gehiago atzeratzea. Bergara Garbia plataformarekin bilera egin ostean, gure helburua da lehenbailehen alderdi politikoekin batu eta hondakinen mahaia eratzea egoera desblokeatzeko".

ESANAK

"Garrantzitsuena da helburuak adostea eta horiek lortzeko erabiliko den sistema denok batera adostea"

LEIRE IRUIN | UDAL GOBERNUA

"Gure proposamenak jarraitzen du izaten bosgarren edukiontzia organikoa jasotzeko"

AINZANE OIARBIDE | EAJ

"Bilera egiteko prest gaude; Gobernuak hausnarketa egitea eta hori denoi aurkeztea nahiko genuke"

MARI CARMEN BARRENETXEA | PSE-EE

"Gobernuarekin batzea eskatu genuen guk, eta horrek ostean hartuko dugu beharreko erabakia"

JOSU LETURIA | BERGARA GARBIA

"Osa dezagun lehenbailehen hondakinen mahaia, bergararrek eskertuko digute"

MIREIA LIZARRALDE | ZERO ZABOR

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

ondo pasau jaixak!

ERREKI

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Menuak aurrez deituz gero.

Fraiskozuri plaza 3 - BERGARA - Tel.: 943 76 38 51

SUBIJAI
0 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzat arropa

QUIKSILVER 3pomes®
Timberland confetti
LOZUM ELSY PAZ

Irizar Pasealekua 1 - BERGARA
Tel.: 943 76 42 41

ondo pasau jaixak!

Oinarrizko euskara ikastaroa ostalariendako

Euskaraz bizi izateko, taberna eta ostalariendako ere euskaraz egitea garrantzitsua delako antolatu du ikastaroa Udal Euskaltegiak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Ostalaritzan lanean dabiltzanez euskarazko ikastaroa antolatu dute, bigarren, Udal Euskaltegiak. "Ikastaroa oinarrizkoa izango da, euren lanean egunerokotasunean sor daitezkeen egoerak euskaraz ulertu eta helarazten jakiteko. Adibidez, eguneko menua euskaraz idatzi edo ordaindu beharreko zenbatekoa euskaraz esaten ikasteko", adierazi du Roberto Altunak, Udal Euskaltegiko zuzendariak.

Euskaraz bizi izateko

Ikastaro horrekin, ostalaritzako zerbitzuetan ere euskaraz egin ahal izatea lortu gura da. "Euskaraz bizi ahal izateko, kalea euskararendako irabaztea oso garrantzitsua da, eta zerbitzu publiko zein pribatuak dira beharrezkoak horretarako. Azken horietan sartzen dira, esaterako, taberna eta ostalariendako, eta horietan lana egiten duten langileak, noski. Horiek euskaraz ulertzeko eta bezeroari euskaraz erantzun ahal izateko mailan egotea oso garrantzitsua da kaleko giroa euskaraz izateko. Eta horixe da, hain zuzen, gura duguna: kaleko giroa ez galtzea euskararako", azaldu du Altunak. "Esparru guztietan izan behar dugu aukera euskaraz bizi-tzeko, baita kaleko giroan hain sustraituta dauden taberna eta jatetxeetan ere, eta hori lortu aldera geuk ere gure ahalegintxo egin gura dugu, lagundu gura dugu", gehitu du.

edo jatetxeetan lana egiten dutenentzako. "Bezeroak ordua eskatuz gero ordua nola eman, edarien eta jatorduen izenak euskaraz jakin, urtarokak eta bakoitzaren barruan dauden ohiturak ezagutu, taberna edo jatetxe barruan oharren bat idatzi behar badu nola idatzi eta antzerako egoerak landuko ditugu eta horiek euskaraz nola egin irakatsiko dugu ikastaro horretan", zehaztu du euskaltegiko zuzendariak.

Izen-ematea zabalik

Eta ahalegin horretan, oinarrizko euskara ikastaroa antolatu dute udal euskaltegian taberna, ostalari-

DATUA

60

ORDUKO IKASTAROA

Hilaren 27tik uztailaren 19ra bitartean egingo dute ikastaroa euskaltegian.

Bigarren egingo dute ikastaroa. Joan den urtean, esaterako, 15 lagunek eman zuten izena. Ikastaroa, baina, bi zatitan egin zuten, tartean abuztua zegoela, eta aurten erabaki dute dena jarraian egitea; maiatzean hasi eta uztailaren bukatu. Hilaren 24a aurretik eman behar da izena, udal euskaltegiko bulegoan.

Ikastaroa Oñatiko Udal Euskaltegiak antolatu du, baina Debagoienako beste udal euskaltegiei ere eman die horren berri, baitarako beste herritarren batek interesa izanez gero, etortzeko aukera izan dezan.

Aterkiak atera ditu Txandak bezeroendako, premia dutenean erabili eta berriro itzultzeko

O.E. | OÑATI

Aterkiak atera ditu Txandak bezeroendako. Kanean daukela eurria hasiz gero, Txandako komertzioetan dauden aterkietako bat hartu ahal izango dute ez bustitze. Behin erabilia, hartutako dendan itzuli beharko dute.

Erpeletakoak

Erpeleta etxeko 150 aterki atera ditu Txandak bezeroen eskura jartzeko. Berdeak dira denak eta hiru logo dituzte: Txandarena, Udalarena eta Jaurlaritzarena. Elkarte denda bakoitzean bizpahiru egongo dira

bezeroak premia izaten duenean erabili ahal izateko; kanean daukela zaparrada batek harri-patzen dituenen, esaterako. Hartutako denda berdinean utzi beharko dute gero. Dagoeneko dendatan daude aterkiak.

Fosilen lehiaketa, amaitzear

Bestalde, hilaren 7an hasitako fosilen jolasa bukatzear dago. Bihar, zapatua, da azken eguna galderen erantzunak eta 10 komertzioetako ziguiluek jaso behar dituen eskuorria entregatzeko. Turismo bulegoan edo Arrikutz kobetan entregatu behar dira.



Txandako poltsak bezala, aterkiak ere berdeak dira. | O.E.



Herritar bat San Lorentzotik Errekalderako bidean. | O.E.

San Lorentzotik Errekaldera doan tunela argiztatzen ari dira

O.E. | OÑATI

San Lorenzo eta Errekalde auzoak lotzen dituen tunelean argiteria berria jartzen ari dira. Tunelaren barruan eta kanpoan jarriko dituzte argi puntuak.

Led teknologia

Auzo biak lotzen dituen pasabideak duen argizatze arazoa konpondu gura dute lan horrekin. Tunel barruan dauden bost argi puntu hirukoiztu egingo dituzte eta kanpoko pasabidean ere jarriko dituzte argiak. Tunelean, zehazki, 14 fluoreszente jarriko dituzte eta estali gabe dagoen pasabidean led teknologiako beste 15 argi puntu egokituko dituz-

te. Argiteria jarri dute lehenengo, eta kablea sartuko dute gero. Behin kablea sartuta, probak egingo dituzte, egindako lana ondo eginda dagoela ikusi arte.

Eraberrituta

Argiteria lan horiek eginda, eraberrituta geldituko da Errekalde eta San Lorenzo lotzen dituen tunela. Urte hasieran lurra asfaltatu zuten, ordura arte zeuden zuloak tapatuaz. Argiteria lana geroagorako utzi zuten orduan, eta oraintxe egingo dute. Behin hori bukatuta, bi auzoak lotzen dituen pasabidearen egoera aldatu egingo da, irisgarriagoa eta seguruagoa izango da.

Epailearen erabakiak ikamikorik eragin ditu EAJren eta Gobernuaren artean

Hondakinen gaikako bilketa sistemaren esleipena geldi dago, epaile batek aginduta

O.E. | OÑATI

Oñatiko EAJk prentsa oharrez salatu du "Bilduren Gobernuak 2.416 sinadurei eta epaileak agindutako geldialdiari aurre egin diela atez ateko sistema inposatu" eta "hondakinen kudeaketari irtenbidea emateko, gizaritearen eskaera entzun dezala eskatzen" dio Udal Gobernuari". Gaineratu du: "Oñatiko Gobernuak atez ateko zintzilikarioak ipintzen jarraitzen du, epaileak Debagoien osoko zabor bilketerako lehiaketa geldituta badu ere. Oñatiko alkateari ez zaizkio axola kontrako idatzia sinatu duten 2.416 oñatiarrek; are gehiago, erantzun ere ez die egin. Ez du kontuan hartu Debagoienean azken hauteskundeetako bozka emaitzen %55ek atez atekoaren aurka egin dutela espresuki eta ez dirudi beste herri batzuetan proposatu diren adostasuneko irtenbideak ere kontuan hartzen dituenik, hala nola benetako prebentzioa, birziklatzea, eta

berrerabiltzea hobetuko duten txip bidez kontrolatutako edukiontziak". "Bilduko Gobernuaren kontrol lanetan, behin baino gehiagotan eskatu diogu gardentasuna zabor bilketa sistemari dagokion prozesu osoan. Ez digute informaziorik eman erabakia hartu aurretik", jarraitzen du. "Salatu nahi dugu atez ateko zintzilikarioak ipintzen jarraitzen dutela inolako azterketa ekonomikorik aurkeztu gabe, ezta oñatiar bakoitzak ordaindu beharko duena ere jakin gabe. Bereziki larria iruditzen zaigu gaur egun oraindik ez dagoela plenoko erabakirik indarrean dagoen hondakin bilketa aldatu eta atez atekoa ezartzeko. Eskatzen diogu egin dezala elkarriketaren alde, horretan beti egongo gara gu alderdi bezala, eta entzun dezala oñatiarrek aldarrikatzen dutena, eta azkenik, Bilduk Elgeta, Azpeitia edo Zumaian hartu dituen erabakiak aintzat har ditzala".

Udal Gobernuaren erantzuna

Udal Gobernuak "gezurtatu" egin du EAJren salaketa, prentsa ohar bidez. "EAJk dioenez Debagoieneko Mankomunitateak hiri hondakinen bilketa dagoen esleipen prozesuan, irregularitasunak tarteko, epaile batek aginduta, esleipena bertan behera gelditu da eta, beraz, Oñatiko hondakinen gaikako bilketa sistemaren ezarpena bertan behera gelditu da", dio erredakziora bidalitako prentsa oharra.

Udal Gobernuak gehitu du: "Argi eta garbi esan behar dugu hau gezurra dela. Oñatiko Udal Gobernuaren iritzi, Mankomunitateko langileekiko errespetu falta nabarmena da eta, horrez gain, era arduragabea herritarren nahastu nahi izana ikusten dugu. Egin beharreko prozedura guztia berme osoarekin egin da eta EAJri gogorazi behar zaio Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipen erabakiaren aurkako errekurtso honek kontratazio espeditenteari trami-tazio eten egiten duela. Administrazio Organoaren ebazpen azkarra aurreikusten baitu. Beraz, etete hau automatikoa da, Administrazio Organoak ez du oraindik errekurtsoaren muina aztertu. Bien bitartean eman diren eta emango diren pauso guztiek berme juridiko osoa izango dute".

Bizikleta nola zaindu jakiteko tailer soziala egingo dute

Hilaren 25ean izango da eta gaztelekuan eman behar da izena

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bizikleta tailer soziala antolatu du Oñatiko Udalak hurrengo zapatarako, hilaren 25erako. Bizikletaren mantenu eta mekanika argibideak emateko tailerra izango da eta Antton Zubia oñatiarra izango da gidaria.

Ideia, Italiatik

Italiatik ekarri zuen ideia Antton Zubiak. "Diseinu Ingeniaritza ikasketak egin nituen eta Italian, Milanen jarrailu nituen ikasketak horiek, beti bizikletari lotuta. Ikusi nuen han bazirela tailer txiki batzuk, non bizikleta eraman eta konpontzen laguntzen zizuten, eta baita argibideak eman ere bizikleta ondo nola mantendu jakiteko. Gustatu zitzaidan ideia, eta, tailer egonkorra jarri ordez, ikastaroak eta tailer didaktikoak ematen hasi ginen lagun bat eta biok. Euskal Herriko udal ezberdinekin egin dugu lan dagoeneko, eta hurrengo astean Oñatin egingo dugu horrelako tailer bat", azaldu du Zubiak.

Nork bere bizikleta

Nork bere bizikleta eraman beharko du ikastarora, helburua



Antton Zubia, Lemoan egindako tailerlean. | TETE DE LA COURSE

delako nor bere bizikleta eza-gutu eta erabiltzea. Hasieran, teoria emango dute, eta gero etorriko da praktika. "Ikusiko dugu, adibidez, ze elementu komeni den norberak izatea bizikleta mantendu eta konpontzeko. Gero, praktikan, galderak, zalan-zak argituko ditugu. Polita izaten da ikustea nola tailerlean parte hartzen dutenek elkarri azaltzen dioten zer egin gorpila zulatuz gero, adibidez, edo frenoak nola ajustatu. Tailer parte-hartzaileak izaten dira, eta oso aberasgarria da hori", azaldu du Zubiak.

Bada, bizikleta tailer soziala hilaren 25ean egingo dute Zuzola Larraña institutu aurrealdean eta bizikleta erabiltzea gustatzen zaion edonori dago zuzenduta. "Ez bakarrik bizikletan asko ibiltzen direnei, baizik eta, batez ere, bizikleta gustatu bai baina gutxi erabiltzen dutenei. Azken batean, zenbat eta gehiago ezagutu norberaren bizikleta, orduan eta gogo handiagoa izaten du erabiltzeko, eta horixe bera da helburua, bizikleta erabiltzea, alegia. Bidegorriak hor daude, bai, baina beti aisialdiarekin, pasioarekin, lotzen ditugu, eta bizikleta eguneroko erabil daiteke, lanerako, enkarguetarako edo herri barruko beste edozein irteera egiteko", jarrailu du Antton Zubiak. Hain zuzen ere, bizikletari eta haren osagarri buruzko bideoak, lanak, egiten ditu Zubiak. Korsikan dago orain, Le Coq Sportif etxearendako lan bat egiten.

Errekaldeko jaiak gaurtik domekara bitartean

O.E. | OÑATI

Gaur hasi eta domekara bitartean ospatuko dituzte aurten Errekaldeko jaiak. Egitaraua prest dute, eta baita auzoan jarri duten karpia handia ere, euria eginez gero jaiak aterpean disfrutatzeko.

19:00etan botako dute jaiak hasiera emango dien etxafuegoa. Txorimaloen eta sagardo eta txoriz dastatzearen ostean, musika kontzertua hasiko da, 21:00etan. Lau taldek joko dute gaur: Oñatiko Malenkonia, Barakaldoko Porco Bravo, Baionako Willis Drummond eta Iruñako Los Zopilotes Txirriaos.

Bihar, zapatua, hiruko saskibaloia txapelketa eta umeendako puzgarriak egingo dira eta arratsaldean, IV. goitibehera jaitsiera. Giza-katearen ondoren, EZ! taldeak joko du eta gauean erromeria egongo da Obaneuke taldearekin.

Domekan, auzo-bazkaria egingo dute, besteak beste. Bazkarirako txartelak 12 eurotan daude salgai auzoko Urbia tabernan eta Matearen dandan.

Udalak laguntzak emango ditu UEUko ikastaroetarako

Aurten ere dirulaguntzak emango ditu Udalak Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan matrikulatzen diren herritarrendako. Dagoeneko 20 urte daramatza UEUk uztailean antolatzen dituen ikastaroak egiteko bekak ematen.

Beka horiek lortzeko, baina, hiru baldintza bete behar dira: Oñatin erroldatuta egotea, ikasle edo langabe izatea eta UEUko ikastaroren batean matrikulatuta egotea. Udalean egin behar dira eskaerak.

Argiteria ere aldatuko dute San Juan kaleko irisgarritasun lanetan

Irisgarritasun lanak egiteko ur hoditeria aldatzeko lanak hasita dituzte San Juan kalean. Lan horiek osatzeko, argiteria aldatu eta hobetu egingo dute. Horrela, egun dauden lanparen ordez, led teknologia dutenak jarriko dituzte. Kale Barrian, Kale Zaharrean eta Atzeko kalean erabilitako irizpidea jarraituz, San Juan kalean eta Philips etxeak luminariak instalatuko dituzte. Egungo lau argi puntuak mantendu eta beste hiru puntu berri egokituko dituzte.

Txantxiku ikastolako ikasleek Basque Culinary Center-eko sukaldariak izan dituzte maisu

O.E. | OÑATI

Onbizate Janariak Prestatuz izeneko proiektua egin dute elkarrekin Txantxiku ikastolak eta Mondragon Unibertsitateko Basque Culinary Center-ek. Honela, ikastolako lau talde sukaldari lanetan ibili dira aste honetan. Basque Culinary Center-eko bi sukaldariarekin batera, bazkaria prestatzeko erosketak egin dituzte lehengo eta eguneko bazkaria prestatu dute gero. Pago Uso elkarteak sukaldari eta jabetza erabili dituzte praktika horiek egiteko. Gurasoendako saioa

ere egin zuten atzo, eguena, arratsaldean.

Sukalde lanetan

Bazkaria prestatzen ikasteaz gain, jakien dastatzea ere egin dute. Esaterako, entsalada prestatu aurretik, letxuga eta kanonigoa, esaterako, probatzeko eman zieten sukaldariak ikasleei, gustuak bereizteko. Sukaldea garbi mantentzen, aitzoa behera begira erabili behar dela ikasten eta lau lagunendako oilasko errazioa kalkulatzeko ere ikasi zuten, besteak beste.



Ikastolako DBHko 1. mailako ikasleak, sukaldari, eguaztengoan. | O.E.



Martitzenezko Herrirak antolatuta egindako mahai-ingurua. | AMAIA TXINTXURRETA

Giza katea egin gura dute bihar plazatik Errekaldera, presoan alde

O.E. | OÑATI

Oñatin ere plazara aterako dira kartzelak husteko bihar, zapatua, Plazara ekimenaren barruan. Egun osorako egitaraua antolatu dute. Horien artean, presoek eskubideen alde egingo duten giza katea. Iluntzean egingo dute hori, 19:00etan, eta asmoa da Foruen plazatik Errekalderaino giza katea egitea. Gero, Errekaldeko karpapean elkartuko dira guztiak, auzoko jaien barruan.

Iluntzeko ekitaldiak gain, sagardo eta gazta ostatutako txotxa antolatu dute eguerdirako Foruen plazan. 13:30ean ekitaldi nagusia egingo dute hantxe bertan eta ondoren, bertso-baz-

karia berdura plazan; Maider Arregi, Urko Egaña eta Jon Irizar arituko dira bertsoan.

Mahai-ingurua

Bestalde, zapatuko mugimenduaren barruan, presoek egoraz hitz egiteko eta senideen ahotsa entzuteko mahai-ingurua egin zuten martitzenezko udaletxe oso bilkuren aretoan, Herrirak antolatuta. Preso baten senide izateak dakartzan eraginei buruz mintzatu ziren, besteak beste. Moderatzaile lanak Nagore Lopez de Luzuriaga senide eta psikologoak egin zituen eta beste senide batzuekin batera esperientziak konpartitu zituzten herritarrekin.



Guria tabernako Anton Azpiazu sarrerako kartela kentzen. | AITOR ARREGI

Guria tabernaren azken 15 egunetako kontakizuna iruditan

Hilaren 22an erakutsiko dute Aitor Arregik egindako dokumentala

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

2011ko apirilaren 30ean itxi zituen atek Guria tabernak. Bi urteren ondoren, *Azken egunak Gurian* delako dokumentalak orduan bizi izandakoak gogora ekarriko ditu. Egilea Aitor Arregi oñatiarra eta MUKO Ikus-entzunezkoen Komunikazioko irakaslea da. "Guria tabernaren azken 15 egunetako kontakizuna da", esan digu egileak berak.

15 egunetan grabatutakoa muntatzeko bi urte behar izan ditu Arregik, baina "gustura" dago egindako lanarekin. Hori horrela, herritarrei erakutsiko die: hilaren 22an, 20:00etan, kultura etxean. "Guria tabernako unibertsoa osatzen duten guztiak gonbidatu gura ditut. Baina, baita ere, unibertso-tik kanpo egonda, tabernarenganako hurbiltasuna zutenak", esan digu Arregik.

Atzerako kontaketa

Musu-truk egindako dokumentala da Arregirena. Azken 15 egunetan tabernan antolatutako ekintzak grabatu zituen: karaokea, kontzertua, bazkaria... "Itxieragatik egindako ekintzez gain, tabernaren egunerokotasuna ere erakutsi gura nuen. Barra atzetik eta barra aurretik hainbat irudi hartu nituen", dio zuzendariak.

ESANAK

"Lokal mitiko bat ixtean, historiaren zati bat ixten da"

AITOR ARREGI | EGILEA

Zer kontaktzen da 40 minutuko dokumentalean? "Taberna mitiko baten itxieraren atzerako kontaketa da. Herri baten lokal mitiko bat ixteak herri horretako historiaren zati bat ixtea dakar. Itxiera horrek askotariko sentimenduak sorrarazten ditu, eta horiek jaso gura izan ditut", azpimarratu digu Aitor Arregik.

Irudiak eta hitzak

Irudiak ez ezik, adierazpenak ere bildu ditu Arregik. Tabernaren ardura izan duen Azpiazu familiaren berbak, ohiko bezeroen iritziak, hango langileen esperientziak... Horiek guztiak entzun ahal izango dira malenkonia kutsua duen dokumentalean.

Bada, Guriak atek itxi ondorengo egunetan zer geratu zen jakin gura duenak Arregiren lana ikusi beharko du.

Natra Oñatik lagunarteko bi partidu jokatuko ditu etxean, igoera fasea prestatzeko

M.B. | OÑATI

Natra Oñatik lagunarteko bi partidu jokatuko ditu aste bukaeran, zilarrezko LEB mailarako igoera prestatzeko.

Lehenengo lehia gaur, barikua, jokatuko dute, 20:00etan, liga txapelketan euren aurkari zuzena izan den Zornotzaren kontra. Elkar ondo ezagutzen dute bi taldeek. Biek ala biek jokatuko dute igoera fasea hilaren 24tik 26ra bitartean.

Bi partidu jarraian

Gaurko partidua gogorra izango bada, are gehiago biharkoa. EBA

eta LEB mailetan diharduten jokalariekin selekzio bat egingo dute. Horien kontra jokatuko du Natrak: bihar, zapatua, 18:00etan. Bi egunetan bi lehia jokatuko dituzte oñatiarrek, hurrengo asteko igoeran izango duten partidu erritmoari neurria hartzeko asmoz. "Normalean, ez ditugu partiduak jarraian jokatzen, eta nola errekupeparen garen ikusi gura dugun", diote.

Zilarrezko LEB mailara

Igoera fasea Plasencian (Badajoz) jokatuko du Natra Oñatik. Aurkariak izango dira: Asefa Estu-



Josean Cavada erasoan. | J. ARANTZABAL

diantes (hilaren 24ean), Aracena (hilaren 25ean) eta etxeko taldea, Plasencia (hilaren 26an). Lau taldeen arteko onenak zilarrezko LEB mailan jokatuzeko txartela eskuratuko du.

Bertsogintzako lehen urratsetan ikasitakoa erakutsi zuten gaztetxoek

'Gu ere bertsotan' delako egitasmoan, hainbat emanaldi egin dituzte herriko neska-mutikoek

M.B. | OÑATI

Herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako eta DBHko lehen mailako neska-mutikoek oholtza gainean bertsotan jardun dute azken asteotan. *Gu ere bertsotan* delako egitasmoarekin, bertsogintzaren lehen urratsak landu dituzte ikasturtean zehar, eta emaitzak etxekoan aurrean erakutsi zituzten. Santa Anan egindako bertso jaialdian, ikasturtean zehar sortutako bertsoak abestu zituzten.

Askotariko gai, errima eta erritmoak erabilita, gelaka hainbat bertso sortu zituzten. "Ikasturtean zehar lan handia egin dute eta egindakoa erakustera etorri dira. Askoren-

dako lehen esperientzia da oholtza gainean. Ez da erraza, urduri egoten dira-eta", esan digute arduradunek.

Hainbat helburu

Ahozotasuna eta bertsolaritza hiru ikasturtean lantzen dute. Bertsolaritzan aditua den irakasle batekin eskolak hartzen dituzten 15 egunetan behin. Gainerako eskolak tutorearekin egiten dituzte.

Gu ere bertsotan egitasmoak hainbat helburu ditu, baina bereziki bi azpimarratu behar dira: alde batetik, neska-mutikoak bertsogintzara hurbiltzea; eta beste alde batetik, gazteen eta bertso eskolen arteko bide lanak egitea.



Gu ere bertsotan emanaldiko parte-hartzaileetako batzuk. | MIREIA BIKUÑA

Mozarten 'Requiem' ikusteko sarrerak salgai daude Izarraitz eta Portu tabernetan eta Pake Lekun

Oñati Abesbatzak, Bergarako Orfeoia eta Ganbara Orkestrak Mozarten *Requiem* eskainiko dute ekainaren 9an Oñatiko parrokiaren, 19:00etan. Bada, emanaldirako sarrerak salgai daude Izarraitz eta Portu tabernetan eta Pake Leku elkartearen 8 eurotan. Egunean bertan ere erosi ahal izango dira Txurruka ondoan ipiniko duten leihatilan. Bergarako emanaldia ekainaren 29an izango da.

Gorputza indartu eta tonifikatzeko eta bizkarra zaintzeko tailer praktikoak kiroldegian

Gorputzaren goiko atala indartu eta tonifikatzeko eta bizkarra zaintzeko tailer praktiko bi egingo dituzte Zubikoa kiroldegian: hilaren 24an lehena eta ekainaren 14an bigarrena. Tailerrak doakoak dira kiroldegiko ikastaroetako erabiltzaileendako. Gainerakoek ordaindu egin beharko dute. Bazkideek, aldiz, kuota murriztua izango dute. Izena aldeztatik ematea komeni da kiroldegiko harreraren edo 943 71 63 75 telefonoan.

Autoenplegua sustatzeko sentsibilizazio saioa egingo dute Olaburu zentroan hilaren 28an

Debagoieneko Mankomunitateak autoenplegua sustatzeko sentsibilizazio saioa egingo du hilaren 28an Zubillagako Olaburu zentroan. Hiru orduko saioa izango da (15:00-18:00) eta interesatuek aldeztatik eman behar dute izena Enplegu Sailean (943 03 77 00) edo Debagoieneko Mankomunitatean (943 79 30 90). Krisi garaian autoenpleguak duen garrantziaz eta autoenplegua sortzeko dauden laguntzez egingo dute berba.

Tangoa eta biodantza, Dantza Astearen barruan

Udalak, Leizarra eskolak eta Jaiki elkarteak antolatu dute Dantza Astea

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Maiatzaren 20tik 26ra bitartean Aretxabaletan dantza nagusituko da. Udalak Leizarra musika eskolarekin eta Jaiki elkartearekin elkarlanean antolatu du Dantza Astea aurrenekoz, eta ikuskizun, ikastaro eta hitzaldiak prestatu dituzte.

Dantzak kalean, Zariaian...

Herritarrei diziplina artistiko hori gerturatzeko xedea du dantzari eskainitako asteak. Astelehenean Jaiki elkarteak antolatutako *Dantza familiar* saioa egingo dute kuarter zaharrean (17:00) eta bideo-dantza maratonia, udaletxe zaharrean (19:00).

Leizarra musika eskolakoek dantza emanaldia eskainiko dute martitzenean, 19:30ean plazan. Eguaztenerako hiru ekintza antolatu dituzte: *Dantza gogoz* saio irekia Zariaian (18:00), plaza-dantzak (19:00) eta Aretxabaletako Tango dantza taldearen eskutik saio irekia, Herriko Plazan (20:00).

Eguenak, aldiz, biodantza izango du ardatz; bizitza oinarri har-



Carla Fernandezek *Bárbara II movimiento* eskainiko du. | ARETXABALETAKO UDALA

tzen duen dantza mota, hain zuzen ere. Zariaia aretoan, gaiari buruzko berbaldia egongo da, 19:00etan; eta ondoren, Maite Andres irakaslearekin praktikatzeko aukera egongo da, 20:30ean, kuarter zaharrean.

Hilaren 24an, 22:00etan, Carla Fernandez artistak *Bárbara II movimiento* lana eskainiko du Iturrigorri. "Oso emanaldi bitxi eta ederra", Maier Etxebarria Jaikiko taldekidearen esanetan.

Argentina eta bertako dantzak

Maiatzaren 25ean Argentinatik Aretxabaletara etorritako Fernando Valsega eta Exilio New Tango orkestrak milongak eskainiko dituzte, Herriko Plazan. Aurretik, 20:00etan, Jaikik *Zortzikon* emanaldia jendaurrean erakutsiko du, Duranan.

Amaitzeko, hilaren 26an Haur Dantzarien Eguna ospatuko da; eta Jaikin 18:30ean bat-bateko sorkuntza saioa eskainiko du.



Z.V.D.M.

Auto elektrikoak, ikasleen eskura

Aretxabaletako Lanbide Eskolan teoriatik praktikara eramaten dituzte jorratzen dituzten gai asko eta asko. Hori horrela, ibilgailu elektrikoaren gainean gehiago ikasteko aukera izan zuten karrozeria eta elektromekanikako 34 ikaslek eguaztenean. Motorren eta autoen funtzionamenduz apur bat gehiago ikasi ondoren, horiek erabiltzeko aukera izan zuten; izan ere, probatzea modurik ez dago zertaz hitz egiten den jakiteko. Amaitzeko, Patxi Diago automobilgintzako ikasle ohi batek bere esperientziak egin zien berba Aretxabaletako ikasleei.

Literatur Lehiaketako sari banaketa egingo dute gaur udaletxe zaharrean

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Loramendiren 24. Literatur Lehiaketako sari banaketa egingo dute gaur udaletxe zaharrean, 18:30ean. Loramendiko kultura taldeak eta bertso eskolak osatutako epaimahaiak aditzera eman duenez, aurkeztutako 358 lanen maila handia izan da. "Eskolen parte hartzea ere azpi-

marratu gura dugu, haiek gabe ez bailitzateke posible izango horrenbeste lan aurkeztea".

Euskararen Eguna ekainean

Azken urteetan Euskararen Eguna maiatzean egin baldin bada ere, aurten ekainaren 1ean egingo dute festa. "Urtero bezala, ez da girorik falta izango".

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Gurea

TABERNA

Lotoak eta
kinielak



Durana 32 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 20 64



ORLY
TABERNA



*Giro berria dastatu,
eta Orly aukeratu!*

Herriko plaza 3 • ARETXABALETAKO

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 77 03 08



Etortsi eta dastatu gure pinxto goxo-goxuak astelekuaren

URBALTZ
taberna

Mitarte 19 - 20550
ARETXABALETAKO



Nikasio Unanue | Margolaria

"Barneak askatzen laguntzen zidalako hasi nintzen margotzen"

- ▶ Erakusketa ireki du Arkupen Nikasio Unanue aretxabaletarrak
- ▶ Lan propioak eta Picasso eta Miro artisten kopiak daude, besteak beste

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Nikasio Unanuek lehenengo erakusketa ireki du Arkupen. Hilarren amaierara bitartean ikus daitezke haren lanak: 17 margolan, guztiak ere luma-mutur teknika baliatuta sortuak.

Zer dela-eta hasi zinen margolanak egiten?

Lan estresagarria neukan eta margotzeak barneak askatzen laguntzen zidan. Orduan, nire burutik sortutako ideiak irudikatzen nituen, eta, ondoren, erretratu nintzenez, Zabaleta, Picasso, Miro eta beste artista batzuen artelanak kopiatzen hasi nintzen.

Non ikasi duzu marrazten?

Ez dut sekula ikastarorik egin, autodidakta naiz horri dagokionez. Batez ere, nire ogibidean ikasi dut dakidana, 40 urtez marrazketa lineala, tekniko egin dut eta. Lanerako luma-muturra teknika baliatzen genuen –gaur egun gutxi ezagutzen duten teknika, ordenagailuak daude eta– eta nire margolanetan ere horixe erabili dut.



Unanue luma-mutur teknikaz egindako Asterix eta Obelixen binetarekin. | ZVDM.

"Ez dut sekula ikastarorik egin; nire ogibidean ikasi dut dakidana"

Eta erakusketa egitera animatu zara.

Ez zen nire asmoa erakusketa egitea, baina, proposamena egin zidatenean, helburua herrian ere horrelako gauzak egiten dituzten pertsonak daudela erakustea

izango litzatekeela esan zidaten, eta horrek piztu zidan interesa. Nire lehenengo erakusketa da, gainera. Arkupen 17 lan daude ikusgai; noski, gehiago ere egin ditut, baina gehien gustatzen zaizkidanak aukeratu ditut. Eta, gainera, esango nuke nire lanaren eboluzioa jasotzen dela bertan, 1999an egin nituen aurreneko lanetatik –nik asmatutakoak, marrazketa teknikoaz zerikusi handiagoa dutenak– gaur egunean egiten ditudanetara –artista eza-gunen kopietara.

Zeintzuk dira margolan bat egiteko jarraitzen dituzun urratsak?

Lehenengo eta behin, Internet bitartez gustuko ditudan artisten koadroak begiratzen ditut; hautatutako lanek nik kopiatu edo egin ditzakedan trazuak izan behar dituzte; hau da, garbiak. Ondoren, arkatzez marrazten dut dena, segidan luma-muturraz erreparatzen dut eta amaitzeko koloreztatu egiten dut. Nahiz eta koadroa kopiatutakoa izan, nahi ditudan kolorez margotzen ditut, autore askok erabilitakoak kopia ezinezkoak izaten dira eta. Modu horretan, nire ukitua ematen diot lanari.

Besteak beste, Picassoren Gernika-rekin batera, Asterix eta Obelixen bineta bat ere ikus daiteke...

Bitxikeria da. Betidanik gustatu izan zaizkit Asterix eta Obelixen istorioak eta azken bineta bat egin dut, mahaiaren bueltan afaria egiten agertzen da herri galarrara. Gainera, nire lan gustukoena dela esango nuke.

Herrirak 'M18 Plazara' ekimenarekin bat egitera deitu du

Herrirak antolatuta, *M18 Plazara* egingo dute bihar Euskal Herri mailan, eta Aretxabaletan ere bat egingo dute ekimenarekin. 12:00etan unibertsitatetik irten eta kalejira egingo dute herriko kaleetan Herriko Plazaraino. Bertan, kale agerraldia egingo dute, 13:00etan hasita, eta horren ostean, parte-hartzailerik guztientzako luntxa antolatu du Aretxabaletako Herri-rak. Bada, herritar guztie dei egin diete ekintzetan parte hartzeko.

Heldu eta gazteentzako antzezlan bana asteburuan Arkupen

Ortzai talde gasteiztarrek *Eta orain?* – *¿Y ahora?* antzezlan taularatuko du gaur 22:00etan Zاراia aretoan. Lan horrekin nazioartean ibili dira Ortzai-koak; tartean, Italian, Kuban eta AEBetan. Bestalde, domekan *Scrabble* lanarekin etorriko da MDM antzerki taldea. 17:00etan, mutiko bat, haren aitaita eta itsas hondoon eza-gutzen dituzten pertsonaia ezberdinak protagonista diren abenturaz jositako antzezlan entretenigarria eskainiko dute Zاراia-ko oholtza gainean.

DEBAGOIENENKO LANBIDE HEZIKETAREKIN

ARETXABALETAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 22an, 18:00etan

ALE – Aretxabaleta Lanbide Eskola

☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43

www.iaretxabaleta.com



OÑATIN:

Ate irekiak: Maiatzaren 28an, 18:30ean
(Larrañako egoitzan)

RM Zuazola – Larraña Institutua

☎ 943 78 21 50

www.onati.net

BERGARAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 25ean, 11:00etan

IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara

☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40

www.imaltuna.com



"etorkizuna zure esku"



AURREMatrikula: maiatzaren 27tik ekainaren 7ra. • **Matrikula:** uztailaren 8tik 12ra.



Gurasoek adi entzun zituzten irakasleen azalpenak. | MIRIAN BITERI

LOMCE legearen aurrean elkarlana "funtsezkoa" dela agerian geratu da

Eskoriatzako hezkuntza foroak gurasoei zuzendutako berbaldia eskaini du asteon

M.B. | ESKORIATZA

Eguaztenean herriko kultura etxean LOMCE legearen bueltan egindako hitzaldi informatiboan agerian geratu zen gaur egungo hezkuntza sistema hobetzeko eta datorren lege berriari aurre egiteko "funtsezkoa" dela gurasoen eta irakasleen arteko elkarlana.

Eskoriatzako hezkuntza foroan Wert bezala ezagutzen den legearekin arduratuta daude, eta gurasoei horrek dakar-

tzan eraginen berri zabaltzeko berbaldia antolatu zuten. Hiru irakaslek hartu zuten parte: MUko irakasle Marian Bilbatuak esandako legeak gizartean izango duen eraginaren berri eman zuen eta Luis Ezeizako Arrate Landak eta Arizmendiko Mainer Herce ikasgeletan zelako eragina izango duen azaldu zuten. Ikasleen bereizketa eta lehiakortasuna ekarriko dituela ohartarazi zuten hirurek.

Zaborra batzeko gaikako ontziak jartzen hasi dira

Ekain bukaerarako herriko 24 puntutan jarriko dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Kaleko hondakinak jasotzeko gaikako zakarrontziak jartzen hasi dira asteon Eskoriatzan. Udal brigadako langileak Olaeta plazan eta Aranburuzabala kalean martitzenean hasi ziren herriko kaleetan gaur egun sakabanatuta dauden 160 zakarrontziak kentzen. Horiek garbitu eta konpondu ostean, margotzera bidaltzen ere hasi dira, hondakinak gaika batu ahal izateko egokitu behar dira-eta.

Denera, 96 zakarrontzi koloretu ipiniko dituzte, herriko 24 lekutan launaka jarriko dituztenak: hain justu ere, horiz margotutako zakarrontzia ontzi arindako izango da; urdina, paper eta kartoiendako; marroia, organikoarendako; eta grisa, errefusarendako.

Parkeak eta plaza

Hirigintza Zerbitzuko udal langile Elisabeth Jauregik jakinarazi digu ekain bukaerarako gura dituztela zakarrontzi guztiak egokitu eta puntu berrietan jarri izatea. Horren harira, azaldu



Ekain bukaerarako gura dute egokitutako ontzi guztiak jarrita izatea. | M.B.

du Udalak plangintza egin duela zakarrontziak aldatzeko modua "arrazoizkoa" izan dadin eta kaleak, denbora luzez, zakarrontzi barik egon ez daitezzen. Hori kontuan izanda, brigadako kideak "poliki-poliki" dabilta zakarrontziak kentzen, eta horiek, egoki-

tu ostean, ostera dabiltaza kalean jartzen. Horrekin batera, Jauregik gaineratu du parke-gune, plaza eta halako tokietan zakarrontziak egunero erabiltzen direla, eta, hortaz, ingurune horiek ez direla zaborra botatzeko toki barik geratuko.

Atxorrotz txukuntzeko boluntarioak behar dira

Etzi joango dira ostera Atxorrotzera, ingurunea eta ermita auzolanean txukuntzera. Boluntarioak behar dituztela jakinarazi dute; joateko asmoa dutenek Ibarraunditik pasa behar dute aurretik. Eskumako irudian, joan den domekako boluntarioak, ermita margotzen.



IBARRAUNDI MUSEOA

Ibarraundi eta Zubiato debalde bisita daitezke bihar

M.B. | ESKORIATZA

Bihar, zapatua, Museoen Nazioarteko Eguna da, eta, hori dela eta, Ibarraundi museoek ekintza bereziak antolatu dituzte goizerako. Esaterako, 10:30etik 12:30era umeei zuzendutako tailerrak egingo dituzte: lehenengo orduan, historiaurreko tresnak erabiltzen ikasiko dute haurrek, Ekainberri proiektuko langile baten eskutik. Bigarren orduan, ostera, zeramika tailerra egingo dute Zubiato labean. Kasu horretan, Iraia Artzamendi eskoriatzarra izango da azalpenak emango dituen.

Baina, umeendako tailerrez gain, Ibarraundi eta Zubiato-ko atea gura dutenei zabaltzea erabaki dute. Ordaindu barik, herriko bi museoak barrutik ikusi gura dituztenek aukera izango dute, esan bezala, bihar, 10:30etik 12:30era bitartean. Hango langileak bisitarien galderak erantzuteko gertu izango dira.

Museoak sustatu nahi dituzte gertatu dituzten ekimen horiek.

OHARRAK

ESKORIATZA GARBIA

Birziklatzearen Nazioarteko Egunaren bueltan, Eskoriatza Garbia herri plataformak ekimen bat antolatu du gaurko, egubakoitza, 19:00etan. Hondakin organikoak biltzeko bosgarren ontziaren sistema martxan jarriko dutela iragarri dute, eta, horretarako, eskoriatzarrei dei egin diete nahastu bako azken hiru egunetako hondakin organikoak plazara eroateko.

HERRIRA

Herrira mugimenduak deituta, euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea egingo dute bihar, zapatua, 13:00etan, plazan.

IBILALDIA

Trenbide zaharretik, Eskoriatza eta Zarimutz arteko ibilaldia gertatu dute domekarako. 09:00etarako egin dute hitzordua, plazan.

Frutería MARTIN Frutateria

FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58



Lehen harremana bikoteka egin ondoren, taldeka hausnartu zuten antzularrek herrian bizi duten egoera. | IURE EIZAGIRRE

Hasiera eman diote elkarbizitza prozesu parte-hartzaileari

Bakoitzaren esperientziatik abiatuta, elkar ezagutzea dute helburu

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Elkarbizitza prozesuari hasiera eman zioten martitzenean Olanan etxean egindako lehen bilkuran. Udalak bere kabuz landu beharrean, herritarren parte-hartzea bultzatu du egitasmo honetan, antzularrek hala eskatuta. Iaz irailean eta urrian egindako aurrekontu parte-hartzaileetan, gai ekonomikoekin batera gizarte gaiak ere izan zituzten hizpide eta herritarrek orduan erakutsi zuten elkar ezagutzeko gogoia. Martitzeneko erantzuna horren adibide da; izan ere, 34 pertsonak hartu zuten parte bileran.

Eurak identifikarazten zituzten banderak aukeratuz ekin zioten jardunari eta horrek ondo-koarekin hitz egiteko aukera eman zien. Esperientziak talde handiagoarekin banatu zituzten gero eta bakoitzaren jatorria ezagutzeaz gain, herrira heldu zireneko bizipenak eta sentipenak elkarbanatu zituzten.

Maddi Elortza Kultura zinegotziak azaldutakoaren arabera, "herritarren artean nolabaiteko elkarbizitza sortzea izan zen bileraren helburua. Jatorri askotariko jendearen artean harremana sortzea". Gustura agertu zen

martitzeneko bilerak izandako harrerarekin.

Antzuolako Udalari herriko bizimoduaren inguruko hainbat ondorio ateratzeko balio izan zion bilerak. Herria txikia izateak elkar ezagutzen, elkarri laguntzen, lan egiten eta seme-alabak hezten

laguntzen du, eta kanpotik datozenek eskertzen dute hori. Herritarrekin elkartzeko norberaren izaera eta euskara jakitea faktore garrantzitsuak dira, eta hurbiltze horretan eskolaren eta gaztetxearen lana azpimarragarriak dira.

Hala ere, antzularrek ere koadriletan biltzen dira eta horrek benetako lagunen falta eragiten du batzuegan. Herrian jaiotakoek eta kanpotik heldutakoek koadrilak bereizten dira, eta horretarako arrazoiak komunikazio falta eta herriaren izaera izan ohi dira.

Beste bi bilera

Martitzeneko saioan jendearen jatorria eta sentipenak ezagutu zituzten. Elkarbizitza prozesuak, ordea, jarraituko du eta beste bi bilera dituzte aurreikusita.

Maiatzaren 28an izango da hurrengo bilera eta aste honetan egindako hausnarketetatik abiatuta, hainbat oinarri zehaztu eta elkarbizitza planerako balioak ezartzen saiatuko dira. Hirugarren eta azken bilkuran, aldiz, elkarbizitza posible dela erakusteko akordioak eta ekintzak zehaztuko dituzte guztien artean.

ESANAK

"Jendearen arteko harremana da helburua"

MADDI ELORTZA | KULTURA ZINEGOTZIA

DATUA

34

PERTSONA

Jatorri askotariko 34 pertsonak hartu zuten parte bileran.

Mugi txartela herrian egin ahal izango da astelehenetik aurrera

Apirilean jarri zen martxan Gipuzkoan garraio publikoan ibiltzeko Mugi txartela. Antzularrek beste herri batzuetara joan behar izan dute orain arte txartela bideratzera. Astelehenetik aurrera udaletxean bertan egin ahal izango dute, bulego ordutegian; hau da, 09:00etatik 14:00etara.

Presoen alde plaza betetzeko dei egin dute baita Antzuolan ere

Presoen alde Euskal Herriko eta nazioarteko plazak betetzeko deiarekin bat egingo dute bihar herrian. Ez Dut Moztuko Bizarra elkarteak eta Herrirak egin dute deia, eta argazki erraldoia aterako dute 13:30ean frontoi txikian. Aurretik, 12:00etatik 13:00etara, triki-poteoa egingo dute herrian zehar. Antzular guztiak gonbidatu dituzte ekimenera.

Odol-ematea izango da maiatzaren 23an erretiratuen egoitzan

Odol-emateen elkarteak maiatzaren 23rako, eguena, antolatu du hurrengo odol-ematea. Erretiratuen etxean izango da, 17:30etik 20:00etara. Herritarrek odola ematera animatu dituzte elkartetik. Urtean hiru odol-emate antolatzen dituzte herrian eta aurtengo azkenekoa irailan izango da.

San Isidro azoka egingo dute bihar herrian zehar

Aurten ez dago berrikuntzarik: azoka, musika eta kukumarroa izango dira 14:00ak bitartean

I.E | ANTZUOLA

Nekazarien Eguna eguaztenean izan bazen ere, antzularrek bihar ospatuko dute, San Isidro azokarekin. Aurten ez da berrikuntzarik izango; beraz, 09:00etan hasita, ohiko azoka eta ekitaldiak egingo dira.

Granada feria plazan izango da, baina, eguraldi txarra iragarrita dagoenez, artisau eta baserriko produktuen salmenta-postuak eskolako aterpean egingo dira.

Herriko bi baserriarrek eskatu dute postua jartzeko baimena; beraz, Antzuolako gazta eta baratzeako produktuak ere erosi ahal izango dituzte 14:00ak bitartean eskolara bertaratzen direnek.

Eguerdi aldera txistulariek eta trikitilariek herriko kaleak

alaituko dituzte, bertan dabilzaten gozamenarako.

Kukumarroa protagonista

Aurreko urteetan bezala, kukumarroak garrantzia izango du San Isidro eguneko ospakizunetan.

Izan ere, 11:00etan kukumarro erakusketa izango da plaza-ko iturri inguruan. Aurkezten direnak arduratuko dira kukumarroa ipintzeaz.

Umeentzako nahiz erretiratuentzako jarduerak izango da. Txikienek ez dute lehiatuko eta amaieran guztientzako sariak izango dira. Erretiratuek, ordea, lehiaketa egingo dute eta 13:00etan banatuko dituzte sariak. Sari-banaketak emango dio amaiera San Isidro eguneko ospakizunari.



Eguraldi txarra dela-eta eskolan egingo dute azoka. | GOIENA

Gaztetxean Iraunkortasun Asteko lehen jarduerak egin dituzte

Eguaztenean hasi zen, joste-tailerrarekin, eta bi astean hainbat ekintza egingo dituzte

I.E | ANTZUOLA

Inguruko errealitatea ezagutzeko asmoarekin ekin zion Antzuolako Gaztetxeak Iraunkortasun Asteari eguaztenean.

Bi egunean joste-tailerra izan zuten eta bertaratutakoek poltsatxo bat egin eta euren zalantzak argitu ahal izan zituzten. Atzo *Euskal Herria: ezkutu zorra* filma eman zuten. Euskal Herriak eragindako zor ekologikoaz hausnartzen du lanak.

Datorren asteko jarduerak

Ekainaren 1era arte egingo dute Iraunkortasun Astea eta bihar bertan izango da hurrengo ekintza: bigarren eskuko feria egingo dute gaztetxean. Arropak eta bestelako gauzak egingo dira. Eguenean gaixotasunak

osatzeko erabili ohi diren sendabelarrez hitz egiten duen *Erremedixuek* dokumentala emango dute.

PATXI CASTRO



Era guztietako aulkien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65

639 01 69 69

Biomasa aukera "ederra" dela eta, sentsibilizazioa

Basoa energia iturri moduan azaltzeko jardunaldia izan zen atzo kultur etxean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Biomasa edo basoa energia iturri moduan aldarrikatu eta batez ere herritarrek sentsibilizatzeko, hainbat aditu izan genituen atzo kultur etxean. Udalaren ekimenez jardunaldi interesgarria izan zen, 10:00etatik 20:00etara: *Baso-tako bioenergia: aurrezte, enplegua eta jasagarritasuna landa eremuan*.

Harrera ekitaldian izan ziren Martin Etxabe, Mendietako zinegotzia; Ramon Ajuria, alkatea; Marta Ruiz Cerillo, Arabako Diputazioko Ingurumen eta Hiri-gintza zinegotzia; Santiago Arevalo, Enguerako (Valentzia) alkatea eta Remufor elkarteak presidentea dena –baso-ustiapena lantzen duten udalerrien sarea da; Aramaio ere sartu da orain dela gutxi; eta Juan Jesus Ramos, Avebiom elkarteak teknikaria.

Sentsibilizazio kanpaina

Alkateak argi azaldu zuen jardunaldiaren helburua: "Euskal Herrian aukera daukagu energia bertan lortzeko, kanpora jo gabe. Sentsibilizazio kanpaina bat hasi



Jardunaldiaren irekiera ekitaldia atzo, Kultur etxean. | JOKIN BEREZIARTUA

Alaiak-ek beste saio bat antolatu du

Atzo jardunaldiarekin zerikusi zuzena duen saio berri bat egongo da datorren astean. Izan ere, hilaren 27erako Alaiak erretiratu elkarteak Aramaioako energia horniduraren gaineko hitzaldia antolatu du Kultur etxean (18:30). Xabier Arriolabengoa teknikariak Aramaioako argindarraren kudeaketa izango du hizpide eta Ramon Ajuria alkateak, berriz, energia lortzeko Aramaioak dituen baliabideak azalduko ditu.

Erdigune historikoan dauden etxebizitzak eraberritu ahal izateko dirulaguntza eskaera, hilaren 31ra arte

Erdigune historikoko etxebizitzak eraberritzeko dirulaguntzetan izena emateko epea irekita dago maiatzaren 31ra arte. Beraz, aurten obraren bat egiteko laguntza jaso gura duten herritarrek hil honetan egin beharko dute eskaera. Lehen, Arabarri programak kudeatzen zuen zerbitzua, baina orain, Arabako Lanak enpresarena da ardura; argibide gehiago jasotzeko udaletxera jo daiteke: 945 44 50 16.



Osteta kalean egoera txarrean dagoen fatxadetako bat. | J.B.

Umorea eta satira osagai dituen 'Prest gaude' obra gaur kultur etxean

Txirritolaren eta Kultur Errotaren ekimenez, *Prest gaude* antzez-lana egongo da gaur kultur etxean, 22:30ean. Alaitz Olaizola, Idoia Uranga eta Gurutze Eizmendi aktoreek hartzen dute parte: greban egon eta helburuak bete ez zituztenez, beste ahalegin bat egingo dute, ez zaie-eta borrokarako grinarik falta. Umorea eta satira tartekatzen ditu.

Bertsolari, glosari eta sonadoreak gaur Eki tabernan, 23:00etan

Esteve Barcelo eta Joan Moll glosariak, Ismael Moll sonadorea eta Xabi Igoa, Ander Solozabal eta Aramaioako bertso eskolako kideak izango dira protagonista gaurko saioan. Eki tabernan izango da, 23:00etan. Era berean, bertsolari gaztetxoek topaketa egingo dute kultur etxean (17:30).

'Plazak bete kartzelak hustutzeko' dei egin du Herrirak biharko

J.B. | ARAMAIO

Euskal Herri osoan Herrira mugimenduak egin duen deialdiarekin bat eginez, Aramaioako Herrirak hainbat ekintza antolatu ditu biharko. *Giza eskubi-deak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira* aldarrikapenarekin bat egiten duten herritarrek deitu dituzte goiz osorako antolatu dituzten ekintzetan parte har dezaten.

Hasteko, 10:00etan Bizente Goikoetxea plazatik abiatuko den martxa antolatu du Orixol mendizale elkarteak. Arexola aldera joango dira eta Luis Mari Azkargorta *Kanto* izango dute

gura dugu, lehen urrats bat egingo. Ongi etorri, guztioi". Harre- ra ekitaldian hitza hartu zuten ordezkari guztiek txalotu eta eskertu zuten Aramaioako Udalaren lana, baita alkateak erakutsi dituen prestutasuna eta interesa ere: "Valladoliden ezagutu nuen Ramon eta oso azkar konektatu genuen; ni ere Valentziako herri txiki bateko alkate naiz. Indarra eta ilusio handia erakutsi zituen hasieratik eta hori eskertzekoa da, basoa ustiatu gura dugunok eskutik helduta joatea ezinbestekoa delako. Batera bagoaz, helburuak lortzea errazagoa izango da. Landa eremu herriok aukera ederra dugu biomasarekin".

Marta Ruiz Cerillo diputatuak ere esker on hitzak izan zituen Ajuriarekiko, besteak beste: "Zorionak eta eskerrak asko halako jardunaldi interesgarri bat antolatzearen. Etorkizunerako aukera berri bat proposatzen du, krisi energetikoa agerikoa denean. Arabak baso eremu handiak ditu eta kudeaketa egokiaz lehen oinarri batzuk finkatzen joan gaitzke lurralde osorako".

Udala, harrera onarekin pozik

Udala harrituta gelditu da atzoko jardunaldiak piztutako interesarekin: "Teknikari, ordezkari politiko, sektore energetikoen enpresen ordezkari, zein norbanaoak etorri dira eta hori oso positiboa da". Izan ere, 60 bat lagunek eman zuten izena jardunaldian parte hartzeko.

gogoan, bereziki. Azkargortari ezarri dioten 197/2006 doktrina bertan behera geratzeko eska- tu eta herrikidea aske uzteko eskatuko dute.

Argazki erraldoia 13:30ean

Gero, 12:00 aldera, Iturrieta sagardotegian mokadutxo egingo dute. Sagardotegian bertan *Kanto*-ri eta beste edozein euskal presori gutunak idazteko gonbidapena egingo dute Herri- rakoek. Ibarrara bueltatzean, kalejiran joango dira pilotale- kutik plazara arte. 13:30ean, amaitzeko, argazki erraldoia aterako dute plazan.

Aramaio taldeak oso ondo hasi du Kopa, areto fubolean

Lehen bi partiduetan erraz irabazi ostean –azken jardunaldian 3-15 irabazi zuten–, Arabako areto fuboleko Zilarrezko Mailako kopa txapelketan bere multzoko liderra da Aramaio taldea. Hirugarren jardunaldian Bar Copo taldearen kontra jokatu dute; domekan izango da, Gasteizen, Hegoalde zentroan.



Jokin Orobengoa. | JOKIN BEREZIARTUA

Jokin Orobengoa Aramaio taldeko kidea "Bertakoa kontsumitzeko interes handia erakutsi du jendeak"

J.B. | ARAMAIO

Hilaren 11n amaitu zen Lora- barri Asteaz eta etorkizune- rako erronkez egin dugu berba Orobengoarekin.

Zein balorazio egiten duzue Lora- barri Asteak eman duenaz?

Oso positiboa. Ekintza gehie- netan parte hartzea oso han- dia izan da. Herritarrendako intereseko gaiak izan direla uste dugu eta giro onean igar- o dugu astea; kasu batzuetan, gehiago sakontzeko gogoare- kin gelditu izanak ere aurre- ra begirako ideiak eman diz- kigu. Pena bakarria izan da jangelako antolaketa eredu- en gaineko hitzaldia bertan be- heratu izana.

Azoka izan zen azken ekintza. Nolako izan zen erantzuna?

Ahalik eta eskaintza zabale- na eta txukunena prestatzen saiatu ginen eta erantzuna oso ona izan zen. Azokak arra- kasta izan zuen baserritar eta ekoizleen aldetik, zein azokan erosketak egin, kantatu eta euren musikarekin alaitu gintuztenen aldetik. Lehen aldia zenez, zaila zen aurrei- kuspenak egitea eta produk- tu batzuk nahiko azkar amai- tu ziren. Aramaio bertako produktuak kontsumitzeko interes handia erakutsi du jendeak. Orturako landareek, esaterako, arrakasta handia izan zuten. Edalontzi eta plater berrerabilgarrien aldeko apustua egin genuen, honda- kin gutxi sortuz.

Zeintzuk dira etorkizunerako erronkak?

Arrakasta ikusita, azoka erre- pikatu beharrekoa dela uste dugu. Jaien ostean garai ona izan daiteke, uzta jaso, herri- tarren eskura jarri eta tokiko kontsumoa bultzatzen jarrai- tu nahi dugu-eta.

Zerbait gaineratzerik nahi?

Ekintzetan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, euren parte hartze- ri esker aurrerantzean ditugun erronkei heltzeko hauspoa eman digu-eta azken asteak.

ELGETA

Semaforoetan oinezkoek izango dute lehentasuna

Sistemaren sentsoreek autorik detektatu ezean, berde izango dute oinezkoek

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Oinezkoek semaforo aurrean zain denbora luzeegia egiten dutela aspaldiko kontua da Elgetan. Udalak, berriki, zenbait aldaketa egin ditu, eta jakinarazi dute aurrerantzean oinezkoek izango dutela lehentasuna. Orain arte sistemak auto baten presentzia sumatu orduko jartzen zuen martxan txandakatzeko prozesua. Behin hasita, zirkuitu osoa egiten zuen sistemak, eta oinezkoek euren txanda itxaro behar izaten zuten zirkuitu horren barruan. Aurrerantzean, oinezkoek izango dute lehentasuna; izan ere, sistemak zebra-bideetan argi berdea egotea lehene-tsiko du. Zirkulazio-argiak aldatu egingo dira sentsoreek auto bat detektatuz gero, baina, orain arte ez bezala, oinezkoek lehenbailehen argi berdea ematea izango da lehentasuna. Funtzionamendu berria 08:30etik 20:30era mantenduko dutela esan dute Udaletik. "Aldaketak zer eragin duen aztertuko dugu pare bat hilabetean", adierazi du Oxel Erostarbek. "Ikusiko dugu autoen zirkulazioan zer eragin duen".herri



Oinezkoa, atzo, Kataia aurreko oinezkoendako bidea gurutzatzen. | LZ

Oinezkoendako lau semaforo herrian

Bost semaforo ditugu Elgetan, eta hiru Kataiako pasabide estua kudeatzeko dira. Autoen zirkulazioa handia da puntu horretan, eta gertatzen da oinezkoendako ere pasabide garrantzitsua dela. Artekaleko zebra-bidea oso erabilia da, baina oinezkoendako argi berdea pizteko asko itxaron behar dela-eta sarri ez da errespetatzen. Beste semaforo bat dago gorago. Zirkuitu nagusitik kanpo dago, eta oinezkoek botoia zapaldu bezain pronto ipintzen da berde. Arazoa da, herriko beste zenbait puntutan bezala autoak abiadura handiegian sartzen direla erdigunean.

Gaueko autobus zerbitzu berezia aste bukaeran

L.Z. | ELGETA

Bergarako Pentekoste jaiak direla-eta Pesak autobus zerbitzu berezia eskainiko du bariku zein zapatu gauean. Elgetatik Bergarara jaisteko zerbitzua 00:30etik 05:30era emango du ordubeteko maiztasunarekin, 03:30ean salbu. Bergaratik Elgetara igotzeko aukera, berriz, 00:10ean hasi eta 06:10ak bitartean izango da, 03:10ean kenduta. Argibide gehiagorako deitu 902 10 12 10 telefono zenbakira edo kontsultatu www.pesa.net atari digitala.

OHARRAK

ELKARRETARATZEA

Euskal Presoak Euskal Herrira M18 Plazara lemapean hainbat mobilizazio deitu ditu biharko, zapatua, Herrira mugimenduak. Elgetako herriko plazan 12:30ean osatuko duten giza katean parte hartzera deitu dituzte herritarak.

PODOLOGOA

Erretiratuendako kontsulta hilaren 23an, eguena, izango da. Txanda hartzeko deitu 943 76 80 77 telefono zenbakira.

KZGUNEA

Dinamizatzailea hilaren 23an, eguena, izango da KZgunean, 16:00etatik 20:00etara.

Parrokiako harribitxiak ezagutzeko aukera berria



Apirilaren 20an egin zuten lehenengo bisita gidatua Elgetako parrokiari. | LZ

L.Z. | ELGETA

Debagoieneko Mankomunitateak Ignaziotar Lurralde programaren barruan antolatuta hilaren 25ean, zapatua, Elgetako parrokia ezagutzeko bigarren bisita gidatua egingo dute. Apirilaren 20an egin zuten lehenengo bisita. Iraitz Lazkano gidariaren eskutik eta Santiagoren erretaulatik abiatuta Elgetaren historiaren barrena ibili ziren dozana bat parte-hartzaile. Besteak beste, Martin Saez de Ibarra edo Otxoa Donor de Olaegi jauntxoaren garaietara egin zuzen bidaia.

Hilaren 25ean ere 12:00etan hasiko da bisita gidatua, eta prezioa bi euro da. Interesatuak aurrez eman behar dute izena info@tierraignaciana.com helbidera idatzita edo 943 79 64 63 telefono zenbakira deituta.

LEINTZ GATZAGA

Gatz Museoa eta uraren ibilbidea bihar ikusgai

Ezkutuko Altxorren ekimenaren barruan, bisita berezia egingo dute, 12:00etan hasita

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gatzaren ekoizpenean ur jauzien erabilerak duen garrantzia. Hori izango da biharko, zapatua, Leintz Gatzagako Gatz Museoa egingo duten bisita gidatuaren

abiapuntua. Debagoieneko Mankomunitateak Urolakoekin elkarlanean antolatutako Ezkutuko Altxorren izeneko ekimenaren barruan antolatutakoa da biharko bisita hori.

12:00etan hasiko dute, museoan bertan, eta "uraren ibilbidea, errekatik behera joanda, presak ikusiko ditugu... bisitara datorrenari esan behar zaio botak jantzita etortzeko. Bisita ordubete ingurukoa izango da", jakinarazi du Aitziber Gorosabelek, bisitaz arduratuko den gidari eta Leintz Gatzagako turismo bulegoko arduradunak.

Doan da bisita, eta nahi duen edozeinek parte har dezake. Hori bai, alde aurretik izena eman beharra dago. Bi bide daude

horretarako: Debagoieneko Mankomunitatera deituta, 943 79 64 63 zenbakira, edo Gatz Museora bertara deituta, 943 71 47 92 zenbakira. Gainera, Gorosabelek esandakoaren arabera, azken-azken ordukoak ere onartuko dituzte Gatz Museoko zenbakira deituz gero. Bestela esanda, bihar (zapatua) bertan deituta ere, posible da bisitara joatea.

Bisita ugari azkenaldian

Biharko bisitaz gainera, halako nahikotxo izaten dabil azken

asteotan Gatz Museoa: "Gaur bertan (eguna) Mutrikuko ikasleak datoz. Bergarakoak ere izan dira asteon; joan den astean Oñatikoak eta Bergarakoak etorri ziren, eta adibidez, ekainaren 6an Gasteizko Olagibel ikastetxeko 101 neska-mutiko etorriko dira. Horrez gainera, gaur EITBkoak ere badatoz. Asteburuan Museoen Eguna dela-eta, museo txikien gaineko erreportajea egin behar dute eta gurea ere azalduko da", kontatu du Aitziber Gorosabelek.

V. FRONTENIS TXAPELKETA

Hogei bikote frontenis txapelketan

Gaur, barikua, 20:00etan, abiatuko da Elgetako V. Frontenis Txapelketa. Iaz baino zortzi bikote gehiago ariko dira nor baino nor, eta azkenean, bi txapelketa jokatu dira: gizonetzkoena hamabi bikoterekin, eta txapelketa mistoa zortzi bikoterekin. Jokatu ez dena emakumezkoen txapelketa da, izan ere, bikote bakar batek eman du izena.

Lehenengo partiduak gaur, barikua, eta bihar, zapatua, jokatu dira. Asier Osoro da aurten ere antolatzaile nagusia: "Ligaxkan soilik 94 partidu jokatu dira", esan du. "Gizonezkoen txapelketako 66 partidu eta txapelketa mistoko 28". Lehia, orain, martxan da!

GAURKO PARTIDUAK, 20:00ETAN HASITA

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Sergio Bouzas-Josu Arantzabal

Amaia Iribar-Luisan Alkorta / Idoia Serna-Asier Osoro

Maitena Mañarikua-Josu Mañarikua / Maria Eugenia Olabarria-Xanti Dosuna

Odei Zenitagoia-Fernando Zenitagoia / Ibon Untzetabarrenetxea-Eneko Ojanguren

ZAPATUKO PARTIDUAK, 16:00ETAN HASITA

Iban Retolaza-Xabier Ubera / Adrian Gorostiza-Asier Osoro

Rebeka Ubera-Xabier Ubera / Iratxe Bravo-Iker Lopez

Juan Carlos Gonzalez-Txema Cot / Etor Vallo-Ander Gorosabel

Eneko Maguregi-Andoni Elortza / Imanol Albisu-Julen Barutia

Mikel Zubiaurre-Aitor Errarte / Xanti Dosuna-Oskar Sarasua

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak ekainaren 7an egingo du 80 urtetik gorakoendako bazkaria

80 urtetik gorako herritar guztiak daude gonbidatuta Xalbadorpe elkarteak ekainaren 7an Ozkarbi elkartearen emango duen bazkaria. Bazkariaren aurretik, 13:00etan, meza entzungo dute erretiratuek. Interesatuak maiatzaren 31a baino lehen eman behar dute izena Pedro Mari Uberari jakinaraziz edo 943 768 028 telefono zenbakira deituta.

TXIRRINDULARITZA

Joseba Larrinaga omenduko dute domeka honetan

Ziklisten errepideko arriskuak salatuko dituzte; Aretxabaletan hasiko da ibilbide zikloturista

GUREN AUZMENDI | ARETXABALETA

Joseba Larrinaga kirolari aretxabaletarrari omenaldia egingo diote domeka honetan, hilaren 19an. Haren lagunek antolatu dute bizikleta-martxa, Larrinaga oroitu eta ziklistek errepidean dituzten arriskuak salatuko. Auto batek jota hil zen kirolaria joan den astean, bizikletan zebilela Aramaion izandako istripuan.

Eguazten goizean eman zuten ekitaldiaren berri haren lagunek. Esan zuten domekan goizeko hamarretan hasiko dutela martxa, Aretxabaletako plazan; handik Eskoriatzara egingo dute. Gero, Arrasatetik pasatu ostean, Aramaiora iritsiko dira; ibilbide osoan kalerik kale ibiliko dira. Hara iristean, Josebak istripua izan zuen tokian geldialdia egingo

FITXA	
JOSEBA LARRINAGARI OMENALDIA	
Ordua: 10:00etan.	
Tokia: Aretxabaletako plazan.	
Ibilbidea: Aretxabaleta-Eskoriatza-Arrasate-Aramaio-Aretxabaleta.	

dute. Lehenengo, Larrinagaren omenez minutu bateko isilunea egin, eta horren ostean komunikatua irakurriko dute. Nabarmenduko dute Larrinagaren iparra beti errespetua izan dela; horixe bera eskatuko dute: errepidean ziklistak kontuan har daitezela eta horrelako istripuek bukatu egin behar dutela. Haren omenez bizikleta bat jarriko dute saihesbidean bertan, eta Aretxa-



Joseba Larrinaga, bizikletaren gainean. | GOIENA

baletara itzuliko dira. Omenaldia bukatzeko, aureskua egingo dute. Antolatzileek esan dute bizikleta-martxa irekia izango dela; nahi duenak parte hartu ahal izango du oroimenerako eta protestarako prestatu duten herri ekimen horretan.

Antolatzailak

Larrinaga oso estimatua izan da bailarako eta Euskal Herriko kirolari eta kirolzale askorentzat, baita herri-mugimendutako jendearen artean ere. Horregatik, domekako ekitaldia bailarako bizikleta-talde eta elkarte askok gertatu dute. Tartean dira Dorletako Ama Txirrindularitza Eskola, Lokatza Ziklismo Eskola, Eskoriatzako Txirrindulari Elkarte eta Aloña Mendi Txirrindulari Elkarte. Horiez gain, Aretxabaletako lagunek, Athlon kirol eta zerbitzu kooperatibak eta Goiena Komunikazio Taldeak ere parte hartu dute.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak aretxabaletarraren omenaldia babestu du, ekitaldiak ahalik eta oihartzun handien izan dezan bailaratik kanpora.

ESANAK

"Ziklistok gaur egun egoera arriskutsuak bizi ditugu"

"Gura izan dugu egitea xumea baina hunkigarria"

GORKA ETXABE | TXIRRINDULARIA



Antolatzailak eguaztenean egindako aurkezpena. | JAGOBA DOMINGO

PILOTA

Gallastegik ezin izan zuen irabazi Bergara Hirian

G.A. | BERGARA

Mikel Gallastegi bergararrak eta Ibarrondo bikotekideak galdu egin zuten Bergara Hiriko finalerdia. Martitzenean jokatuako partiduan ezin izan zieten Irribarria eta Xanet Imazi irabazi; 22-11 galdu zuten.

Txapelketan maila polita eman du Gallastegi bergararrak. Ez zuen, baina, egun ona izan; eta Ibarrondo bikotekideak ondo eutsi bazuen ere, aurkariak gehiago izan ziren. Gainera, Irribarria eta Xanet Imaz zituzten aurrez aurre, oso bikote indartsua izan da aurtengo txapelketan. Partidu desorekatua izan arren, bertaratutakoek tanto politak ikusteko aukera izan zuten. Denera, 44 minutu iraun zuen pilota partidua. Seniorretan, Larrañagak eta Peñasek galdu egin zuten Yoldi eta Tolosaren aurka (12-22). Emaitzak bestelakorik esan dezakeen arren, partidua gogorra izan zen. Hala eta guztiz ere, hasieran Yoldik eta Tolosak lortutako errentak baldintzatu egin zuen helduen mailako norgehiagoka.

Bergara Hiriko gaztetxoek partidak gaur arratsaldean jokatu dira. 18:30ean hasita, guztira, bost partidu izango dira.

Finalak, astelehenean

Txapelketaren bukaera astelehenean izango da, hilaren 20an. 19:30ean hasiko dira finalak. Promesetan, Altuna-Ander Imaz eta Irribarria-Xanet Imaz izango dira; seniorretan, Jaka-Rezusta eta Yoldi-Tolosa. Bada, Zazpi Iturriko amezketarrak dira horiek guztiak.

Goiena Klubak opari piloak banatu du apirilean. **Orain, badatoz maiatzeko zozketak. Zorte on!**



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

943 25 05 05 | goienakluba.com





Antxintxika Triatloi Taldeko kideak, joan den asteburuan, Deban. | ANTIXINTXIKA

TRIATLOIA

Taldeka egindako lanari esker jantzi dute Antxintxikakoek Euskal Herriko txapela

Jokatutako bi lasterketetan izan dira bailarakoak taldeka onenak

XABIER URZELAI | BERGARA

Joan den asteburuan egin zuten Deban Euskal Herriko triatloi txapelketa, eta taldekako lanean Antxintxikakoak nabarmendu ziren. Emaizak, gainera, ez zuen inor sorpresaz harrapatu, egutegi lehen hitzorduan ere, Bermeon, bailarakoak izan zirelako taldeka onenak. Hala, lasterketan onena Nicholas Kastelein austra-

liarra izan zen (1.19.56), eta Antxintxikako azkarrena Mikel Muxika izan zen, bosgarren. Garaipen hau, gainera, duatloi denboraldian egindako lan apartaren jarraipena baino ez da, duatloietan ere Antxintxikakoek jantzi dutelako talde onenaren saria: "Horrenbestez, denboraldia ezin hobea izaten ari da", adierazi du Aitor Rementeriak.

Emaizetara mugatu barik

Horrenbestez, denboraldia oso ondo doa, baina ez lasterketetan lortzen ari diren kirol emaitzenatik bakarrik; izan ere, taldea hazten doa -22 kide berri dituzte taldean aurten- eta horrek erakusten du geroago eta gehiago direla kirol jarduerara horrengatik interesa erakusten dabilizan herritarrak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleta-Diartzun

Domeka. 16:30. Ibarra.

Ostadar-Mondra

Domeka. 17:00. Lasarte Oria.

Hondarribia-Aloña Mendi

Zapatua. 16:30. Ondartza.

Berio-Bergara

Zapatua. 15:30. Berio.

ERREG. PREFERENTEA

Antzuola-Idiazabal

Zapatua. 18:00. Azpeitia.

1. ERREGIONALA IGOERA

Sanpedrot.-Aretxabaleta UDA

Domeka. 17:00. Trintxerpe.

OHOR. GAZTEAK, IGOERA

Aretxabaleta B-Anaitasuna

Zapatua. 17:30. Ibarra.

OHOR. INFANTILAK, TXAP.

Arrasate-Beasain

Zapatua. 12:00. Moiategi.

Kostkas-Bergara

Zapatua. 17:00. Donostia.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Gallarta

Zapatua. 18:00. Manuel M.

ESKUBALOIA

FORU ALDUNDIKO

TORNEOA, KADETEAK

Soraluce BKE-Usurbil

Zapatua. 17:00. Labegaraiaeta.

Arrasate-Egia

Zapatua. 10:00. Iturripe.

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Mikeldi

Zapatua. 18:00. Iturripe.

HIRUGAREN SENIORRAK

MU B-Erroibide

Zapatua. 17:30. Musakola.

LAGUNARTEKO PARTIDUA

Natra Oñati-Zornotza

Egubakoitza. 20:00. Zubikoa.

LAGUNARTEKO PARTIDUA

Natra Oñati-EBA selekzioa

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

ZIZIKLISMOA

PENTEKOSTE SARIA

Domeka. 09:00. Bergaran.

JOSEBA LARRINAGAREN

OMENEZKO MARTXA

Domeka. 10:00. Aretxabaleta.



JOSETXO ARANTZABAL

PENTEKOSTE SARIA DOMEKAN Lehendakari

Txapelketarako baliagarria den Pentekoste saria domekan, 09:00etan hasita. Argazkian, iazko irabazle Ramon Dominguez.

FUTBOLA

Antzuolak eta Vasconiak erregional mailako finala dute bihar Azpeitian

X.U. | ARRASATE

Domekan jaso zuen Antzuolak denboraldi osoko lanaren fuitua, Idiazabali 5-0 irabazi ostean liga irabazi eta igoera txartela lortuta. Zapatuan, berriz (18:00, Azpeitia), Vasconiaren kontra partidua saria izango da, gozatzeko eta lehiatzeko finala. Hala, bi multzoetako liderrek, Antzuolak eta Vasconiak, Gipuzkoako txapeldun izateko finala jokatuko dute.

Aretxabaletak, liderra aurrean

Liga amaitzeko bi jardunaldi geratzen dira, sei puntu jokoan. Aretxabaletak lider dagoen

Oiartzun izango du aurrean; hala, Albistegiren mutilek urteko talde onenaren kontra partidua txukuna eginda izango dute Ibarako zaleak agurtzeko aukera.

Mondrak, beste final bat

Joan den astean arnasa hartu zuen Mondrak, eta zelan, gainera. Zulutik irten ziren, baina talde mordoa daude puntu gutxiren aldean, eta jokoan dauden sei puntu hauek urrea balio dute. Asteburuan Ostadarren zelaira joango dira, zuloan sartuta dagoen kontrario zuzen baten zelaira, alegia.



PATINAJEA

Hanka-Labanka taldeko kideak Martin Fizen maratoian

ARGAZKILARIAXXX

Bergarako Hanka-Labanka taldeko patinatzaile koadrila Martin Fiz maratoian izan zen joan den domekan Gasteizen. Hanka-Labankakoek esanda, giro ederra izan zuten lasterketan, eta goizeko lehen orduan errepidea bustita bazegoen ere -kontuz ibili beharra zegoen-, goizak aurrera egin ahala ibilbidea sikatu egin zen. Korrikalariez gain, guztira 300 patinatzailek hartu zuten esku lasterketan.

**Ford Mugarri,
Lehenengo Nazional Mailara!**



MUGARRI

Ford Mugarriko lantaldea osatzen dugun guztion partetik
ZORIONAK!

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuarte esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

KULTURA

Emakume musikariak iruditan

- ▶ Emakume musikariei buruzko erakusketa Kulturaten ikusgai maiatzaren 31ra bitartean
- ▶ Argazkiez gainera, dokumentala, prentsako artikulua eta diskoen azalak batu dituzte

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Emakume musikariak euskal rock esparruan duen presentzia islatzea du helburu Emakume Sailaren eskutik maiatzaren 31ra bitartean Arrasateko Kulturateko klaustroan ikusgai dagoen *Emarock* erakusketak.

Euskal Herriko askotariko herri eta jaialdietako kontzertuetako zuzeneko argazkiez gainera, hainbat musikariri egindako elkarrizketekin egindako dokumentala, prentsan argitaratutako artikulua eta diskoen azalak ere batu dituzte Klaustroan.

Debagoienekoak ere bai

1999-2013 urte bitartekoak dira argazkiak, gehienak azken bost urteetakoak badira ere. Saioa Cabañas *Gautilunak* Bilboko

argazkilariarenak dira erakutsitako gehienak. "Emakumeek taularen gainean ondoen dakitena egiten erakusten saiatu naiz; kantuan ikusiko ditugu batzuk, instrumentuak jotzen beste batzuk. Rock esparrukoak dira gehienak, orainari eman diogu eta garrantzia. Hala ere, beste musika esparru batzuetako ikurrak diren musikariei ere egin diegu lekua. Hori horrela, badira nireak ez diren beste batzuk ere; horien artean, Maixa eta Ixiarrek utzitako argazki originalak", azaldu du Saioa Cabañasek, *Emarock* erakusketako koordinatzaile eta *Gautilunak* argazkilariak.

Tolosan iaz abiatutako erakusketa ibiltariak 70 musikariren 100 argazkitik gora ditu batuta, baina tokian tokiko moldaketak egiten dituzte; izan ere, Debagoieneko protagonistak ere jaso dituzte iruditan: Arrasateko Mery May, Ines Gose eta Ain 1 taldeenak eta baita Bergarako Emon taldeko garai bateko abeslariarenak ere.

Irudiez gainera, iritziak

Emarock-ek baina, musikariren ahotik jaso gura izan ditu bizipenak. Askotariko adin eta estilotako 16 emakumerekin ordubeteko elkarrizketa saioak grabatu zituzten hainbat gairen inguruan (amatasunaz, emakumearen rolaz, komunikabideen eraginaz...), eta horrela egin dute 40 minutuko dokumentala. Telebistaren pantailan ikusiko ditugun artean Ines Gose dago.

Gaurko ekitaldian, gainera, erakusketak irauten duen bitartean izango da dokumentala ikus-terko aukera.



Mery May bakarlarria. | SAIOA GAUTILUNAK



Ines Osinaga (Gose). | SAIOA GAUTILUNAK



Iraitz Agirre (Ain 1). | SAIOA GAUTILUNAK

Kontzertuak eta luncha gaur

Erakusketako atekak atzo zabaldu bazituzten ere, gaur, egubakoitza, 19:15ean hasita egingo dute inaugurazio jaia.

Kulturateko areto nagusian *Emarock* dokumentala erakutsiko dute, hainbat musika emanaldi akustiko tartekatuta. Arrasateko Ain 1 taldeko kideak, Ines Gose eta Kokein taldeko Zaloe eta Iker musikariak igoko dira aretoko taula gainera. Horren ondoren, luncha izango da erakusketa dagoen klaustroan.

SAIOA CABAÑAS | 'EMAROCK'-EKO KOORDINATZAILEA

"Emakumeak musikagintzan duen rola ezagutarazi nahi izan dugu proiektuaz"

Saioa Cabañas *Gautilunak* da *Emarock* erakusketako argazkilaria eta proiektuko koordinatzailea.

Nondik dator *Emarock*?

2010ean argazki erakusketa baterako enkargua egin zidaten eta emakume musikariei buruz egitea pentsatu nuen. Argazki gehienetako protagonistak abeslariak zirela konturatuta, musikagintzako beste arlo batzuetako protagonisten bila jo nuen hutsunea betetzeko asmoz; handik abiatu zen proiektua.

Erakusketa bat baino gehiago da.

Bai; alde batetik, emakumeak musikagintzan, bereziki rock esparruan, duen rola ezagutarazi nahi izan dugu. Horretarako, taularen gaineko zuzeneko irudiak

batu ditugu argazkietan, baina protagonistei ahotsa ere eman nahi izan diegu, elkarrizketatutako musikariren esanak dokumentalean bilduta. Baina badugu beste helburu bat ere: gehienontzako ezezagunak diren emakume musikariak arlo pribatutik atera nahi izan ditugu, taularen gainera igotzeko bultzada eta laguntasuna emanaz.

Ze harrera izan duzue?

Gustura gaude; gaiaz sekulako ezjakintasuna zegoela erakutsi ziguten iaz egin genuen lehiaketako emaitzek. Lehiaketa orain eginez gero, emaitza bestelakoa izango zelakoan nago; beraz, hasierako helburua bete dugu. Azpimarratu gura nuke, baina, ez dela soilik emakumeentzako erakusketa, musikazale guztiei egin gura nieke gonbidapena. Protagonistak ere pozik dira emaitzarekin; lanean jarraituko dugu, baina, asko dago eta egiteko oraindik.



A.A.



Arantzazu auzoa 38 - OÑATI
Tel.: 943 78 13 06
www.zelaizabal.com / restaurante@zelaizabal.com

- Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako leku paregabea.
- 180 gonbidaturendako jangela.



Zuen ezkontza gurean eginda,
DJaren emanaldia doan!



1898a ezker
ZUEN ZERBITZURA

Hiru urteren ostean bueltan da film laburren lehiaketa

Z.V.D.M. | BERGARA

Bergarako Udalak, hiru urteko etenaldiaren ostean, berriz ipini du martxan film laburren lehiaketa. Aurtengoa lehiaketa antolatzen duen bosgarren aldia izango da.

Debagoienera irekia

Ibarreko herritar guztiek daukate lehiaketan izena emateko aukera, eta lanak bakarka zein taldeka aurkeztu ahal izango dira. Gaia ere librea izango da; film labur bat egiteko aukera dute parte hartzaileek, edo dokumentala, bideoklipa... Irudimena erabiltzea eta ideia originalen bat izatea funtsezko zerbait izango da.

Epaimahaiaren osaketa sari banaketan emango dute ezagutzera. Aurkeztutako lan guztiak ikusi eta baloratu ondoren, bi sari banatuko dituzte: lan onenak 400 euro jasoko ditu eta bigarrenak, berriz, 300 euro. Hala ere, antolatzaileek aditzera eman dutenez, sari horietan bergararririk egon ezean, 150 euro emango dizkiote bergarar batek eginiko lan onenari.

Irailaren 24a, azken eguna

Interesatuak dagoeneko aurkez ditzakete euren lanak, eta horretarako azken eguna irailaren 24a izango da. Bergarako kultura etxean entregatu beharko dira 13:00ak baino lehen.

Zinema barrutik ezagutu nahi zuten 300 lagun joan ziren 'casting'-era

'Ocho apellidos vascos' filmeko eszena bat Arrasateko Al-Andalus elkartearen filmatuko dute.

A. A. / I.G. | ARRASATE.

Ikusmin handia piztu zuen atzo Al-Andalus elkartearen egin zuten Emilio Martinez Lazaro zinema zuzendariaren *Ocho apellidos vascos* filmean estra moduan parte hartzeko *casting*-ak. Debagoieneko zein kanpotik etorritakoen artean, batzuk eskarmentudunak, berriak beste batzuk, esperientzia edo lan bila etorritakoak.

Filmeko eszena batzuk Sevillan grabatuko diren arren, ekainaren hasieratik uztailearen 16ra bitartean, gehienbat, Gipuzkoako kostaldean filmatuko dituzte film luzearen eszena gehienak; tartean, Arrasatekoa.

'Casting' jendetsua

Goizeko 10etan ekin zioten filmeko *casting*-ari, baina ordu horren aurretik jende ugari joan zen Al-Andalus elkartera. Aretoko ateak ireki bezain laster jendeak bete beharreko inprimakietan datuak idatzi ondoren, aukeraketaren lehen fasera pasa ziren.

Hasierako argazki eta galderak tramite bat besterik ez zen izan, baina lehen fasea pasa zutenek kamera aurrean bigarren proba bat ere egin zuten gero. Pilotari, andaluziar, manifestazioko partaide... paper horietako bat eskuartzeko ahaleginetan guztiak. "Lagun batek mundu honetaz hitz egin eta hori ezagutzera etorri naiz. Horrez gain, papertxo bat



Casting-eko parte hartzaile bat, lehen froga egiten. | IMANOL GALLEGO

lortzen badut, orduan eta hobeto", zioen batek. Oso bestelakoa zen beste parte hartzaile batzuen istorioa: "Lanik gabe gauden bikotea gara eta ezer aurkitzen ez dugunez, ea egun batzuetarako lana lortzen dugun hemen". Egun osoan zehar, 300 lagunek baino gehiagok egin zuten proba.

Ezusteke dei bat

Duela bi domeka, San Isidro festak antolatzen zeudela, dei bitxi bat jaso zuten Al-Andalusen Lasarteko andaluziar egoitzatik. Emilio Martinez-Lazaro kokaleku bila zebilela eta lasartekoek Arrasateko egoitzari buruz hitz egin zioten.

Egun batzuk geroago, zuzendaria bere ekipo guztiarekin Arrasatera gerturatu eta harrituta geratu ziren, hark betetzen baitzituen bila zebiltzan ezaugarri guztiak. Al-Andalus elkarteak Rafa Gomezek esan duenez, zuzendariak, oholtzaren eszena grabatzeko, hiru aukera eman zituen: "Al-Andalus, Al-Andalus edo Al-Andalus". Hori horrela, uztailearen 13an Sevillako oholtza flamenko bihurtuko da Arrasateko egoitza. "Aldaketa batzuk egin beharko dituzten arren, gehiena bere horretan utziko dute", zioen Gomezek.

Al-Andalusen ere filmatuko dute

Rafa (Dani Rovira), andaluziar señoritoa, neska euskaldun batekin (Clara Lago) maitemindu da Sevillako oholtza batean, eta Euskal Herrira dator haren bila. Euskalduna dela erakutsi beharko dio haren aitari (Karra Elejalde), haren onospena jasotzeko; abentura horretan, Extremadurako lagun baten (Carmen Machi) laguntza izango du.

Ekainaren 1etik uztailearen 16ra arte errodutuko dute Euskal Herriko hainbat herritan; besteak beste, Arrasateko Al-Andalus elkartearen 13an Sevillako oholtza bihurtuko dute.



MIRARI GARITAONANDIA
ARRASATE

"Astero etortzen naiz sevillan dantzatzera eta horrela jakin nuen probaren berri. Uztailearen 13an etortzeko esan didate beste proba batera".



MIKEL ALBERDI
ARETXABALETA

"Manifestazioan dagoen ertzain baten papera eman didate. Filmeko arropak jantzita, moldatuko naizela uste dut. Erraza iruditu zait".



NAGORE PEREZ
ARRASATE

"Fitxa bete ondoren argazkia atera eta hainbat galdera egin dizkidate. Ez didate data zehatzik eman; beraz, ez dut uste hartuko nautenik".



FLORIAN TUDOR
EKOIZTETXEOA

"Izugarrria izan da! Lehen egunean aste osoan lortu nahi genuen jende kopurua hurbildu zaigu; edozelan ere, ez dugu *casting*-a amaitu".



AUZO LAGUN, KOOP.E. - ARRASATE

Estatutu Sozialen 32. artikulua dioenaren arabera, Ohiko Batzar Orokorrerako deia egiten da.

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

DATA: 2013ko maiatzak 25.

ORDUA: 10:30ean, lehen deialdia.
11:00etan, bigarren deialdia.

TOKIA: Garaia Berrikuntza Gunearen Auditorioa (Arrasate).

GAI - ZERRENDA

- 2012ko BATZAR OROKORREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA, ETA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA.
2. MEMORIAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.
 - 2012ko Kudeaketari buruzko akordioa.
 - 2013ko Kudeaketa Planaren onarpena.
 - 2013-2016 eperako Plan Estrategikoaren onarpena.
- 2012ko KONTUEN ETA BALANTZEAREN AZTERKETA.
- SOBERAKIN GARBIEN BANAKETA.
- EKONOMIA ARAUBIDEARI BURUZKO ESTATUTUEN XEDAPENAK.
 - Sarrera kuotak eta ekarpena.
 - Kapitalari egindako ordainketa.
 - IPDK aplikatzeko irizpideak.
- KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK.
- MONDRAGON TALDEARI ETA ERKOP KOOPERATIBARI BURUZKO TXOSTENAK.
- BALIABIDEEN BATZORDEKO ETA KONTSEILU ERREKTORE KIDEAK BERRITZEA.
- GALDERAK ETA ESKARIK.

Susana Roa.
Lehendakaria

2013ko maiatzaren 15a

Gaztetxoendako X Kirolak bideo lehiaketa gazte txokoen eskutik

A. ARANBURURZABALA | ARRASATE

Aurten ere Arrasateko gazte txokoen X Kirolak (skate, mikropatin, BMX, roller...) bideo lehiaketa antolatu dute, Arraska skate taldearen laguntzaz. Parte hartu gura duten 12 eta 17 urteko gazteek minutu eta hiru minutu arteko bideoa grabatu beharko dute, Youtubera igo gero eta

lotura bidaliko beharko dute gazteak@txatxilipurdi.com helbidera, ekainaren 13a baino lehen. Antolatzaileek sari bikainak iragarri dituzte, Nothing Without dendaren eskutik.

Euskaraz eta originalak

Bideoek hizkuntza edukieraren bat izatekotan (musika, ahotsa,

elementu grafikoak ...), horiek euskaraz behar dute izan. Era berean, bideoek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute eta ez dute onartuko aurrez beste lehiaketaren baten aurkeztutako lanik, ezta bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa eta errespeta falta dutenik ere.

Lanak gazte txokoetako blogean sareratuko dituzte: <http://goiena.net/blogak/gaztetxokoak>. Epaimahai gazte txokoetako gazte eta Arraskako elkarteak kideek osatuko dute.

Arrasate Literatura Lehiaketako irabazleek jaso dituzte euren sariak

Kulturaren banatu zituzten; Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria bertan izan zen

GUREN AUZMENDI | ARRASATE

Atzo, eguena, banatu zituzten Arrasate Literatur Lehiaketako sariak. Kulturaren egindako ekitaldian ezagutarazi zituzten AEDK antolatutako sariketako irabazleen izenak.

26. edizioko sari-banatzea Kulturateko areto nagusian izan zen, arratsaldean; adin-tarte bakoitzeko irabazleek euren sariak hartu zituzten: ipuinean, poesian eta bertso-paperean. Aurten, epaimahaiak 198 lan jaso ditu.

Ipuinean, Malen Arana, Ane Arrieta, Iruñe Loza eta Iñaki Goitia nagusitu dira.

Poesian irabazi dute Ainhoa Barberan, Leire Etxezarreta eta Ana Muñozek.

Bertso-paperean, azkenik, saria eraman dute Jokin Godoi, Ixak Sarasua eta Ane Zuazubizkarrek.

Antolatzaileek sariketaren balorazio positiboa egin dute. Aurten, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, Arrasatetik kanpoko

lanak ere onartu dituzte; Bergarako, Oñatiko eta Eskoriatzako jendea aurkeztu da. Dena den, sari batzuk eman gabe gelditu dira.

Uxue Alberdi, ekitaldian

AEDKok Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria gonbidatu zuten. Bertaratu zirenek haren literatura-ibilbidearen nondik norakoak ezagutzeko aukera izan zuten. Horretaz gain, idazlea gertuagotik ezagutu ahal izan zuten.

Antzerki-ikastaroa izango da Aramaion asteburuan

Doke antzerki-taldeak antolatu du; Ana Perez irakaslea etorriko da testuak lantzen irakastera

G.A. | ARAMAIO

Antzerki-ikastaroa antolatu du Doke antzerki-taldeak. Asteburuan, hilaren 18an eta 19an, izango da, Aramaion. Ana Perez irakaslea izango da bertan eta testuak lantzen ikasiko dute.

Urtero antolatzen du Doke taldeak antzerkia lantzeko ikastaro bat, eurentzat eta interesa duen jendeari formazioa emateko asmoz. Aurtengoa asteburu honetan izango da, Aramaio kultura-aretoan. Mariasun Pagoaga Doke taldeko kideak esan du testuak moldatzen ikasiko dutela. Haren esanetan, antzerkian gai hori oso garrantzitsua eta oinarrizkoa da: hitzari zer ukitu ematen zaion. Ikastaroan, testuak ondo ulertu eta memorizatzen ikasiko dute, baita buruz ikasitako hori era egokian adierazten ere. Horretarako, Ana Perez irakaslea ekarriko dute. Maila handiko irakasle horrek hogeitertetik gora daramatza antzerkiaren munduan, eta bigarren izango da Dokekoekin lanean. Egun, Donostiako Arte Eszenikoen Tailerreko koordinatzaile eta kudeatzaile da.



Doke taldearen entsegua. | MAIDER ARREGI

Interesa duen edonorentzat

Mariasun Pagoagak esan du ikastaroa kalitate handikoa dela eta antzerkiarekin interesatutako guztientzat aproposa; obra bat moldatzen jakiteak aukera asko ematen dizkiolako antzezleari. Eta plazak mugatuak badira ere, oraindik tokia bada. Kurtsoa trinkoa izango da: zapatuan, 10:00etatik 18:00etara; eta domekan, 09:30etik 14:00etara. Bada, interesatuek koxmezubia@gmail.com helbidera idatzi behar dute izena emateko. 50 euro balio du bi eguneko kurtsoak, kostuak estaltzeko.

SARITUAK

IPUINA

LH5-6

1. Malen Arana Errasti
2. Koldo Zubia Salas

DBH1-2

1. Ane Arrieta Umerz
2. Judith Zubia Aranburu

DBH3-4

1. Iruñe Loza Quintero
2. Ander Arregi Altuna

BATXILERGOA ETA HELDUAK

1. Iñaki Goitia Lukas
2. Ainhoa Barberan Garai

POESIA

LH5-6

1. Ainhoa Barberan Garai
2. Alaitz Barrutia Ezpeleta

DBH1-2

1. Hutsik
2. Hutsik

DBH3-4

1. Leire Etxezarreta Learreta
2. Ane Zuazubiskar Iñarra

BATXILERGOA ETA HELDUAK

1. Ana Muñoz Txintxurreta
2. Elene Etxaniz Agirre

BERTSO-PAPERA

LH5-6

1. Jokin Godoi Gutierrez
2. Josu Fradejas Rodriguez

DBH1-2

1. Ixak Sarasua Antero
2. Jone Perez Moreno

DBH3-4

1. Ane Zuazubiskar Iñarra
2. Hutsik

BATXILERGOA ETA HELDUAK



1. Hutsik
2. Hutsik

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757
www.servimasa.com

**Birziklitzeko erraztasunak ematen dizkizugu.
Zatoz eta informa zaitez!**





Andere Arriolabengoa,
Aramaioko kultura etxeko
eserlekuetan.

Andere Arriolabengoa | Bertsolaria

"Bertsolaritza bertsoak botatzea baino gehiago dela esan daiteke; benetako mugimendu bat"

RUBEN CUESTA | ARAMAIO

Andere Arriolabengoa (Aramaio, 1982) abokatua da, eta baita bertsolaria ere. Aurten, Arabako Bertsolari Txapelketan finalurrekoetara heldu da –bere herrian egin zen–. 289 puntu eskuratu zituen, eta bertsolaritzari buruzko solasaldia egiteko denbora eskaini digu.

Bertsolaritzan urte asko daramatzazu, baina nondik jaso zenuen bertso-zaletasuna?

Etxean betidanik entzun izan ditugu bertsoak. Gure amamak ohitura zuen bertsoak kantatzeko, eta aitak ere zaletasun handia izan du. Ongi gogoratzen dut lo egiterakoan amamak kantatzen zidala *Markesaren alaba*.

Nola hasi zinen eta zerk motibatzen zaitu bertsotan aritzera?

Bertsotan kasualitatez hasi nintzen. Gogoratzen dut ostiral arratsalde baten, Aramaion geundela, Gasteiztik etorri behar zuela neska batek bertso eskolak ematera, eta ez zegoela inor. Hori ikusita, lau edo bost gazte animatu ginen bertara joateko. Gainera, asko erakartzen nauen mundua da. Kolektibo bezala euskalgintzan eta euskal munduan jarduteko beste modu bat da.

Nola ikusten duzu emakumea bertsolaritzan gaur egun?

Egia da emakume kopurua igo egin dela aurreko urteekin alderatuta. Eta Maialen Lujanbioren presentzia eta indarra oso garrantzitsua izan da neska gazteak bertsotara animatzeko. Gai honen inguruan oso jantzita daude Uxue Alberdi bertsolari elgoibartarra

eta Maialen Lujanbio. Gainera, orain, hitzaldi interesgarriak egiten ari dira gai honen gainean.

Aurten 20 urte Arabako Bertsolari Elkarte eratu zela. Ze balorazio egiten duzu Araban bertsolaritzak egin duen ibilbideaz?

Balorazio positiboa egiten dut. Hasierako garaian lau euskaltzale biltzen ziren Abel Enbeitaren baserrian, eta geroago Txustan, Arabako Bertsolari Elkarte sortu arte. Eta azken 20 urteetan izandako aldaketa oso agerikoa da. Orain, mugimendu handia dago; esan daiteke haziak sustraiak bota dituela. Hasiara baten, Araban bertsolaritza arrotza zen, eta gaur egun, bai jaietan bai zirkuitu ez ofizialetan, mugimenduak presentzia handiagoa du.

Aurten Bertsolari Txapelketa Nagusia izango da. Nolako txapelketa aurreikusten duzu?

Normalean, oso hunkigarria izaten da. Jai handi bat da, bai bertsolarientzat, bai bertsozaleentzat. Eta nik espero dut aurten horrela bizi izatea. Argi dagoena da bertsolaritzak azken urteetan *boom* -a bizi izan duela, batez ere Euskal Herriko finaleran, milaka pertsona biltzen baitira.

Bertsolariek oholtzatik zer ikusten eta sentitzen duzue?

Plazako saio baten, esaterako, ondo pasatzen saiatzen naiz eta lasaitasun handiagorekin hartzen dut. Txapelketetan, berriz, ez naiz inguruan gertatzen denaz horrenbestearaino ohartzeko, oholtza gaineko munduan sartuta egoten naizelako. Izan ere, horrelakoetan, gai-jartzailea, bertso-kideak eta ni neuz gaude, eta ez dut gehiagorik ikusten.

Bertsolaritzako teknikak bizitzaren beste esparru batzuetan erabiltzen dituzu?

Ahal dudanean, bai. Adibidez, jendaurrean hitz egiten dudanean edo ikastaro bat ematea egokitu izan zaidanean.

Zein izan da gai-jartzaile batek jarri dizun gairik bitxiena?

Behin, oholtza gainean geundela, gai-jartzaileak bertsolariei begiak estali, eta asmatu behar izan genuen ze espezia ari ginen probatzen. Eta horren ondoren, bertsotan asmatu behar izan genuen ze espezia ziren.

Eta amaitzeko, zer esango zenieke gazteei bertsotara animatzeko?

Bertsolaritza bertsoak botatzea baino gehiago dela. Benetako mugimendu bat. Gainera, oso aukera ona da jendea ezagutzeko, Euskal Herriko txokoak ezagutzeko, eta euskal kulturara eta historiara hurbiltzeko modu ona da. Oso aberasgarria da.

PERTSONALA

Bidaiatzeko toki bat: Istanbul.

Janari gustukoena: Arroza.

Telefono dei pozgarriena: Esan zidatenean Manex aita zela.

Musikari gustukoena: Andres Calamaro.

Film gustukoena: Stanley Kubrick-en *La naranja mecánica*.

Liburu gustukoena: Toti Martínez de Lezearen *Las torres de Sancho*.

Beldur bat: Bakardadea.

Amets bat: Euskaraz bizi ahal izatea.

RUBEN CUESTA

PAZKOAK 2013



**Bergara
jaietan!**

JOSETXO ARANTZABAL

IMB ESTUDIOA

BARNE DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ALTZARIAK





**ondo
pasau
jaixetan!**

**Ariznoa • Azpeitxi • Bule • Etxagi • Euxebio II
Iraho • Irish Pub Galways • Kai • Kayak
Toki Ona • Usua • Zunbeltz**

AGURRA

JESUS ELORTZA
Bergarako alkatea



Alkatearen agurra

A tzo bertan agurtu genuelako sentsazioa dugun arren, hemen dugu berriz Bitorianatxo, ate joka. Pentekoste jaiak bertan daudela gogorarazten ari zaigu. Jaietako 5 egunok ezin hobeto pasa ditzagun eta, urtero legez, gure ingurukoekin –etxe, lagun, auzoko...– ospa ditzagun opa digu.

Izan daitezela jaiok geldidune bat gure eguneroko zoro horretan. Balia ditzagun bizitzak eskaintzeko duen guztiak gozatzeko: adiskidetasuna, elkartasuna, solidaritatea, berdintasuna...

Goza dezagun jaietz bergararrok dakigun eran: geure buruarekiko, besteekiko eta inguruarekiko errespetuan.

Nire eskerrik beroenak aurtengo egitarau honek aurrera egin dezan parte hartu duten guztiak eta gauza dadin lanean jardun duten norbanako eta elkarteak (udal langileak, elkarteak, hainbat kolektibo, txosnak...). Zuen lanak eta esfortzuak egiten dute posible beste guztiok jai hauetaz gozatzeko aukera izatea: eskerrik asko! Era berean, esker mila Guti eta Felisi urte luzez Bergara jai giroan murgiltzeko egin duzuen ahalegin eta ekarpen handiagatik. Aurten Pentekoste jaiak hasiera emango dien suziria piztea zuen kontu. Zuek piztutako sua ez dezala inork ez ezerk itzali.

Ez ditut ahaztu nahi egun berezi hauetan euren eta gure borondatearen kontra gurekin egongo ez direnak.

Eurei eta bergarar guztiak agur bero bat.

Jaietako egitaraua

EGUBAKOITZA

17

15:00 Ikasle bazkaria TXOSNAGUNEAN.

20:00 Jaiak hasiera emateko TXUPINAZOIA eta Bitorianatxoren jaiak San Martin plazan.

Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, herriguneko kaleetan San Martin plazatik irtena.

21:00 Elektrotxarangarekin KALEJIRA San Martin plazatik irtena.

Iluntzean Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA.

21:00 Bideberrin TXOSNEN IREKITZEA.

22:30 Kontzertua Bideberrin: 2zio, Fiachras eta Gozategi.

23:00 Dantzaldia Lotxo taldearekin San Martin plazan.

00:00 BERGARAKO BOLO TXAPELKETA San Joxepe elkartearen, Bergara Bolo Kirol Klubek antolatuta. Bolatokia 21:00etatik zabalik egongo da.

ZAPATUA

18

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 €.

10:00 33. HAUR ETA GAZTEEN PLASTIKA SARIKETA, Beart elkartearekin, San Martin plazan.

10:00 DIANA. Oxirondotik Maddi Alberdi eta Mireia Ibabe Bergarako trikitilariak; Bolutik Elgoibarko dultzaineroak; Labegaraletatik Udaltxistulari Banda. Ondoren herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Mizpirualdera egingo dute bisita.

11:00 Herriko elkartearen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan. Sukaldarietako lapiko eta amantak: Lacor-ek emandakoak. Herriarrentzako MOKADUA etxe hauei eskerrak: Konde, Mizpildi, Ogizun eta Olabe okindegiak; Comercial Miner, Lopez-Ojeda (Atxega), Manso Hermanos eta Txomin Zubeldia edari banatzaileak; Antia, Igartza, Joseba, Sebastian Imaz eta Urzelai harategiak.

12:00 "Pentekosteetara ONGIETORRIA emateko ekitaldia", iazko Pentekosteetatik hona mundura etorri diren bergarar txikitxoei, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ondoren, argazki bateratua ateratzea udaletxe kanpoaldean, artxibo aldeko eskaileretan.

12:30 TALOAK egiteko umeentzako tailerra San Martin plazan.

13:30 Bakailao lehiaketako SARI BANAKETA San Martin plazan.

13:45 Haur eta gazteen plastika lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan.

14:30 Bertso bazkarixa Alaia Martin eta Aitzol Barandiaranekin, txosnagunean.

17:00 Gipuzkoako BOLO TXAPELKETA San Joxepe elkartearen.

18:30 ERREKORTADORE GAZTETXOEN TXAPELKETA 16 urtetik beherakoentzat, eta ondoren 16-20 urte bitarteko ERREKORTADORE GAZTEEN TXAPELKETA Seminarioko zezen-plazan. Sarrera: 2€.

18:15 Haurrentzako BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.

18:30 Bergarako ERRALDOIEN KONPARTSAKO KALEJIRA

Bergarako kaleetan Elgoibarko dultzainero eta Udaltxistulari Bandaren laguntzarekin. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon M. Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herri Lagunak, D. Irala, Barrenkale, San Martin plaza.

20:30 – 21:30 DANTZA PLAZA Kupela taldearekin San Martin plazan.

22:30 DJON URBIETA Seminarioko zezen-plazan.

23:00 KONTZERTUA Bideberrin: Gauka, Iheskide eta Kop taldeak.

23:30 BERBENA Kupela taldearekin San Martin plazan.



Bakailao lehiaketa eta mokadua izango dira egubakoitzean. | GOIENA



Bitorianatxo jaistearekin bat hasiko dira jaiak. | GOIENA

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



“Punta puntako teknologia zuen eskuetan”

20 urte baino gehiago zuekin Bergaran, eskerrik asko danoli

Tel.: 943 76 56 88 - Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

ondo pasau
jaietan!



DOMEKA

19

08:00 ALBORADA Udal Txistulari Bandarekin.

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2€.

09:00 Pentekosteetako XAKE TXAPELKETA udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

09:00 TXIRRINDULARI LASTERKETA, Pentekosteetako Saria Lehendakari trofeoa. Irteera eta helmuga: Labegaraieta. Antolatzailea: Lokatza.

10:30 – 14:00 FUTBOLIN erraldoia San Martin plazan.

12:30 Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoloian. Egitaraua:

Arsenal (J.V. der Roost)
Marcha eslava (P. Tchaikowsky)
La Traviata (Operako selekzioa; G. Verdi; bere jaiotzaren 200. urteurrenean)
Green hills fantasy (T. Doss)
Sinatra (Moldaketa: S. Bulla)
Soul Bossanova (Q. Jones)
Bergarako ereserkia (A. Gz. Chirlaque)
Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque.

16:00 GOITIBEHERA TXAPELKETA San Martzialgo bidean.

17:00 APAR FESTA Munibe plazan.

17:30 36. EUSKADIKO DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA, 16 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan, Moiazpi dantza elkarteak antolatuta. Udal Txistulari Bandak eta trikitilariak lagunduko dute.

18:00 Irrien Lagunak, txosnagunean.

18:30 EUSKAL HERRIKO ERREKORTADOREEN IKUSKIZUNA zezen-plazan. 3 €.



Iazko jaietatik hona jaiotako bergarrei ongietorria egingo diete. | GOIENA

19:30 – 21:30 Herrixa Dantzan ERROMERIA Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin eta Patxi Montero dantzariarekin San Martin plazan.

20:00 Anje Duhalderekin kontzertua txosnagunean.

23:00 Korto lehiaketa txosnagunean.

ASTELEHENA
KOADRILEN EGUNA

20

11:30 TABERNEN ARTEKO HERRI KIROL EN TXAPELKETA zezen-plazan, Xapre eta Zarra trikitilariak eta Incansables txarangak animatuta.

12:30 DANTZALDIA Nuevo Talisman orkestrarekin Espoloian.

14:30 HERRI BAZKARIA San Martin plazan, DJ Anjieren animazioarekin. (Euria egiten badu Labegaraietako Kiroldegian). Ondoren, kafe-kantu saioa. Adin txikikoei bazkarian ez zaie

alkoholdun edaririk banatuko. Koadrilan jarri nahi duzuenok denok taldean agertu beharko duzue bazkaltzera, mahaien antolaketa ez oztopatzeke.

18:00 DJ Thobeen eta Lore Power-ekin GAZTETXOENTZAKO JAIALDIA Munibe plazan.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA ZEZENTXOEN zezen-plazan. Sarrera: 2€.

19:00 BERGARA HIRIA PILOTA PARTIDETAKO FINALAK Udal

Pilotalekuan. Antolatzailea: BKEko Pilota saila.

19:00 Kontzertua Bideberrin: Laket.

23:00 DANTZALDIA Basajaun taldearekin San Martin plazan.

23:00 CAMP DANTZALDIA Nuevo Talisman taldearekin Espoloian.

00:00 Kontzertua Bideberrin: Emon eta DJ Bull.

MARTITZENA
UMEEN ETA HELDUEN EGUNA

21

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2€.

11:00 - 14:00 HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-n. Rokodromoa, ohe elastikoak, juninga, puzgarriak...

12:00 HERRI KIROL ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Ernesto Ezpeleta *Bihurri* eta Hodei Ezpeleta aizkoran, Karlos Ruiz de Aretxabaleta eta Ana Berasategi iparraldeko jokoekin eta Joseba Ostolaza harri jasotzen. Ondoren, herri kirolen tailerrak ikusleentzat.

12:30 – 14:00 VOCES NAVARRAS jota eta abesti latindar emanaldia Domingo Mz de Irala kalean.

17:00 – 20:00 HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan.

17:00 Aspe pilota enpresak antolatutako lehen mailako pilota jaialdi profesionala.

18:00 BINGO erraldoia eta mus txapelketa Munibe plazan (euria eginez gero, San Martin plazako arkupeetan). Sari bikainak izango dira. Mus txapelketarako izena eman beharko da txapelketa baino ordu bete lehenago Munibe plazan.

18:00 Baltsa jaiatsiera. Jarraian, sorpresak!

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA ZEZENTXOEN zezen-plazan, Incansables txarangak alaituta. Sarrera: 2 €.

20:00 – 21:00 eta **22:30-00:00** DJ FESTA DJ Oihan Vegarekin San Martin plazan.

00:00 BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.

00:15 – 00:30 DJ FESTA DJ Oihan Vegarekin San Martin plazan.



Hainbat estilotako kontzertuak izango dira Bideberrin. | GOIENA



Raizababal gozotegia

1908tik zuekin
eskerrik asko guztioi

eta ondo pasau jaixak!

Artekale 9 Tel.: 943 76 11 83



Orain, Super Amaran ere bai!

Ondo pasa Pazkoetan!

Ibargarai 24 Bergara
Tel.: 943 76 70 29

Mikel Almortza | Bolo jokalaria

"Garai bateko festak erromeria, txosna bat eta boloak izaten ziren"

Gipuzkoako mendebaldean eta Bizkaiko ekialdean jokatzen den bolo jokia da hiru txirlo

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Mikel Almortza, (Bergara 1977) bolozale porrokatua da. Gazte denboratan hiru txirlo jokoan askotan ibilitakoa da. Orain dela urte batzuk, gaztetako jokia berreskuratzen ari da. Pentekoste jaietako berezia izango dela onartu digu.

Nolatan bururatu zaizue bolo jokia jaietan egitea?

Ohitura bat berreskuratzeko egin dugu. Lehen, ohitura handiagoa zegoen. Orain, festetan hamaika ekintza ezberdin egiteko aukera dago, baina lehenengo festak erromeria, txosnaren bat eta boloak izaten ziren.

Hortaz, boloak herrian oso errotuta egon ziren?

Bai. Gainera, hemen, Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugan, joko berezi bat zegoen, hiru txirlo izenekoa. Duela urte batzuk, lagun koadrila batekin berriro jokatzen hasi ginen Elgetako bolatokian. Orain, jokia Bergarara ekarri nahi izan dugu.

Non izango da txapelketa?

San Joxepe elkarteko bolatokian izango da. Lehen, herri gehienetako auzo bakoitzean bolatoki bat zegoen, baina gehienak desagertu egin dira.

Egubakoitzean eta zapatuan jokatuko duzue.

Bai, hala da. Dena den, desberdina izango da. Egubakoitzekoa, txapelketa baino gehiago, jolasa izango da. Ligaxka moduko bat jokatuko dugu, beroketa modura. Hiru txirlo jokia ezagutzeko aukera izango du. Joko erraza da; jokalaria bakoitzak bi tiraldi egiten ditu eta biak batuta txirlo gehien botatzen dituenak irabazten du. Jokalariak euro bat edo bi ordaindu beharko dituzte eta irabazleak zakuan dagoena irabaziko du. Bakarkako lehen fasearen ostean txapelketa egingo dugu. Horretan bost euro ordaindu beharko dira eta sariak emango ditugu. Zapatu arratsaldean, berriz, Gipuzkoako txapelketa jokatuko dugu.

Txapelketa denez, federatuta egotea beharrezkoa da?

Ez, ez. Egia da txapelketa Gipuzkoan zehar egiten dela eta txa-



Hiru txirlo jokia Bergaran berreskuratzen dabil Almortza. | IMANOL GALLEGO

pelketa osoa irabazteko guztietara joatea beharrezkoa dela, baina Bergarako saioa irabazteko ez. Izan ere, edozeinek parte har dezake.

Zer moduz doakizue txapelketa?

Bueno, ez dizut gezurrik esango, ez gaude lehen postuetan. Hala ere, duela aste pare bat, Igor Larrañagak Elgoibarren banako txapelketa irabazi zuen.

Hortaz, oso joko irekia da?

Irekia eta erraza. Guztiek arin ikasiko dute.

Jende asko espero duzue?

100 bat lagun espero ditugu. Lehenengo jokalariez gain, ziur gaude gazteak ere etorriko direla.

Akaso, bultzada honekin, Joko Olinpiarretara iritsiko da hiru txirlo jokia?

Londresera berandu iritsi gara, baina Rio de Janeirora joateko prest gaude. Kar-kar-kar.

"Lehen, bolatoki gehiago zeuden, baina asko desagertu egin dira"

"Adineko jendeaz gain, ziur gazteak ere animatuko direla"

PANADERIA Y PASTELERIA ARTESANA

KONDE

PANADEROKUA



**Pazko jai zoriontsuak
bergarar guztioi!**

Burdiñate 11 Tel.: 943 76 02 57
Tokieder plaza 3 Tel.: 943 76 14 87
BERGARA



Pentekoste jaiak antolatzen buru-belarri ibili dira Felix eta Guti. | RUBEN CUESTA

ESANAK

"Edozein laguntza behar badute, gu beti egongo gara prest"

FELIX IÑIGUEZ DE HEREDIA

"Jaiak antolatzea lana da, baina momentu politak bizi izan ditugu"

LUIS MARI GUTIERREZ

Gutierrez eta Iñiguez de Herediari omenaldia

Luis Mari Gutierrezek eta Felix Iñiguez de Herediak 33 urte daramatzate Bergarako jaien alde lan egiten

RUBEN CUESTA | BERGARA

1979ko ekainean, manifestazio antinuklear batean, Guardia Zibila Gladys del Estal hil zuen; urte hartan, Bergarako jaiak bertan behera gelditu ziren. Jai batzordea desegin egin zen eta hurrengo urtean, 1980an, Udalak elkarte

gastronomikoetako kideei deialdia egin zien jai batzordea osatu eta herriko jaiak antolatzeko. Urte hartan hasi ziren Felix Iñiguez de Heredia eta Luis Mari Gutierrez lanean Bergarako jaien alde. 33 urte pasatu dira harrezkero, eta, Pazkoetako martitzenean, Bito-

rianatxoren igoerarekin, "erretiro momentua helduko da", adierazi du Gutierrezek.

Denetik egiteko aukera izan dute. Iñiguez de Herediak hainbat besarkada eman dizkio Bitorianatxori. San Martzialetan makina bat ardo kupel bete izan ditu

eta Bizarzuriri lagundu izan dio Gabonetan herriko umeen gutunak jasotzen.

Gutierrezek, berriz, hamaika bonba japoniar bota izan ditu. Gainera, danborradetan zuzendari lanetan ibili izan da, eta Erregeei kabalagan laguntzen, San Martzialetan eta musika bandarekin lan egiten.

Ibilbide luze horretan hainbat anekdota biltzeko aukera izan dute. "Orain dela 25 urte, Bitorianatxo jaisten ari zela, pita trabatu egin zen. Hori konpontzeko, metxeroa hartu eta pita erre genuen", azaldu du Gutierrezek. "Geroago, Bitorianatxo oso bizkor jaitsi" zela gaineratu du.

Idea onak izan dituzte. Esate baterako, "orain dela 20 urte oso jende gutxi joaten zen San Martzial eguna ospatzera. Orduan, txaranga gora eramatea erabaki genuen, eta ordutik hona herritar

asko animatzen dira San Martzial egunean. Jendez lepo egoten da", azpimarratzen du Gutierrezek.

Ongi gogoratzen dute "sokamuturreko zezen batek ihes egin zuenean. Gutxi gorabehera, orain dela 30 urte izan zen".

Parte hartzea ezinbestekoa


Nahiz eta jaiak antolatzea lan handia izan, "momentu dibertigarriak" izan dituzte. Bergararrak animatzen ditu jaietako prestaketa parte hartzera, eta baita antolatzen diren ekintza ezberdinetan ere.

Nahiz eta hemendik aurrera antolakuntza lanetan ez ibili, zera esan du Iñiguez de Herediak: "Laguntzarik behar badute, gu beti egongo gara prest edozein ekitaldi antolatzeko laguntzeko. Izan ere, herriko jaiak aurrera atera ahal izateko parte hartzea ezinbestekoa da".

1942a ezker

San Juan bazoa
BERGARA

Tel.: 943 78 35 44 • Faxa: 943 78 51 38

Web orria: www.ibili.net**Zorionak bergararroi!**

3,60 kilo

comercial **BRUNET**

ECHO
Europar salduena
Etorri ikustera

sasi-garbitzeko makina,
pizte errazarekin

Jean Louis David

Ile Apain

Astelehen, astearte eta azteazkenetan

%20_{ko}

deskontua ile-apaindegian*

Ibargarai 43 - Bergara • 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com

Astelehenetik Ostegunera:
 09:30 - 12:00 / 15:30 - 18:30
 Ostirala: 09:30 - 18:30
 Larunbata: 08:30 - 12:30

*Deskontuak ez ditu produktuak barne hartzen.
 Jai bezperatan ez da aplikagarria.

Ondo pasau Pazkoetan!



TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
 ipintzera arte dena gure esku
 Fabrikako preziotan



Elgeta bidea,
 gasolindegitik
 300 metrora
 • BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
 Astelehenetik
 larunbatera
 10:00etatik 13:00etara
 eta
 16:00etatik 20:00etara
 zabalik



- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK



Egitarau oparoa umeendako

Apar festa, taloak egiteko tailerra, jolasparkea eta eskaintza gehiago izango dituzte umeek jaietan



Taloak egiteko tailerra antolatzen duen enpresa lanean. | PIKUPE PRODUKZIOAK

JONE ALBENIZ | BERGARA

Aurtengo jaietan ere herriko txikienek askotariko aukerak izango dituzte ondo pasatzeko.

Bitorianatzok jaiei hasiera eman bezain pronto izango dute umeek ekintza desberdinez disfrutatzeko aukera. Aurten, gainera, berritasun bat ere izango dute: taloak egiteko tailerra, hain zuzen ere.

Urtero bezala, barraken irekiera gaur, hilak 17, Bitorianatzoren jaitsieraren ostean izango da. Bada, barraken prezioa hauxe izango da: gehienez, 1,80 euro bidaia bakoitzeko; zazpi bidaiako bonua, 9 euro; eta umeen ferien kasuan, sei bidaiako bonua, 7 euro.

Taloak egiten ikasteko aukera
Berritasun modura, bihar, 12:30ean, taloak egiteko umeentzako tailerra egongo da San Martin plazan. Horretan diharduen enpresa batek eskainiko

du ekintza berri hori, eta, esan diguten moduan, "proiektuaren helburuak eskualdeko kalitateko eta betiko produktuen kultura bultzatzea da. Prozesua ezagutzeko, umeek taloak pres-

tatu eta ondoren jan egingo dute."

Tailerrak hiru zati izango ditu: lehenik eta behin, umeak taldetan banatuko dira, eta, taloaren prozesua ezagutzeko,

haren inguruko sarrera laburbat entzungo dute. Horren ondoren, pausoz pauso taloak egingo dute. Umeek euren izena jarriko diote taloari zotz batekin. Amaizteko, taloak plantxa gainean jarri

eta ondoren umeek eurek egingo dako taloak jango dute.

Bergarar berriei ongietorria

Bihar, hilak 18, Pentekoste jaiei ongietorria emateko ekitaldia egingo dute.

Hirugarren urtez, iazko Pentekosteetatik hona mundura etorri diren 117 txikitxoei ongietorria egingo diete, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Horren ondoren, oroigarri gisa, argazki bateratua aterako dute udalteearen kanpoaldean dauden artxiboko eskaileretan.

Jolasparkea

Martitzenean Umeen Eguna da eta ekintza desberdinez osatutako jolasparkea egongo da Ipintzako II. patioan. Goizean 11:00etatik 14:00etara egongo dira. Arratsaldean, berriz, 17:00etatik 20:00etara. Rokodromo bat, ohe elastikoak eta jumpinga egongo dira, besteak beste.



EKAIN OLAZIREGI
10 URTE

"Egia esan, jaiak heltzeko gogo handia daukat. Barraketan ibiltzea asko gustatzen zait, baina zezenak ikustea eta buruhandien aurretik korrika ibiltzea oso dibertigarria da".



ENEKA ETA PERU MONDRAGON
5 ETA 3 URTE

"Bitorianatzoren jaitsiera ikustea asko gustatzen zaigu. Barraketan, berriz, herensugea eta autoak gustatzen zaizkigu. Buruhandien atzetik ere gustura asko ibiltzen gara".



AITOR ESNAOLA
12 URTE

"Jaiak heltzeko irrikan nago. Barrakak, musika... buruhandien ere gustura ibiltzen naiz. Koadrilakoak *Deabru amorratuak* kamisetarekin irtengo gara aurten ere".

MAI-ko APLIKAZIOA ZURE MUGIKORREAN!
300 eta 500 Euroko prezioa, 3000 eta 5000 Euroko, 10000 eta 20000 Euroko, 30000 eta 50000 Euroko, 60000 eta 100000 Euroko, 150000 eta 300000 Euroko, 500000 eta 1000000 Euroko.

http://www.imaituna.com

Eskeintzen dituzten aplikazioak: Android, iOS, Windows Phone

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA Bergara

AURRE-MATRIKULAK: Maiatzaren 27tik Ekainaren 7ra
ATE IREKIAK: Maiatzak 25, 11:00etan.

Orduetgia:
Asteleheneetik ostegunera, 8:00etatik 14:30etara eta 15:30etatik 18:30etara
Ostiraletan, 8:00etatik 14:30etara

Ibargarai, 1
20570 Bergara
943 76 38 40/943 76 24 91

www.imaituna.com
imaituna@saremail.com

itesa

Ondo ibili jaietan!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

Lehen aldiz, giza mahai-futbola

Domeka goizean egongo da jarrita San Martin plazan jaietako berrikuntzetako bat

TXOMIN MADINA | BERGARA

Domeka goiz-eguerdi partean Bergarako San Martin plazatik pasatzen denak egitura berezi bat aurkituko du bertan: hamar metro luze eta sei metro zabal den puzgarri bat, hain zuzen ere.

Puzgarri horrek, baina, ez du gaztelu edo baserri formarik izango: mahai-futbol erraldoia izango da, baina jokalaririk gabekoa. Zeintzuk izango diren partiduetan jokalarien lekua beteko dutenak? Horretara animatzen den bergarar oro. Hauxe da aurtengo jaietako berrikuntzetako bat: giza mahai-futbola.

Hamabi jokalarirendako

Gasteizko Animagic enpresak jarriko du giza mahai-futbola Bergaran, eta, enpresako ordezkari Gabriel Lopezen esanetan, familia osoarendako modukoa da hura: hasi 6 edo 7 urte dituzten neska-mutikoetatik, eta helduetaraino. Bestelako puzgarriak gustatzen ez zaizkien gaztetxoendako ere aproposa dela gaineratzen du.

Hainbat eratara jolas egin daiteke giza mahai-futboleant. Puzgarriaren barruan metalezko barrerak daude, jokalariei batetik bestera igarotzea zailtzen dieten barrerak. Hori da aukeretako bat. Baina, horrez gainera, jokalariek barreretara lotzeko aukera ere badago, ohiko mahai-futboleko panpinatxoaren itxura hartuta.

Aldi berean lauzpabost pertsona bakarrik har dezaketen beste puzgarrien aldean, giza



Barrereri lotuta edo lotu gabe jolas egin daiteke giza mahai-futboleant. | ANIMAGIC

mahai-futbolak badu abantaila bat: batera parte har dezakeen jende kopurua. Hala, jokalariek barrerei lotuta joanez gero, hamabi pertsona ere ibil daitezke batera: talde bakoitzeko atezaina eta beste bost jokalaria.

Txapelketak egiteko aukera

Giza mahai-futbolak, ohikoek bezala, txapelketak antolatzeko aukera ere ematen du; gol batera edo birako partiduetan, esaterako, eta horrek dinamismoa ematen dio. Horren harira, begirale-dinamizatzaile bat egongo da, epaile lanak egin ahal dituena. Haren ardura izango da, baita ere, giza mahai-futboleant ibili nahi dutenei txanda ematea eta denborak kontrolatzea.

Puzgarria, ez da oso altua: gerri ingururaino heltzen da; beraz, jokoaz puzgarri barruan daudenean gozatzeaz gain, kanpoan ikusten daudenean ere goza dezakete.

Domekan 10:30etik 14:00etara egongo da jarrita giza mahai-futbola herriko plazan; aje kontuak alde batera utzi eta lagunekin edo familian jokatzeko aukera paregabea.

Familian edo lagunekin parte hartzeko aproposa da



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L. MARGO LANAK OROKORREAN

Era guztietako lanak

Moketa eta sintasola

Iztuku esponjatua

Paper pintatuak

Harea zorrotada

Iztuku faltsua

Ondo pasau jaixak!

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16
Faxa: 943 76 09 32



Domekan dantzak alaituko du kalea

Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bikote bergararra lehen aldiz batera taula gainean

JONE ALBENIZ | BERGARA

Urteroko ohiturari eutsiz, aurten ere dantza solte txapelketa egingo dute Pentekoste jaietan.

Bikoteka antolatuta, 16 urtez azpiko gazteek parte hartuko dute etzi, hilaren 19an, 17:30ean, San Martin plazan.

Iaz Moiazpi elkarteak Albar-karen erreleboa hartu ostean, 36. edizioa izango da aurten, eta herriko bikote bakarrak hartuko du parte.

Euskal dantzaren egoera

Maite Lazkanok adierazi duen moduan, "mugimendua badago, baina duela urte batzuk baino bikote dezente gutxiago daude. Euskal Herriko txapelketetan 12 bat bikote izaten gara; lehen, berriz, 30 inguru. Makaltzen joan da, baina, hala ere, ume askorekin gabiltza lanean; momentuan, 80 bat dira. Txapelketetan parte hartzea zailagoa da, teknikoagoa baita, eta, gainera, konpromisoa eskatzen du; ume eta gazteendako zaila da, beste hainbat ekin-tza ere egiten dituztelako.

Bikote mailan, kopuruari dagokionez, asko galdu bada ere, orokorrean, dantzak indar handia izan du beti Bergaran eta indarra izaten jarraitzen du."

Bikote bergarar bat

Lehenengo aldiz irtengo da Bergarako bikote hau taula gainera: 13 urteko Saioa Galarraga eta 12 urteko Julen Murgiondo. Urte asko daroate dantzan, baina



lazko dantza txapelketa. | GOIENA

"Bergarako bikote bakarra dago aurtengo txapelketan"

bikote moduan txapelketa baten parte hatzen duten lehen aldia izango da. Hauxe dio Lazkanok: "Egia esan, entsegatzen denbora laburra daramaten arren, oso ondo konpontzen dira".

Aipatzekoa da, bestalde, parte hartzaileen portzentaje han-

MAITE LAZKANO | MOIAZPI ELKARTEA

"Tradizionaltasuna baztertuz, dantza moderno eta teknikoagoak dira"

Joan den urtean moduan, aurten ere Moiazpi dantza elkarteak antolatu du Bergarako jaietako dantza solteko txapelketa. Maite Lazkano antolatzaileetako bat da eta honela hitz egin digu ekitaldiaren inguruan.

Zer aurreikusten duzue?

Ez dakit ze bikote den aurtengo faboritua. Gure helburua da Bergarako bikoteak dantza-saio ona egin eta ondo pasatzea. Dantza egin eta disfrutatze asmoarekin goaz.

Zelan ikusten duzu mutilen kontua?

Mutilak beti faltan. Beti bezala, mutilen parte hartzea oso txikia izan ohi da. Dantza taldean 80 ume badira, dozena bat mutil besterik ez dago eta, gainera, oso txikiak, oraindik ikasten ari dira. Gabezia honen aurrean, alternatiba desberdinak plan-



Maite Lazkano. | GOIENA

teatu dira: neskaz osatutako bikoteak eta taldeak antolatutako taldeak. Alternatiba horiei ez zaie zukurik atera.

Ze sari banatuko dira?

Hiruzpalau epaimahai egongo dira. Lehenengo bostendako sari berezia egongo da. Eta, betiko ohiturei eutsiz, jantzi ederrenaren saria eta bikote gazteenaren sariak banatuko dituzte.

di bat Azpeititik eta Azkoititik etortzen dela.

Dantzak arratsalde

Ez da berritasun nabarmenik egongo. Duela urte batzuk 30 bikotetik gora parte hartzen zutenean, goizean bikote guztiek

egiten zuten dantza eta arratsaldean, sailkatutakoek besterik ez. Orain, berriz, bikote gutxiagok parte hartuko dutenez, 12-13 bikote, zuzenean guztiak sailkatu eta arratsadean egingo dute dantza. Bestalde, ez da berritasun nabarmenik egongo.

Pazkoa jai zoriontsuak

08:30etik - 20:30era zabalik

Ibargaral 11 • tel.: 943 76 28 92

antopullmans

Araba

Ondo pasa jaixak!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 23 45 / San Juan auzoa 11 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com



**GIZA ESKUBIDEAK.
IRTENBIDEA. BAKEA.
EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA**



ondo pasau pentekoste jaixetan!



Koadrila asko aurtengo herri bazkarian

Koadrilen Eguneko herri bazkariko 800 txartelak salgai jarri eta lau ordura agortu ziren guztiak

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Aurtengo Pentekoste jaietako herri bazkariak inoiz baino arrakasta handiagoa izan du. Festekin jarraitzeko, Koadrilen Eguneko herri bazkarira jende mordoxka hurbilduko dela jakinarazi digute antolatzaileak diren Pikupe Produkzioetako kideek. Maiatzaren lehen jarri ziren 800 txartelak salgai Kultura Etxean, Depor, Ariznoa eta Frontoiko tabernetan eta Pikupen, 15 euroren truke. Ez zuten denbora luzerik iraun agortu ziren guztiak.

Bazkaria 14:30ean izango da, eta, urtero legez, San Martin plaza kokatuko dira mahai eta eserlekuak; edozelan ere, eguraldiak lagunduko ez balu, Labegaraietako kiroldegira pasatuko lirateke.

Animazioaz DJ Anjie arduratuko da, jendea bazkaltzen dagoen bitartean musikaz giro-tuko baitu bazkaria.

Bazkalostean, kafe-kantu saioa

Bazkaldu eta gero, koadrilek ezarriak berotuta izan beharko dituzte, kantu saio batekin gozatu beharko dute-eta kafea. Mahaikide guztiek abes dezaten, kantuen letrak banatuko dituzte. Hain zuzen ere, banatuko dituzten abestiak *Xalbadorren heriotza* eta halako abesti herrikoiak izango dira, baina, giroa animatu ahala, bestelako kantuak ere abestuko dituzte.



Joan den urteko urteko herri bazkarian, paella banatzen. | ENEKO AZKARATE

Aurten Bergarako postreak

Joan den urteko menu antzekoa ekarriko dute aurtengo Pentekostetarako. Bazkaltzeko, entsalada eta 800 pertsona asetzeko adinako paella erraldoia egongo da; bertan prestatutakoa, gainera. Postrea izango da aurtengo nobedadea: orain arte kanpotik ekartzen zen, baina aurten, Bergarako Larrañaga, Mugica eta Raizabal gozotegiak elkarlanean arituko dira eta goxua prestatuko dute Bergarako bizilagunen-

tzako. Egarrri ere ez dira izango bazkarian: edateko, uraz eta ardoaz gain, sagardo kupelak ere ekarriko dituzte txotx egin nahi dutenentzat.

Zeliakoak edo alergikoak

Pikupekoek adierazi digutenez, mahaikideen artean alergiko edo zeliakorik balego, eurei jakinarazi beharko zaie lehenago, Pikupe-tik bertatik pasatuta (Artekale 7), menuan aldaketaren bat egiteko edo beste zerbait prestatzeko.

Koadrilan eserita

Antolatzaileek koadrilan jarri nahi dutenei eskatzen diete denak taldean agertzeko, mahai antolaketa ez oztopatzeke asmoz; era horretan, koadrila guztiek batera jartzeko aukera izango dute, tartean leku hutsik geratu gabe.

Esan bezala, menu eta giro paregabearekin bazkalduko dute bergararrek Koadrila Egunean festekin jarraitzeko asmoz.

LAGUN GARAJEA



Tailer profesionalak

Mekanika orokorra

Ondo pasau jaixak!

Santzialtz 3. BERGARA. Tel.: 943 76 11 20



AGIRRE HORTZ KLINIKA

Ondo
pasau
Pazkuetan!

Ibargaretz 9, 1-B. Bergara. Tel.: 943 76 00 23 - 605 72 36 28 Orduetgia: 08:00-21:00 (Eguzdian ere zabalik).



Felsinee

Ibargarai Etorbidea 17, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 53 44 53

www.felsinee.net



Saunier Duval

GUIPUZCOA
Sematec

LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU
OFIZIAL BAIMENDUA

San Lorentzo 21
20570 Bergara
Tel.: 943 76 06 61

www.sematakguip.com
bergara@sematakguip.com

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA



Euskalduna, herrikoia eta alaia izango da txosnagunea

San Martin plazan ere egingo ditu hainbat ekintza Txosna batzordeak

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Zalantza barik, Pentekoste jaien gune garrantzitsuenetako bat izaten dira txosnak. Bada, aurten ere Txosna batzordeak egitarau bete-betea antolatu du eta egongo da zer ikusi, entzun eta baita jan ere. Txosna baten errazioak eta ogitartekoak emango dituzte, aurreko urteetako erantzun ona ikusita.

Bideberrin hiru txosna, agertokia, jateko gunea eta karpa handia egongo dira. Horrez gain, San Martin plazan ere egongo da beste txosna bat eta hori ere Txosna batzordeak kudeatuko du. Bertan, gainera, tonbola jarriko dute eta 2 eurotan salduko dituzte txartelak. Antolatzaileek aurreratu dute txartel guztiek izango dutela saria.

Herritar guztiei irekia

Txosna batzordeko kideek joan den astean egindako agerraldian azpimarratu nahi izan zuten "txosnagunea alaia, euskalduna eta herrikoia izatea" nahi dutela, eta "guztionez irekia". Hori horrela, denetarik ekintzak antolatu dituzte: film laburren lehiaketa, ikasleen bazkaria, baltsen jaitsiera eta kontzertu ugari. Horren harira, estilo guztietako musika entzuteko aukera izango da. Besteak beste, Fiachras, Gozategi, Anje



Joan den urtean txosnagunean egindako bertso-bazkaria. | GOIENA

Duhalde, Emon eta DJ Bull igoko dira taula gainera.

'Zero zabor' filosofia

Zero zabor filosofiarekin bat egin ez, aurten ere edalontzi guztiak -katxi eta kubata edalontziak barne- berrerabilgarriak izango

Aurten, martitzenean ere zabalduko dituzte txosnak

direla azaldu zuten Txosna batzordeko ordezkariak eta gaika biltzeko aukera ere egongo da.

Dena gertu dago, horrenbestez, festa eta parrandarako. Aurten, gainera, beste urte batzuetan ez bezala, martitzenean ere irekiko dituzte txosnak.

TXOSNETAKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA, 17

14:30 Ikasleen bazkaria, San Martin plazan.

21:00 Txosnen irekitzea.

22:30 Kontzertua: Bertan, bizio, Fiachras eta Gozategi.

ZAPATUA, 18

14:30 Elkartasun bazkaria Alaia Martin eta Aitzol Barandiaran bertsolariekin. Txartelak Arranon eta Kortazarren eskura daitezke 12 eurotan.

Gero, Plazak bete ekimena: kalejira San Martin plazaraino.

23:00 Kontzertua: Guaka, lheskide eta Kop.

DOMEKA, 19

18:00 Irrien Lagunen Kultura plazara.

20:00 Kontzertua: Anje Duhalde.

23:00 Film laburren lehiaketa.

ASTELEHENA, 20

19:00 Erromeria Laket taldearekin.

00:00 Kontzertua: Emon.

Gero, DJ Bull.

MARTITZENA, 21

18:00 Baltsa jaitsiera.



San Juan Auzoa. Larramendi Industrialdea, Partzela I-1

Posta Kutxa, 5

20570 Bergara

Tel.: 943 82 94 83 - Faxa: 943 76 41 85

embalan3@embalan3.com

www.embalan3.com

ondo pasau jaixak!



GOKI ERREFORMAK, S.L.

Teilatnak, fatxadak, igogailuak, sukaldeak, bainugelak.

Ondo ibili jaixetan!

Irizar Ibilbidea 1 behea
BERGARA

Tel.: 943 76 53 42

Faxa: 943 76 52 16

bergara@gokierreformak.es

Aitzol Gandiaga eta Irati Alberdi

Baltsa jaitsierako parte-hartzaileak

"Jai giroko konpetentzia egoten da"

Martitzenean, baltsa jaitsiera autobus geltokian hasi eta Bideberrin amaituko da



Gandiaga eta Alberdi, Bideberrin. | MONIKA BELASTEGI

RUBEN CUESTA | BERGARA

Aurten ere bergarrek aukera izango dute herriko zubietatik baltsa jaitsiera ikusteko. Aitzol Gandiagak eta Irati Alberdik parte hartu izan dute aurreko edizioetan, eta aurten ere, seguruena, animatuko dira. Haien esperientzia ezagutzeko solasaldia egin dugu.

Zerk animatzen zaituzte baltsa jaitsieran parte hartzera?

Aitzol: Animatzen gara, batez ere, ekintza ezberdina delako. Gainera, errekek duen famagatik –nahiko zikina izan dela betidanik–, jende askok ezin du esan hor sartuta egon dela. Egia da erreka nahiko zikin egoten dela, baina esperientzia oso polita eta dibertigarria izaten da.

Irati: Gainera, aukera bakarra da zoratuta ez zaudela antzematuko. [Barreak]

Ze material erabili izan dituzue baltsak egiteko?

A: Orain arte erabili izan ditugu autoen ganberak eta errekan hasten diren kanaberak, baltsaren oinarri egiteko. Horiek egiteko orduan, gaztetxean edo norbaiten garajeetan biltzen gara. Ongi moldatzen gara.

"Errekako toki batzuk uste baino sakonagoak dira"

AITZOL GANDIAGA

Esango al zenigukete zuek inoiz erabilitako trikimailuren bat?

I: Jendea bidean lagatzea da trikimailurik eraginkorrena.

A: Eta batzuetan oinez joatea, betiere egiten duen euriaren arabera. Urte batzuetan egon dira tramu batzuk oinez egiteko, baina adi joan behar da; izan ere, toki askotan uste baino sakonera handiagoa dago.

Aurreko edizioetako anekdota edo bitxikeriaren bat?

I: Ba, denetik aurki daiteke errekan. Nire kasuan, Doraemon panpina txiki bat topatu nuen.

A: Ur trago batzuk hartu ditugu inoiz.

Errekako gune batzuk arrakatsuek izan daitezke. Inoiz izan duzue ezbeharren bat?

I: Orokorrean, zauri txikiak gerta daitezke.

A: Behin, oinak ez nituen ondo garbitu eta ospitalera joan behar izan nuen, infektatu egin zitzaizkidalako.

Konpetentzia egoten da taldeen artean edo jai giroa nabarmentzen da gehiago?

A: Konpetentzia egoten da, bai; edozelan ere, jai giro barruan egoten den konpetentzia natura-

la dagoela esan daiteke.

I: Gainera, elkarri laguntzen diogu. Esate baterako, norbait gelditzen bada atzean, batzuetan, lagundu egiten diogu.

Beste herri batzuetako baltsa jaitsieretan parte hartzeko ohiturarik bai?

Biak: Herrian baltsa jaitsieran parte hartzeko gogoia izaten dugu, xarma berezia duelako, baina, orokorrean, ez dugu ohiturarik beste herri batzuetakoetan parte hartzeko.

Bergaran ikusmin handia sortzen du. Zer esango zenigukete jendeari parte hartzera animatzeko?

A: Jaietan, animatu eta zikindu egin behar dela.

I: Bizitzan behin, behintzat, probatu egin behar dela.

"Bizitzan behin, behintzat, probatu beharrekoa da"

IRATI ALBERDI

**Murillo Garajea**

Auto konponketak orokorrean

Pentekoste jai zoriontsuak bergarar guztion!

Leizeaga, 4 - BERGARA

Tel.: 943 761384

**iBARRALDE**
Administrazio zerbitzuak SL

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak eta Juridikoak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxes: 943 76 25 64

Ondo pasa jakal!



Ziklismoaz eta pilotaz gozatzeko aukera

- ▶ Pentekoste sarian amateurrak izango dira protagonista
- ▶ Bergara Hiria txapelketako finalak hilaren 20an jokatuko dituzte

A. EZKIBEL/M. BIKUÑA | BERGARA

Pazkoetan kirolaz gozatzeko aukera izango dute bergararrek. Bi izango dira protagonista: ziklismoa eta pilota. Amateurrendako 78. Pentekoste saria hilaren 19an jokatuko dute. Gainera, Bergara Hiria txapelketako finalak hilaren 20an izango dira eta profesional mailako jaialdia, hilaren 21ean.

19-23 urte artekoak

Amateur mailako ziklista onenak bilduko dira Pentekoste sarian. 19 eta 23 urte artekoendako lasterketa Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izango da. Parte-hartzaileek 122 kilometroko ibilaldia egin beharko dute. Azken urteetako berbera. Bergararik Elgoibarrera joango dira, lehenik, eta handik Zubillagako biribilguneraino. Ibilbide hori bi aldiz egingo dute. 103 kilometroa Angiozarren beteko dute. Handik Asentziara igoko dira, eta, Kanpanzarren behera, Eloregerira joango dira. Helmuga Bergarako San Antonio auzoan egongo da.

Ibilbide horretako puntu erabakigarriena Asentzioko igoera izango da. Lehen aldapak oso gogorrak dira. Ziklistek badakite, puntu gogorrena izanda ere, tropeletik ihes egiteko unea ere izan daitekeela.

Proba 09:00etan hasiko dute, eta, antolatzaileek aurreikusitako batez bestekoa betetzen bada, irabazlea 12:00 aldera helduko da helmugara.

Debagoieneko ziklistak

Begarako irteera puntuan amateur mailako punta-puntako taldeak eta txirrindulariak egongo dira. Besteak beste, Lehendakari Txapelketa irabazteko hautagai nagusiak. Era berean, errepidean egongo dira Debagoieneko ordezkariak: Kanpanzar Harrobiak eta Debabarrena taldeetako ziklistak; eta Jon Odrizolola oñatiarrak zuzentzen duen Eki Sport talde-

ko Eneko Lizarralde bergararra eta Aitor Umerez oñatiarra.

Profesionalak eta amateurrak

Begarako jaietan jokatzen den Pentekoste saria Euskal Herriko proba zaharrenetakoa da. 78. aldian beteko du hilaren 20an, eta palmaresak erakusten du profesional eta amateur mailako ziklista onenak egon direla Bergaran. 1932an Vicente Truebak irabazi zuenetik, besteak beste, Ruiz, Barrutia, Gandarias, Etxabe, Ruiz Cabestany, Indurain, Diaz Zabala, Flores eta Perdiguerok parte hartu dute Pentekoste sarian. 2007an Jonathan Castroviejok irabazi zuen eta iaz Caja Rural taldeko Ramon Dominguez izan zen azkarrena.

Bergara Hiria pilota finala

Bergara Hiria pilota txapelketako finalean Beñat Rezusta bergararra egongo da –nagusien mailan–. Finalak hilaren 20an, astelehenean, jokatuko dira, Udaltaldekuan, 19:00etan.

Maiatzaren 7an jokatutako final-laurdenean lortu zuen ber-



Beñat Rezusta bergararra finalean izango da. | GOIENA



Caja Ruraleko Ramon Dominguez txirrindularia.

Amateur mailako ziklista onenak egongo dira Pazkoetan

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Proiektuak · Koltxoak · Horma-Armairuak · Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak



gararrak finalerako txartela. Nagusien mailan lehiatu da Rezusta, Jaka bikotekidearekin. Final-laurdenean 22-17 irabazi zuten Urbietta eta Diaz bikotearen aurka. Rezustak ez zuen ohiko mailarik eskaini final-laurdenean, baina, hala ere, Jakak ondo bideratu zuen lehia. Lehiaren hasierako tantoak nahiko berdinduak izan ziren. 15-15eko berdinketara arte markagailua estua izan zen; baina lehiaren azkeneko txanpan gogor estutu zuten Jakak eta Rezustak. Hala, 22-17 irabazi zuten.

Nagusien mailako bigarren final-laurdena hilaren 14an jokatu zuten: Yoldi/Tolosak 22-12 irabazi zion Larrañaga/Peña bikoteari.

Gazteen mailan Altuna-Imazek eta Iribarria-Xanetek jokatu dute finala. Altunak eta Imazek hilaren 7ko final-laurdenean lortu zuten finalerako txartela, 22-11 irabazita Dario eta Sanchez bikoteari. 42 minutu behar izan zuten Altunak eta Imazek 22 tanto egiteko. Euren aurka lehiatuko den Iribarria-Xanet bikoteak hilaren 14ko finalurrekoan lortu zuen finalerako txartela. Iribarri-Imaz eta Mikel Gallastegi (Bergara)-Ibarrondo ibili ziren nor baino nor gehiago Bergara Hiria pilota txapelketako finalerako txartela lortzeko. 22-11 izan zen emaitza.

Profesionalak eta amateurak

Pentekoste jaietan, ohikoa den moduan, pilota partidu profesionalak ere egongo dira. Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzua burubelari ibili da lanean Aspe enpresarekin batera herrira pilota partidu bikainak ekartzeko. Erredakzioa itxi dugunean, oraindik zehaztu barik zuten ze pilotari etorriko diren Bergarara. Partidu hilaren 21ean izango da, martitzenean, 17:00etan.



Ernesto Ezpeleta *Bihurri*, Hodei semearekin. | WWW.BIHURRI.COM

Herri kirolak: erakustaldia eta tailerra

Hilaren 21ean, 12:00etan, herri kirolak izango dira protagonista San Martin plazan. Erakustaldia egingo dute *Bihurri* eta Hodei Ezpeleta aita-semeek, Joseba Ostolatzak, Karlos Ruiz de Aretxabaletak eta Ana Berasategik.

Lehenengo biak aizkorarekin egingo dute lan. Gainera, Ruiz de Aretxabaleta eta Berasategirekin bikote eginez lehia gogorra izango dute biek ala biek. Askotariko probak egingo dituzte, bikote onena nor den erabaki arte. "Lehia polita izango da. Semeak 13 urte ditu, baina badauka esperientzia. Bergaran, 8 urterekin egin zuen lehen erakustaldia", esan dio GOIENARI Ernesto Ezpeleta *Bihurri*-k. Ondoren, Ruiz de Aretxabaletak eta Berasategik Iparraldeko jokoen erakustaldia egingo dute: lastoa jaso eta bota, txingak eroan, zakuekin lasterketak egin... eta beste hainbat egingo dituzte. Herri kirolen erakustaldia bukatzeko, Joseba Ostolatz harri-jasotzaileak hainbat lan egingo ditu pisu ezberdineko harriekin.


Tailerrean parte hartzeko deialdi irekia

Erakustaldia bukatu ondoren, herri kirolen gaineko tailerra egingo dute San Martin plazan bertan. Bergarako Udalaren proposamena "gustura" onartu du *Bihurri*-k. "Koadrilen arteko herri kirol txapelketa egin izan dute orain dela gutxira arte Bergaran. Nik neuk eramaten nuen probak egiteko materiala. Txapelketa ederra zen, ikusteko eta parte hartzeko. Baina, galdu egin da", gogoratzen du *Bihurri*-k. Ohitura horiek berreskuratze aldera, herri kirolei buruzko tailerrak "ezinbestekoak" direla uste du. "Herri kirolak zer diren, eta herri kirolean erabiltzen dugun materiala nola egin daiteken erakutsiko dugu tailerrean", dio. Herritar guztiak gonbidatu ditu. Deialdia irekia da.

San Antonioko helmugara heltzen, iaz. | JOSETXO ARANTZABAL

Bergara Hiria txapelketako finalean, etxekoa

Profesionalen partiduak, beti bezala, jaietako martitzenean



Iratxo
mertzeria

Telefono Aranzadi 31
TEL: 943 76 00 79
BERGARA

Ondo pasatu Pazkoetan!



Jai giroa, herrian eta baita argazkietan ere

Pentekosteetako argazkiekin fondoa osatu gura du Udalak herritarren parte-hartzearekin, aurten hasita

JON BEREZIBAR | BERGARA

Argazkizaleek argazkiak ikusi eta egiteko aukera izango dute aurtengo jaietan. Batetik, Udalak jaietako argazki lehiaketa deitu duelako, eta, bestetik, argazkiekin erakusketa bi ikusteko aukera egongo delako.

Jai giroko uneak

Aurtengo jaietan hasita, egungo argazkiekin udal fondoa osatzen joatea da argazki lehiaketaren helburua. Pentekosteetan bertan jai giroko argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Edonork har dezake parte; baldintza bakarra aurtengo jaietan ateratako irudiak izatea da eta irabazleak, bakarrak, 200 euroko erosketa-txartela eskuratuko du herriko argazki-denda baten gastatzeko. Noski, argazkiek kalitatezkoak behar dute izan eta jai giroa islatu behar dute.

Erakusketa gehiago

Beste garai batzuetako jai giroko uneak ere aurkitu ahal izango dira Aroztegin. Pol-Pol mendi taldeak lehen 30 urteetako argazki bilduma egin du eta tartean Gorkako erromeria jendetsuetako irudiak ere badaude. Erakusketan, baina, garai baten mendi irteerak nola egiten ziren erakusten da,

EDURNE KORTA | KULTURA TEKNIKARIA

"Jai giroan sortzen diren uneak jaso nahi ditugu"

Bergarako Udalak Pentekoste jaietako fondoa osatu gura du eta lehiaketa bidez eskuratu nahi ditu argazkiak. Zehazki, jai giroan sortzen diren uneak jaso nahi dituzte udaletxean.

Jaietako ze argazki fondo du berez Udalak?

Argazki zaharrak egon badaude, baina, askotan, ez dira kalitate onekoak. Gainera, azken urteetan ez da argazki askorik jaso.

Lehiaketaren helburua gaur gaurko argazkiak aurkitzea da. Askotan, jaietan ateratzen diren argazkiak jendeak etxean gordetzen ditu, eta herritar guztiekin partekatzea nahi dugu.

Herritar guztientzako egongo da, hortaz, zabalik?

Nahi duten argazkizale guztiek har dezakete parte eta bakoitzak

nahi adina argazki aurkez ditzake. Guztiak jasoko dira. Ez dakigu zer-nolako erantzuna izango duen, baina, sari pizgarri bat jarrita, jendea animatuko dela uste dugu.

Argazkiekin ezer berezirik egiteko asmorik badago?

Aurtengo Pentekoste jaietan, hau da, 2013ko maiatzaren 17tik 21era ospatuko diren Pentekoste jaietan ateratako edozein argazki aurkeztu ahal izango da.

"Gaur gaurko argazkiak aurkitzea da helburua"

Egun horietan herrian izango dugun jai giroa islatu beharko du argazkiak. Jasotako lanak Bergarako Udalaren jabetzan geldituko dira. Argazkiak aurkezteko epea maiatzaren 24an 13:00etan bukatuko da eta saria maiatzaren 31n Bergarako Aroztegi erakusketa aretoan emango da, arratsaldeko zazpitan.



lax ateratako jaietako argazki baten muntaia. | GOIENA

garaiko protagonistekin, eta baita Bergarako gertuko historian kuttunak diren uneak ere: Gorkako fondaren eraikuntza, iturriaren inaugurazioa... Erakusketa hilaren 19ra arte egongo da zabalik (domeka). Horren ostean, Bergara Hiria argazkilaritza lehiaketako irudiek hartuko dute Aroztegi aretoa. Sari-emate ekitaldia maiatzaren 24an izango da, 20:00etan, Aroztegi aretoan bertan. Garaikurra Santi Arrie-

ta artistaren eskultura bat izango da. Ekainaren 9ra arte egongo da zabalik erakusketa.

Pol-Polen erakusketa dago egunotan Aroztegin

Nik  euskara

Matrikula Zabalik!!
2013-2014 ikasturtea

Udako ikastaroak 2013

2013-14 ikasturterako aurrematrikula

UDAL EUSKALTEGIAK



Barrenkale 33
(Irizar jauregia)
BERGARA

Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

MATRIKULA ZABALIK

Ekainaren 17tik 24ra

16 urtetik gorakoentzat

Ondo pasau
jaixetan!

HABEREN DIBULGUAZ

www.nik.euskaltegiak.net



AGORROSIN
OSTALARITZA

Boni Laskurain 21 • 943 77 70 30

ondo pasau jaixak!

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO

KAFE MAKINA

NESCAFÉ Dolce Gusto Melody kafe makina dugu zozketatzeko!



Parte hartzeko

DolceGusto
BaserriSarea
Arrikruz
Bertikal
Mihiluze

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEN BASERRI SAREARI esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



MIHILUZE

MIHILUZE joko irabaztea nahi?
Bi joko ditugu zozketatzeko.




BERTIKAL.COM

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako.
5 joko ditugu zozketatzeko.



DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com



Maila handia aurtengo goitibeheretan

Espainiako txapelduna eta txapeldunordea, besteak beste, lehiatuko dira txapelketan

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Joan den astelehenean, maiatzaren 13an, itxi zen goitibeheretan izena emateko epea, eta 20 bat lagun apuntatu dira.

Goitibeherek San Martzial auzotik irten beharko dute, zehazki, Lamaino Etxeberrri landetxetik, eta Santa Marina ondoan amaituko dute jaitsiera. 900 metroko jaitsiera izango da, %10eko maldarekin.

Kanpotarrak goitibeheretan

Antolakuntzak herriko jendea eta, bereziki, emakumeak parte hartzerantz animatzen ditu, baina, esan bezala, aurtengo kanpotarrak parte-hartzaile ugari etorriko dira Bergarako goitibeheretara. Kirol horretako Espainiako txapelduna eta txapeldunordea etorriko dira, baita Kantabriako eta Kataluniako jendea ere.



Jokin Gutierrez eta Aitor Zabaleta, joan den urteko goitibeheretan. | IRENE ZENITAGOIA

Bergarar sarituak

Iaz, Gutierrez anai-arreba bergararrak izan ziren sarituak. Jokin Gutierrezek pneumatikako modalitatean seigarren postua eskuratu zuen Euskal Txapelketan eta haren arreba Maddi Gutierrez, arinen taldean, *golfoetan*, hirugarren izan zen.

Sari desberdinak

Sail eta modalitate desberdinetan sailkatzen dira sariak. Herriko parte-hartzaileetako irabazleak 100 euroko saria eramango du, bigarrenak 90 euro eta hirugarrenak 30 euro. Emakume onenak, aldiz, 80 euro jasoko ditu. Modalitateei dagokienez, errodamendu modalitatean, pneumatikan eta arinetan ere banatuko dituzte sariak: modalitate bakoitzeko hiru onenek 80, 40 eta 30 euroko sariak jasoko dituzte.



Maddi Gutierrez, joan den urtean. | IRENE ZENITAGOIA



Bi parte-hartzaile goitibeheretan jaisten. | JOSETXO ARANZABAL

900 metroko jaitsiera izango da, %10eko maldarekin

Herritarrak eta bereziki andreak animatu dituzte parte hartzera



Zero azpiko gorputz birmoldaketa

giartzu

estetika - gimnasioa

Boni Laskurain 3-4 / Tel.: 943 763571
estetika@giartzu.com



Ondo pasatu Pazkoetan!

Kriolipolisia eta Ballancer, adipositatearen aurkako teknika berriak Giartzun. Ezagut itzazu!



Errekortadoreak protagonista jaietan

Zapatuan errekortadoreen txapelketak jokatu dira eta domekan ikuskizuna eskainiko dute zezen-plazan

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA
Zapatutik martitzenera bitartean zezenzaleek eta errekortadoreek zezenez gozatzeko aukera izango dute aurtengo jaietan ere.

Errekortadoreen txapelketak
Zapatuan errekortadoreen bi txapelketa jokatu dira zezen-plazan, 18:30ean hasita. Lehenengo errekortadore gaztetxoak laugarren txapelketa izango da eta bertan 16 urtetik beherako 16 mutil errekortarik hartuko dute parte. Tartean izango dira

joan den urtean txapelketa irabazi zuen Julen Murgiondo bergarra, Azkargorta eta Maiztegi bergararrak eta Elices arrasatearra. Nagusien errekortadore txapelketetan erabiltzen den formatu bera erabiliko da: bi txahal aterako dituzte bi txandatan -Bergarako Zezenak gaudetegikoak- eta txanda bakoitzean zortzi errekortadore aterako dira errekorteak eta saltoak egitera, bakoitzak ahal duen neurrian. Finalean beste txahal bat aterako dute eta horra iris-

ten diren lauzpabost errekortadoreen artean irabazlea aukeratu dute.

Bigarrena errekortadore gazteen txapelketa izango da eta bertan 16-20 urte bitartekoek hartuko dute parte. Adin horretako gazteei zuzendutako lehenengo txapelketa jokatu da, modu horretara, Bergaran. Euskal Herriko Errekortadoreak Taldean bozeramaile lanak egiten dituen Iñigo Almortza bergararraren esanetan, "16-18 urte bitarteko gazteak txapelketa



Errekortadorea Bergarako zezen-plazan, joan den urtean. | GOIENA

Bigantxak eta errekortadore eskola ere izango dira jaietan

Jendearen dibertimendurako, bigantxak egongo dira Bergarako zezen-plazan zapatuan, domekan eta martitzenean, 09:00etan. Sarrera bi euro ordaindu beharko da.

Umeendako errekortadore eskola ere egongo da astelehen eta martitzenean, 18:30ean, zezen-plazan. Bertan erakutsiko dute nola dibertitu, nola minik ez hartu eta nola errespetatu animalia. Sarrera bi euro ordaindu beharko da.

Astelehenenean, Koadrilen Egunean, 11:30ean, herri kirolen txapelketa jokatu dute zezen-plazan.



Bergarako bigantxen ikuskizuneko une bat. | GOIENA

barik gelditzen dira normalean; izan ere, zezen handiekin irteko oraindik gaztetxoegiak dira eta txikiekin ibiltzeko nagusiegiak dira. Horren ondorioz, aurreko lehenengo aldiz 16 urtetik 20 urtera bitarteko gazteendako txapelketa egingo dugu".

Errekortadoreen ikuskizuna

Euskal Herriko errekortadoreen ikuskizuna, berriz, domekan izango da, 18:30ean. Balantzinak, kulunkak eta quadak erabiliko dituzte, besteak beste, ikuskizunean, eta bertan parte hartuko dute Bergarako Unai Arana Xurra-k, Iker Agirre Txili-k

eta Aitor Jasok, baita Arrasateko Blas Cruzek, Zumarragako Ander eta Jokin Rodriguezek, Amorebietako Felipe Gaskonek eta Dulantziko Oier Gastaminza errekortadore esperientzidunek. Ondo pasatzeko aukera aparta.

Errekortadoreek Bergaran hasiko dute denboraldia



ETXEEN SUSTAPENA ETA ERAIKUNTZA

PABILIOIAK

ZAHARBERRITZEAK

URBANIZAZIOAK

PROIEKTUAK

BERGARA
943 76 11 23



Mazarreka 14-16, BERGARA
Tel. 943 761123 • Fax. 943 763041
goitu@grupogoitu.com
www.grupogoitu.com



Bergarako Udala

Ondo pasau jaixak!

San Martin plaza

www.bergara.net • bergara@bergara.net
Tel: 943 77 91 00 – Fax: 943 77 91 03



Musika eskaintza zabala jaietan

Rock, rap eta hardcore kontzertuak, erromeriak, dantzaldiak eta disko festak

EGUBAKOITZA

17

Zzio, Fiachras eta Gozategi

Txosnetan | 22:30ean

Pentekoste jaiak hasteko, musika nahasketa ekletikoa izango da txosnetako oholtzan. Rap musika, folk-rock musika eta erromeria izango dira nagusi lehenengo gau luzeari aurre egiteko.

Zzio Algortako hirukoteak euskal rapa bizirik dagoela aldarrikatuko du, urtarrilean kaleratu zuten diskoa zuzenean defendatuta. *Pausuz pausu* deitzen da lehenengo lana, eta, erritmoekin jolas eginez, gaurko egoeraren kritika zorrotza egingo dute.

Fiachras taldeak etxean joko du, binilozko disko labur berria aurkeztuta; horrenbestez, gogotsu irtengo dira herriko jaiak folk-rock

eta western-rock doinuz bustitzera. Seguruenik, jende asko hurbilduko da etxeko talde kutuna ikustera eta giro ona ziurtatuko dute.

Txosnako kontzertuei amaiera emateko, Euskal Herriko talde mitiko batek berotuko du txosna-gunea, Gozategi gaur egun goraka doan estilo baten estandartea da; beraz, *All Stars* disko berriaz eta klasi-koetz gozatzeko aukera izango dute Bergarako jaietako lehenengo egunera gerturatutakoek.

Lotxo taldea

San Martin plazan | 23:00etan

Dantza egitea gustuko dutenek ere horretarako aukera ezin hobea izango dute Lotxo taldearen erritmoekin. Dagoeneko 20 urtez herriko plazak girotu dituzte; horrenbestez, dantzaldi polita izango da.



Kop katalanak hardcore eta thrash metala defendatzen. | GOIENA

ZAPATUA

18

DjOn Urbieta

Seminarioko zezen plaza | 22:30ean

Disko festak ere izango du tarte Pentekoste jaietan eta lehenengo saioa DjOn Urbietaren eskutik etorriko da.

Irrati formuletan, bogan dauden kantuak entzun eta koreografiekin dantza egiteko aukera izango dute gaztetxoek seminarioko zezen-plazan.

Gauka, Iheskide eta KOP

Txosnetan | 23:00etan

Zapatuan punk-rock eta hardcore doinuak izango dira protagonista Bideberriko gunean. Gauka, Iheskide eta Kop taldeek bolu-ena igo eta oholtza gainean euren ibilbidea erreparatu dute.

Iheskide taldeak mezuz jositako punk-rock kantuak egiten dihardu aspalditik. Azken diskoarekin... *Irabazi arte*, Euskal Herriko musika eszenan aurre-

rapausoa eman zuten eta ordutik hona, jaialdi askotan parte hartu dute. Horrenbestez, agertokia da talde horren ingurune naturala eta hori frogatzera datoz Pentekoste jaietara.

Gaeko talde indartsuena, baina, Kataluniako Kop izango da. Lehenengo diskoa kaleratu zutenetik 15 urte pasatu dira eta ordutik hona, hardcore eta thrash metal musika munduko hainbat txokotara helarazi dute. Euskal Herria askotan bisitatu dute, eta etorri izan direnetan zuzeneko indartsuak eskaini dituzte; hau ez da salbuespena izango.



Anje Duhalde zuzenean. | IMANOL SORIANO

DOMEKA

19

Anje Duhalde

Txosnetan | 20:00etan

Pentekoste jaietako egun handia ospatzeko, Euskal Herriko musikari handietako bat egongo da Bergarako txosnetan. Anje Duhalde jada ikono bihurtu da euskal musika munduan, Errobi taldearen parte izanagatik eta bere bakarkako ibilbide luze eta oparoa dela eta.

Neil Young eta Bob Dylan euskal kulturarekin bat egiteari ekin zion aspaldi. Euskal Herrian folk eta rock musikaren garapena ulertzeko ezinbesteko pertsonaia da, AEBetatik eta Britainia Handitik zetozen eraginei euskal identitatea ematea lortu zuelako.

Duhalde zuzeneko animalia den neurrian, energiaz jositako eta publikoarekin lotura handiko kontzertua izango da. Bada, agertokietan eman dituen 33 urteak erreparatu dituzte domekako kontzertuan.



GOIENA Komunikazio Taldeak
bergarar guztioi
Pentekoste jai zoriontsuak
opa dizkizue!



Oihan Vega DJa. | EITB.COM



Fiachras bergararrak gaztetxean. | GOIENA



Gozategi, Oñatiko gaztelekuan. | IMANOL SORIANO

ASTELEHENA

20

DJ Thobben eta 'Lore Power'

Munibe plazan | 18:00etan

Denboran atzera bidaia egingo dute Muniben; 60ko hamarkadako urrezko egunetara eraman nahi ditu *Lore Power* ikuskizunak ume, gazte, guraso eta aitaita-amamak; beraz, jantzi koloretzuenak jarri eta dantzara!

Laket, Emon eta DJ Bull

Txosnetan | 19:00etan

Koadrilen Eguna ospatzeko musika dantzagarria entzungo da txosnetako bozgorailuetatik. Laket taldea hasiko da arratsaldean txosnagunea giroten kantu alai eta erritmo biziz bergararrak dantzan jarrita.

Ondoren, Emon taldearen txanda helduko da. Otsailean aurkeztu zuten *Konfeti kolore* diskoa defendatuko dute zuzenean, ska, cumbia eta pop-rock musika euskal musikarekin bat

egiten. Txosna girorako musika egiten duen talde bergararrak gustura hartuko du herriko jaietan jotzeko aukera lagunez inguratuta.

Amaitzeko, DJ Bullek, euskal musikaren borrokalariak, musika jarriko du txosnen egitarauri amaiera emateko.

Nuevo Talisman orkestra

Espolioan | 23:00etan

Nostalgikoentzako dantzaldia eskainiko du Nuevo Talisman orkestra errioxarrak. 70eko eta 80ko hamarkadako kantu ezagunak interpretatuko dituzte big band formatuan.

MARTITZENA

21

DJ Oihan Vega

San Martin plazan | 20:00etan

Bosgarren urtez Oihan Vega bergararrak disko-jartzaile lanak egingo ditu Pentekoste jaietan. Jaietako amaiera emateko bergararrak dantzan jarriko ditu.



Bergarako Udal Musika Banda kontzertuan. | GOIENA

Klasikotik jazzera, zinematik pasatuz

Pentekoste jaietako egun handian, Bergarako Udal Musika Bandak Espolioan eskainiko du kontzertua.

Errepertorio polita prestatu dute aurtengoan ere, musika klasikotik hasi eta 40ko hamarkadako jazz big band formatuetako musikaraino, zinema munduari keinutxo bat eginda. Emanaldia kanpoan izango dela kontuan hartuz, obra indartsuak aukeratu dituzte bergarar guztientzat.

Arsenal

J. V. der Roost

Marcha eslava

P. Tchaikovsky

La Traviata

G. Verdi

Green Hills Fantasy

T. Doss

Sinatra

Mold: S. Bulla

Soul Bossanova

Q. Jones

Bergarako Esererkia

A. Gz. Chirlaque



Emon, Elgetako Espolioan, diskoa aurkezten. | IMANOL SORIANO

- ATEAK
- LEIHOAK
- HORMA-ARMAIRUAK
- TARIMAK
- PARKET FLOTATZAILEAK
- SUKALDEAK



Telleria 19, B02-B03 BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 • 610 88 40 20
azkaratearotza@gmail.com



FINANTZAKETA MODU ERRAZAK!

Eskatu orain aurrekontua eta 3, 6 edo 12 hilabeteen ordaindu ahal izango duzu.



PAZ KOAK 2013

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA | JAIK: PAZKOAK 2013, BERGARAKO JAIK
ASTELEHENA, MAIATZAK 20, 20:15 ETA 23:10 | TXOMIN MADINA AURKEZTUA

GOIENA TELEBISTA | JAIK: PAZKOAK 2013, BERGARAKO JAIK
EGUBAKOITZA, MAIATZAK 24, 22:30





Oskar eta Alaitz

Oskar eta Alaitz eskoriatzarrak bihar, zapatua, ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Egun berezi hau elkarrekin pasatu eta disfrutatzea espero dugu; merezi duzuelako! Zuen lagunak".

HILDAKOAK

Isidro Ugalde Lezeta
Eskoriatzan, maiatzaren 8an. 84 urte.
Fernanda Arin Cortabarría
Antzuolan, maiatzaren 9an. 92 urte.
Antonio Torres Cabello
Arrasaten, maiatzaren 9an. 69 urte.
Jose Urzelai Ondona
Arrasaten, maiatzaren 10ean. 74 urte.
Imanol Bolinaga Bengoa
Bergaran, maiatzaren 10ean. 80 urte.
Basilisa Zarrabe Gerenabarrena
Arrasaten, hilaren 10ean. 89 urte.

Felix Altube Alberdi
Oñatin, maiatzaren 12an. 74 urte.
Segunda Carmona Alonso
Arrasaten, maiatzaren 13an. 94 urte.
Francisca Beitia Guridi
Oñatin, maiatzaren 14an. 102 urte.
Jose Antonio Lopez de Vergara Mendialdua
Arrasaten, maiatzaren 14an. 69 urte.
Jesus Garcia Barberan
Arrasaten, maiatzaren 14an. 82 urte.
Julio Markaide Barrutia
Aretxabaletan, maiatzaren 16an. 69 urte.

OROIGARRIA



Julio Markaide Barrutia



Aretxabaletan hil zen 2013ko maiatzaren 16an, 69 urte zituela.

Betiko gure gogoan eta bihotzean jarraituko duzu.

Zure familia.
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 17an.

OROIGARRIA

Fernanda Arin Cortabarría

Juan Arbulu lankidearen ama

Maiatzaren 9an hil zen, 92 urte zituela.

Har beza familiak gure atsekabe-mina.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz-bailaran, 2013ko maiatzaren 17an.

ESKER ONA

Felix Altube Alberdi



Oñatin hil zen 2013ko maiatzaren 12an, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Oñatin, 2013ko maiatzaren 17an.

ESKER ONA

Jose Antonio Lopez de Vergara Mendialdua



2013ko maiatzaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurra bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2013ko maiatzaren 17an.

URTEURRENA

Pilar Olabarria Zabalo



Antzuolan hil zen 2012ko maiatzaren 15ean, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 19an, 11:00etan, Antzuolako Erukiako Amaren eliz parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Antzuolan, 2013ko maiatzaren 17an.

URTEURRENA

Iñaki Bereziartua Odriozola



Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 17an.

*Denbora aurrera doa, aita;
bost urte zu gabe, jada.
Baina urteak joan ahala,
aldatzen ez den zerbait bada:
zure lezioek aurrera egiteko ematen diguten indarra.*

Arrasaten, 2013ko maiatzaren 17an.

URTEURRENA

Vicenta Gorrotxategi Etxeberria

Kruz Telleriarteren alarguna



2012ko maiatzaren 27an hil zen, 83 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 19an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2013ko maiatzaren 17an.

URTEURRENA

Bittori Osoro Loidi

Fermin Garitanoren alarguna



2012ko maiatzaren 25ean hil zen, 81 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 19an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2013ko maiatzaren 17an.

URTEURRENA

Isaac Ibabe Errasti



2012ko maiatzaren 18an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 19an, 12:00etan, Aramaioko San Martin eliz parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2013ko maiatzaren 17an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otarora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



IMANOL SORIANO

ARRASATE Andaluziar astea

Arrasateko Al-Andalus elkar-teak kultura astea ospatuko du. Zapatuan, 22:15ean, playback lehiaketa egingo dute elkartean. Domekan, aldiz, abesbatzen txanda izango da. Sueños de Andaluciaren eta Goikobaluren emanaldia izango dute (13:00etan eta 13:30ean) elkartean bertan.

Bihar eta etzi, zapatua eta domeka, Al-Andalus elkartean, 22:15ean.



GOIENA

BESTELAKOAK**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua**

Bisita honetan parte hartzeko alde aurretik izena eman behar da. Gatzaren ekoizpenean ur-jauzien erabilera landuko dute bisitan.

Bihar, zapatua, Gatz Museoa 12:00etan.

DEIA**ARRASATE Bizikleta martxa**

Oñati-Arrasate bidegorriaren inaugurazioa dela-eta, bizikleta-martxa egingo dute Arrasatetik irlanda.

Etzi, domeka, Seber Altuben 11:00etan.

OÑATI Goazen Plazara ekimena

Herrirak antolatuta, presoen eskubideak aldarrikatzeko ekimena. Egun osoko egitaraua: txotxa, 13:30ean ekitaldi nagusia; 19:00etan giza katea plazatik Errekaldera; ondoren, jaia Errekaldoko txosnagunean.

Bihar, zapatua, Herriko kaleetan 10:00etan.

BERGARA Herrixa Dantzan zuzenean

Musika zuzenean Jainaga eta Narbaizarekin. Dantza gidaria: Patxi Montero. Dantza tradizional errazak: sokan, korruan, bikoteka... denetarik. Helburua: adin ezberdinetako herritar soilek dantzan elkarrekin gozatzea.

Etzi, domeka, plazan 19:30ean

ANTZUOLA San Isidro eguna

Ganadu azoka, kukumarro erakusketa, txistulari eta trikitilari kalejira... hainbat ekintza daude antolatuta egun honetarako.

Bihar, zapatua, 09:00etan.

BERTSOLARITZA**ARAMAIO 'Bertso-glosa' saioa**

Esteve Barcelo eta Joan Moll glosalariak, Ismael Moll sonadorea eta Xabi Igoa, Ander Solozabal eta Aramaio bertsolari eskolako kideak izango dira protagonistak.

Bihar, zapatua, Iturrieta sagardotegian 22:00etan.

ARAMAIO Arabako bertsolari gaztetxoaren eskola arteko XVIII. txapelketa

Arabako bertsolari gaztetxoaren topaketa Aramaion.

Bihar, zapatua, Kultur etxean 17:30ean.

UMEAK**ESKORIATZA Zeramika tailerra**

Zapatuan, hilak 18, Museoa Nazioarteko Eguna da, eta, hori dela-eta, umeei zuzendutako ekintzak gertatu dituzte; besteak beste, umeei zuzendutako zeramika tailerra egingo dute Ibarraundi museoan.

Bihar, zapatua, Zubieta labean 11:30ean.

ESKORIATZA Historiaurreko tresnak

Umeei zuzendutako ekintzak; besteak beste, historiaurreko tresnak erabiltzen ikasteko tailerra izango dute.

Bihar, zapatua, Ibarraundi museoan 10:30ean.

IRTEERA**ESKORIATZA Zarimutz-Eskoriatza ibilaldia**

Huhezik eta Udalak elkarlanean antolatutako mendi hilabetearen bueltan, trenbide zaharretik Zarimutz eta Eskoriatza arteko ibilaldia egiteko aukera izango da domekan.

Etzi, domeka, plazan 09:00etan.

AZOKA**ANTZUOLA Bigarren eskuko arropen azoka**

Goizetik kalian: 2. Eskuko arropen ferixia egingo dute gaztetxean zapatuan.

Bihar, zapatua, Antzuolako gaztetxean 10:00etan.

JAIK**OÑATI Errekaldoko jaiak**

Egubakoitzetik domekara bitartean Errekaldoko jaiak ospatuko dituzte.

Aste bukaeran, Errekalde auzoan.

berriak 10 urte

zatoz gurekin
ospatzera

Webgune berezia:
www.berria.info/berriataldea
izan zaituz
berrialaguna

Antolatzailea: **berria** Laguntzailea: **hitza**

berria

hamarnaka
kontatzekoak gara

Babesleak:
Gipuzkoako Foru Aldundia LABORAL kutxa Irizar

Maiatzak 25, Elgeta



Kontzertua Bizardunak

22:30ean • Espaloia Kafe Antzokian

Sarrerak aurrez:

- Interneten: www.berria.info/berriataldea
- Elgetan: **Espaloia Kafe Antzokian**
- Bergaran: **Jardun** elkartean
- Arrasaten: **AED** elkartean
- Aretxabaletan: **Loramendi** elkartean

Sarrerak egunean bertan: Espaloia Kafe Antzokian

Sarrera: 5 € berrialagun harpidedunentzat
eta berrialagunentzat. Gainerakoentzat: 10 €

Oharra: Harpidedun edo BERRIALAGUN txartela erakustea ezinbestekoa izango da, eta txartel bakoitzarekin bi sarrera eskuratu ahal izango dira gehienez.

Laguntzailea: **espalola**



goiena

2013-05-17

BUKATZEKO

Angiolilloren bueltan esku ugari lanean

- ▶ Aitor Arantzabalek Angiolillori buruz idatzitako liburua kalean izango da laster auzolanari esker
- ▶ Joan den zapatuan hamabost bat lagun elkartu ziren gaztetxean liburuaren muntaia egiteko

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Azkenaldian galtzen ari den arren, Euskal Herrian beti izan dugu auzolanerako tradizio handia. Izan ere, makina bat gauza egin daiteke auzolanean: errepide bat konpondu, leku bat txukundu, bazkari bat antolatu edo eraikin bat margotu. Bada, liburu bat ere egin daiteke auzolanean, eta horixe erakutsi dute Aitor Arantzabal bergararrak, Angiolillo Liburutegiak eta proiektuan parte hartu duten lagun guztiak.

Espetxetik espetxera

Aitor Arantzabalek espetxean izan zen denboran idatzi zuen Angiolillori buruzko liburua. Proiektuak, beraz, espetxean hasi zuen ibilbidea eta baita amaitu ere: Angiolillo preso egon zen espetxean, hain justu. Pasa den zapatuan, Bergarako kartzela zaharrean, auzolanean egin zuten liburuaren muntaia.

Ibilbide horretan asko izan dira modu batera edo bestera lagundu duten eskuak: "Jende askok egin du posible liburua. Koldo Izagirre idazlea -informazio pila bat eman zigun-; neskalaguna, koadrila eta familiartekoak -zaila zen arren, ezkutuan informazioa sartzen zuten espetxean



Joan den zapatuan auzolanean muntatu zuten liburua. | IMANOL SORIANO



Aitor Arantzabal. | ARRITXU BARRUSO

nintzenez-; despistatuko funtzionarioa ere bai, zergatik ez; Angiolillo Liburutegia... Eta, azkenik, joan den zapatuan liburuaren muntaian lagundu zuten herritar guztiak", azaldu digu Aitor Arantzabalek.

Angiolillo Liburutegiko arduradunak ere pozik daude zapatuko hitzorduak emandakoarekin: "Oso esperientzia polita izan zen. Uste baino jende gehiago batu ginen eta bi orduan bukatuta geneukan lan guztia. Hasiera-hasieratik argi geneukan liburu hau auzolanean egin beharreko zerbait zela. Angiolilloarekin zor handia daukagulako bergararrok", azaldu digu Aser Polvorosak.

Liburua ekainaren 14an aurkeztuko dute Bergarako gaztetxearen 13. urteurreneko ospakizunen barruan.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Udaberri nahasia

Euskal Herria krisiak jota dago, ekonomian eta politikan. Inoiz baino beharrezkoagoa da indarrak batu eta etorkizuna eraikitzea. Lehendakaria alderdi politiko desberdinekin behin eta berriz elkarren arteko adostasunerako bidea jorratu nahian dabil, baina bakoitzak bere buruari begiratzen dio, bere interesei. Politikariak gizar-tearengandik sekula baino urrutiago dauden sentsazioa daukat. Herriak guztion artean adostasuna nahi du, krisiari buelta ematen saiatu daitezela guztiok batera, baina alderdi politikoek bizkar ematen diote errealitate honi. Gipuzkoan Bildu PPrekin konpontzen da bidesariak ipintzeak, PSErekin noiz nahi iristen da akordioetara. Baina zer gertatzen da Eusko Legebiltzarrean? PSEk ez du PPrekin ezer jakin nahi, Bilduk ez du EAJrekin inolako akordioirik irudikatu nahi, PSEk EAJri ez dakit ze faktura pasa nahi dio... Ez da giro gure politikagintzan. Bakoitzak bere zilborrari begiratu beharrean gure herriaren arazoei aurre egin eta etorkizunera begiratu balu mesede ikaragarria egingo liguke. Ez da suak pizteko garaia. Herri bat izateko ez ezik, herri bakar bezala lan egiteko unea iritsi da eta ez dakit horretarako gaitasunik izango dugun giro nahasi honetan.



La Escandella
TEILAK

35 URTEKO GARANTIA



gelatzo S.L.

Zubillaga auzoa 1, OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 - Faxa: 943 78 15 51

